

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2014-12-08
ASTELEHENA
477. ZENBAKIA
11. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.EUS
TOKIKOM

Kulturaren plazak azken eguna gaur

Azokak eman duenaz
ibarrekoak pozik | 30



Gosekoak, sinatzen. | MIREN ARREGI

Ehunka gaztetxok San Nikolas
ospatu dute Arrasaten | 13



Oñatiko Bertso Txapelketako
finalistak erabakita | 18



"MUK erreferente izan gura du
gertuko hedabideen ikerketan" | 8



Irabazlearen txapela
jantzita, Marko Sevarlic
sari banaketaren
ostean azken pieza
jotzen.

Txapela, Serbiara

Marko Sevarlicek irabazi du Arrasate Hiria
Akordeoi Lehiaketako 22. edizioa | 32

JOSETXO ARANTZABAL

SINADURAK

	IÑAKI LAKARRA 9
	JOSU ZUGASTI 15
	AITZIBER PLAZAOLA 17
	NURIA FERNÁNDEZ DE ARRIOLA 19
	OIHAN VEGA 37
	AINHOA LARRAÑAGA 40

mō betaurreko
 graduatuekin
 ukipen-lenteak
DOAN

BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR
ERRETERIA • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA


www.multiópticasgipuzkoa.com
 Kontsulta itzazu zure zentroan kanpainaren ezaugarriak.
 Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

lbargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS
 lehena zerbitzu optikoetan

EZ ZAITEZ LARANJA ERDIAREKIN KONFORMATU



**Gipuzkoako komertzio txikia.
Buruak eta bihotzak bat egiten duten lekua.**

Akabo egindako ahaleginaren maila izerdi orbanak ematen zuen garaia

- Kirolerako teknologia, aplikazioak eta gailuak gero eta gehiago erabiltzen dira
- Horien erabilerari buruzko jardunaldia egingo dute hilaren 16an Arrasaten, Garaian

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Kirola egin ahala eta saioa amaitutakoan. Gero eta ohikoagoa da sentazioez gain, sentazioetatik harago, propio sortutako neur-gailuek edo aplikazioek ematea egindako ahaleginaren eta lanaren nolakotasunaren berri. Kirolariak egindako lana ez dela, alegia, izerdi tantetan zenbatzen, digitu bidez adierazitako askotariko balioekin baizik. Eta lan hori neurtzeko bezala, beste hainbat gauzatarako ere badira kirolean gailuak eta aplikazioak –GPSak, adibidez–. Eta hori ez da dena; gero eta ohikoagoa baita kirolariak egiten duena beste batzuekin konpartitzeko joera ere, horretarako sortutako sare sozialetan edo ohikoetan.

Mondragon Unibertsitateko telekomunikazio goi ingeniaria da Miguel Fernandez, irakaslea eta ikertzailea; aurrez aipatutakoari buruz, kirol marka ezagun baten gaineko adibidea jartzen du: "Mugikorrerako aplikazio bat du, korrika egitean edo bizikletan ibiltzera joatean, denborak neurtzeko, entrenamendua aztertzeko. Baina marka berak badu dispositibo bat, GPSa duen erloju bat, entrenamenduak kontrolatzeko. Gainera, webgune batera lotuta dago eta bertara igo dezakezu zure aktibitate fisikoaren berri, erlojuan jasotako informazioa eta aplikazioaren bitartez jasotakoa ere bai. Eta are gehiago: nahi baduzu, webgune horretatik, edo mugikorreko aplikaziotik, Facebooken eta Twitterren parteka dezakezu egin duzuna".

Eta "ia egunero sortzen dira aplikazio edo gailu berriak"; hala dio Kirolaren Euskal Eskolako –Jaurkitzearen Gazteria eta Kirol zuzendaritzaren zerbitzua– teknikari Joseba Bujandak, zerrendatuta: "GPSak, podometroak, azelerometroak, pultsometroak,



Kirolaria, besoa eta belarrian gailua duela. | MOTOROLA

ESANAK

"Aplikazio eta gailu pila bat sortzen ari dira, funtzionalitate berriekin"

JOSEBA BUJANDA | KIROL ESKOLA

"Entrenatzaile eta kirolarien interakzioa asko hobetu da teknologiarekin"

MIGUEL FERNANDEZ | IKERTZAILEA

eskumuturrekoak, erloju inteligenteak... Kirolarekin lotutako milaka aplikazio eta dispositibo sortzen ari dira, funtzionalitate berriekin".

Hainbeste berritasunekin, kiroleko eragileek ere ez dituztela "guztiak" ezagutzen dio Bujandak. Eta hori dela-eta, ezagutzeko eta izan ditzaketen erabileren berri emateko, antolatu dute abenduaren 16rako *App-ak, Gad-get-ak eta 2.0 ingurunea. Kirolaren garapen-iraultza* izeneko jardunaldia, teknikari eta entrenatzaileei, osasun eta jarduera fisikoko begiraleei, heziketa fisikoko irakasleei eta gaiarekiko interesa lukeen edonori zuzenduta. Arrasateko Garaian izango da, eta izena eman daiteke hilaren 12ra arte, www.kiroleskola.net helbidean –doan–.

Datorrena, 'wearable'-ak

Miguel Fernandezek dio *app*-ak eta dispositiboak kontsolidatu direla dagoeneko, eta gauza berriak ari direla agertzen; adibidez, *wearable*-ak, "jantzi daitezkeen gauzak": "Ari dira agertzen dispositiboak arropan integratzen direnak, neurtzeko bizi konstanteak, adibidez, edo korrika egindako distantzia".

Berritasun hauen guztien beharrezkotasunari buruz galdetuta, Fernandezek dio egia izan arren "zenbait behar" industriak sortzen dituela, aplikazioak eta gailuak erabilgarri izan daitezkeela: "Entrenatzaile eta kirolarien arteko interakzioa asko hobetu daiteke teknologia berriekin eta Internetekin; dagoeneko asko hobetu da, egia esan".

Edonori izan dakiok moti-

JARDUNALDIAREN EGITARAUA

Izenburua: *Kirola espazio fisiko eta digitalean.*

Hizlaria: Juanma Murua, aholkulari aditua kirolean.

Ordua: 09:35.

Izenburua: *App, gadget, eta kirolaren 2.0 inguruneak deskribapen eta funtzionaltasunak.*

Hizlaria: Miguel Fernandez, MUko irakaslea eta ikertzailea.

Ordua: 10:00.

Izenburua: *Kirol profesionalek egiten duten teknologia berrien erabilera.*

Hizlaria: Juanma Murua, aholkulari aditua kirolean; eta Eugenio Rodriguez, Gipuzkoa Basketeko prestatzaile fisikoa.

Ordua: 12:00.

Izenburua: *Ibilbideak. Mugitzeko ideiak Internetez partekatzen.*

Hizlaria: Mikel Bringas, Eusko Jaurkitzearen.

Izenburua: *Podometroak eta app-ak, jarduera fisikoaren motibatzaile.*

Hizlaria: Iñaki Iturrioz, Irun Kirol.

Ordua: 13:00.

batzaile norberaren entrenamenduaren ondoriozko bilakaera zenbakietan ikustea. MUko irakasleak, hala ere, ohartarazten du gailuen informazioa eskura edukitzeak ez duela eragin behar egin beharreko beste batzuk alboratzea: "Behobia edo maratonia egin behar baduzu, osasun azterketa egin egin behar da; edo entrenamendu plan serio bat nahi baduzu, aditu batengana jo". Prebentzio neurri gisa, eta erremintoi ahalik eta etekin handien ateratzeko, bestalde.

Euskalduna
Hileta Zerbitzuak



BEILATOKIA • ETENGABEKO ZERBITZUA • LORE KOROAK
ESKELAK • TRAMITE GUZTIEN BIDERATZEA



Amilaga 39, Bergara • Tel./Faxe: 943 76 12 99 • e-posta: euskalduna@harrespil.net

Ez zaitez galdu.



EROSKETAK DEBAGOIENEAN EGIN!



Gertuko komunikabideen bigarren jardunaldia egingo dute eguaztenean

Izan dezaketen balio soziala izango da landuko duten gaietako bat

IRATI GOITIA | ARETXABALETA

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Hezikom ikerketa taldeak antolatuta, Gertuko komunikabideen bigarren jardunaldia egingo dute eguaztenean, hilak 10, Aretxabaletako campusean. "Nahi izaten dugu egindako ikerketak eta dauzkagun proiektuak aurkeztea; baita kanpoko azterketen berri jasotzea ere. Beti ere, gaia izanda gertuko komunikabideak –tokikoak edo gertukoak–, adierazi du Eneko Bidegain antolatzaileak. Bestalde, gaineratu du euren helburua dela jardunaldian biltzea unibertsitate eta ikerketa sektorea, komunikabideena eta administrazioarena.

Balio soziala

Komunikabideen balio soziala hartu dute oinarri aurtengo jardunaldirako: "Gaur egun ikertzen da Gobernu Kanpoko Erakunde eta erakunde sozialen inguruan, zehazki, neurtzen da sortzen duten balio soziala. Pentsatu dugu hori interesgarria dela komunikabideetara ekartzea.



Gertuko komunikabideen lehenengo jardunaldia, iaz. | MONDRAGON UNIBERTSITATEA

Neurtzea euskarazko komunikabideek gure kasuan ze balio sozial sortzen duten. Hori ikertzeko asmoa dugu hurrengo hilabeteetan

tan uste dugulako komunikabideen inguruan badirela oraindik ezagutzen ez diren adierazle garrantzitsu batzuk". Horrela,

euskarazko komunikabideen balio soziala ikertzea helburu duen ikerketa proiektua aurkeztuko du Hezikom ikerketa taldeak. Halaber, 2013-2014 ikasturtean, Tokikom elkartearen laguntzarekin egindako beste azterketa baten emaitzak ere aurkeztuko dituzte, estreinakoz: euskal Pirinioetako euskarazko komunikabideen egoera aztertu eta ikusi zein aukera dagoen plataforma digital bat sortzeko. Bidegainek emango du horren berri, hain zuzen.

Kataluniako eta Andaluziako tokiko komunikabideei buruz egindako ikerketak ezagutzeko aukera ere izango da, bertako ikerlarien eskutik. "Guk batez ere euskarazko komunikabideen egoera aztertu nahi dugu, baina baita kanpoan diren antzerako esperientzien berri jaso ere", zehaztu du MUko irakasleak.

Aurtengoa bigarren edizioa da. Iaz, Tokikom elkartearekin batera antolatu zen jardunaldia, eta eman ziren ezagutzera euskarazko tokiko komunikabideen erradiografiari buruzko datuak.

EGITARAUA

09:00-09:15 Agurra eta jardunaldien aurkezpena.

09:15-09:35 Pirinioetako tokiko komunikabideen azterketaren aurkezpena (Eneko Bidegain).

09:35-09:55 Tokikomen aurkezpena. Berrikuntza bat, praktika ona, erronkak... (Urko Aristi).

09:55-10:15 Berria Taldearen aurkezpena (Iban Arregi).

10:15-11:00 Nola saretzen ari diren tokiko hedabideak. Kataluniako esperientziak (Josep Àngel Guimerà).

11:00-11:30 Atsedena.

11:30-12:15 *Situación de los medios de comunicación de proximidad en Andalucía. Rentabilidad Social de los medios de proximidad en Andalucía* (Victoria Gabilondo eta Rocio Monedero).

12:15-12:30 Komunikabideen Balio Soziala proiektuaren egoeraren aurkezpena (Aitor Zuberogioia eta Txerna Egaña).

12:30-13:00 Administrazioaren aurkezpena (Patxi Baztarrika).

13:00-13:30 Eztabaida, galderak.

13:30-14:00 Luntxa.

Mondragon Taldearen batzarrean protesta egingo dute Ordaindukoek

I.G. | ARRASATE

Hilaren 15ean batzarra egingo du Mondragon Taldeak Donostiako Kursalean. Bada, Ordaindukoek eta Eskuratukoek elkarretaratzea egingo dute kanpoan, eta ondoren, manifestazioa Donostiako kaleetan. "Negoiazioa eskatzen diogu Mondragoneko eta kongresuko zuzendaritzari", adierazi du Mikel Olabek, Ordainduko kideak. Gaineratu du taldeak egiten duen batzar nagusia izanik, presente egon nahi dutela.

Autobusa egongo da Donostiara joateko. 13:00etan irtengo da Arrasatetik, Garibaitik. Elo-

rregin geratuko da Oñatiko jendea batzeko eta Bergaran ere egingo du geldialdia.

Aldizkari alternatiboa

Bestalde, aldizkari alternatiboa aurkeztuko dute Ordaindukoek egunean, Kulturaten, 11:00etan. "Guk uste dugu *Tu lankide* ez duela ondo azaltzen Fagor Etxetresnen erorketaren ondorioz sortutako kaltetuen auzia. Gainera, bi idatzi ere bidali ditugu eta ez dizkigute argitaratu. Beraz, geurea ateratzea erabaki dugu", azaldu du Olabek. Aldizkari alternatibo horren izena *Tu langabe* izango da.



IMANOL SORIANO

Konstituzio egunari intsumiso egin, eta eskolara

"Egun arrotzetan ospatzeko ezer" ez dutela eta, intsumisioa egin, eta herri eskolak, elkarretaratzea eta bazkaria antolatu dituzte Debagoieneko Ernaik eta Fan Hemendik batzordeak. *Jai egun arrotzei intsumisioa, guk independentzia* lelopean egin zuten elkarretaratzea Oñatiko Foruen plazan. Aurretik, herri eskola izan zuten Julen Artzuagarekin, EH Bilduko legebiltzarkidearekin.



KONPONKETAK:

Txapa

Margoa

Mekanika

Kalean da Alberto Plazaola 24 urte preso egon ostean

A. E. / A. L. | OÑATI

Eguen arratsaldean utzi zuten aske Alberto Plazaola *Aitto*. Arratsaldean irten zen Curtiseko (Galizia) Teixeira espetxetik eta gauean iritsi zen Oñatira. Bertan, harrera egin zioten senide eta lagunek. Urte gehien preso zeraman preso oñatiarra da *Aitto*: 1990. urtetik zeraman espetxeratuta. 24 urte horietako lehenengo seiak Frantzian eta gainontzekoak Galizian bete ditu Plazaolak.

Senide, lagun eta herritarrek trikiti doinuen laguntzaz Kale Barrira gerturatu ziren preso ohiari harrera egiteko asmoz. Ondoren, aurrekua dantzatu zioten dantzariak eta bertsolariak ere jardun zuten. Gainera, etxafuegoak bota zituzten *Aitto*-ri ongietorria egiteko.

Lege berria martxan

Eguenean sartu zen indarrean Espainiako araudian 7/2014

Legea; zigorrak Europako Bata-sunean modu bateratuan hartu behar direla dioen araua. Eta horrek hain juxtu, Euskal preso askori eta askatu berri duten *Aitto* oñatiarrari eragiten die. Espainiako gobernua moldaketak egin dizkio lege berriari Euskal presoen kasuetan, kartzelaldia murriztea eragotziz. Izan ere, Frantzian atxilotu eta zigorrak bertan bete dituztenak Espainiara eramaterako orduan, Frantzian betetako urteak balio-gabetuko lituzke moldaketa horiek.

Horren harira, badago moldaketa horrek eragiten dion beste preso debagoiendar bat: Maixel Iparragirre eskoriatzarra Frantzian dago atxilotuta egun. Honek, Espainiara ez eramateko eskaera egin du, semeak Parisen ikasten duela arrazoituz. Aurrerago ikusiko da zein den lege berriak eka-rriko duen egoera.



Egueneko ongietorriaren uneetako bat. | NATXO SANTOS

Emausen objektu 'vintage'-en enkantea

XVII. mendeko argizaiola, 1914ko aldizkaria edo polaroid kamera bat dira objektuetako batzuk

A. L. | ARRASATE

Aurten lehenengokoz Emausen Gabonetako enkantea egingo da Irungo, Donostiako eta Arrasateko EkoCenter-etan. Aspal-diko 206 objektu dira enkantean jarriko dituztenak; gaur egungo modernoek *vintage* bezala izendatutako objektu horiek dira. Instagram-aren aitzindari den polaroid kamera, XVII. mendeko egurrezko argizaiola, *Motion Picture Magazine* zinema aldizkariaren 1914ko ale bat, burdinazko lisatzekoa, Scalextric zaharra, edota Super 8 kameraren proiektorea dira besteak beste, enkantean aurki daitezkeen objektuetako batzuk.

Besoa altxa beharrik ez

Metodo kurioso samarra erabiliko dute Emausekoek enkan-

tea egiterako orduan. Bakoitzak nahi duen objektuarengatik diru kopuru bat eskainiko du, baina ez ikustera ohituta gauden bezala: ez da besoa altxatuko objektu batengatik gehiago eskaintzeko eta ez dute galdetuko "nork eskaintzen du gehiago?".

Enkantea idatziz eta gutun-azal itxietan egingo da. Bakoitzak nahi duen objektuari prezio bat jarriko dio eta kutxa batera botako du. Nahi beste objektu-rendako egin daiteke enkantea, beti ere, bihartik eta hilaren 18ra bitartean bada, 16:00etatik 20:00etara (Arrasaten: Bidekur-tzeta kalea, 2).

Aipatzekoa da ere, Arrasate-etik ere Irungo edo Donostiako objektuen enkanteetan parte har daitekeela.

Jone Agirre eta Mireia Isazelaia | MUko Leinn gradu-ko ikasleak

"Gure erronkarik handiena jendeak gugan konfiantza izatea da"

- Koren izeneko enpresaren baitan, American Dream proiektua sortu dute
- Prezio baxuagatik, gazteek Estatu Batuetara ingelesa ikasteko

ANDER LARRAÑAGA | OÑATI

Oñatiko Jone Agirre eta Arrasateko Mireia Isazelaia, MUko Leinn gradu-ko ikasleak dira Oñatin. Hori horrela, gaztetxoek Estatu Batuetan udan ingelesa ikasteko *American Dream* programa antolatuko dute, eurek sortutako Koren enpresaren baitan. Hurrengo bilera, hilaren 16an izango da Bergarako kultu etxean, gurasoek plangintzaren inguruan dituzten kezka guztiak argitzeko.


Zerk desberdintzen zaituzte gainontzeko halako enpresez?

Esperientzia dugu biok halako programekin bidaiatu izan dugulako, eta honek planteamendua hobetzeko aukera eman digu. Beste programekiko ez dugu diferentzia handirik, baina gure aldatketarik handiena eta nabarmen-tzen gaituena, prezio baxua da: 2500 eta 2800 euro ingurukoa da. **Zeintzuk zerbitzu sartzen dira hor?** Gure prezioaren barne, hegazkina, bertan egingo diren jarduerak eta txangoak, dietak eta kanpamentua (udalekuak) daude.

Zer egin behar da izena emateko?

Gure webgunean sartu (www.korenleinn.wix.com/american-dream) eta bertan inskripzio orria bete. Aipatu beharra dugu, plazak mugatuak direla. Abenduaren 19a baino lehen izena ematen dutenendako, merkeagoa izango da (2500) eta hortik aurrera, otsailaren 28ra arte, garestiago (2800). **Nola sortu zitzazuen ideia?**

Biok gustuko dugunez bidaiatzea eta Estatu Batuetara joan garenaz, askotan hitz egin izan dugu honi buruz. Baina, inoiz ez gara ausartu hau aurrera eramatera. Zorionez, gure graduak, hau egiteko aukera eman digu: honelako



Agirre eta Isazelaia Leinneo ikasleak. | JONE AGIRRE

proiektuak aurrera eramateko prestatu gaituzte, bai esperientziarekin, baita ikasketekin ere. **Zein izan da sorkuntza-prozesua?** Hasieran ideia soil bat zen, baina taldekideek animatu gintuzten eta irakasleekin batera hau aurrera eramaten hasi ginen proiektua. Informazio bila genbiltzala, konturatu ginen, gabezia bat zegoe-la gure inguruan. Joneren Ameriketako herrian hainbat familiek ez zuten ikasle euskaldunak jasotzeko aukerarik; izan ere, duela bi urte eten zuten harremana programa batekin eta hori berreskuratzeko zen gure helburua. Euren kontaktuan jarri eta horien baldintzak betetzen saiatu ginen. Azkenean, akordio batera heldu, eta bai gu eta bai amerikarrak ados jarri ginen proiektua aurrera eramateko. **Zenbat gaztetxok eman dute izena?**

Jada badugu taldetxo bat baina gure ikasle kopurua 25ean utziko dugu oraingoz. Lehenengo aldia denez, talde txiki bat izan nahi dugu; ongi irten ezkerro, etorkizunean taldea handituko genuke. **Zein da planteamendua?** Gazteak bai hegazkinean eta bai bertan, begirale baten gidaritzapean egongo dira. Ez dira inoiz bakarrik egongo, beti izango baitute nagusiren bat (familia edo monitorea) euren kargu, adin txikikoak direlako. **Zein da erronka nagusia?** Gure erronkarik handiena jendeak gugan konfiantza izatea da. Badakigu gazteak garela, baina, ez gaude edozer gauza prestatzen; irakasleen laguntzarekin dena aurrera eramaten ari gara eta esan genezake beste programa handiekin alderatuz ez dugula inongo aldatetarik.

Plater goxoak dastatuz lker Sukaldeak-en eskutik

Eguenean gonbidatu berezi bat izan zuten Arrasateko lker Sukaldeak-ekoek: Electrolux etxetresnen taldeko Carlos Coco sukaldari madrildarra bertako gailuak erabiliz plater desberdinak egin zituen. Lau plater eta postre bat gertatu zituen gerturatu zirenek giro epelean janaria gozatzeko.



ANDER LARRAÑAGA



Oñatiko Cegasa lantegia; 2010a ezkerro Cegasa Internacional du izena. | GOIENA

Kalte-ordain "txikia" izango dute langile kaleratuek

Oñatiko langileek jarraituko dute; baina 324, ziurrenik, kalean geratuko dira

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI
Sherpa Capital funtsak Cegasako negozio lerro batzuekin jarraitzeko proiektua aurkeztu du, eta baita, karga sozialarekin. Horregatik onartu du Sherparen eskaintza Gasteizko Merkataritza Arloko Epaitegiak. "Bizkaiko beste enpresa baten eskaintza ere baze goen, baina horiek ez dute lanpostuak mantentzeko konpromisoa erakutsi, bakarrik negozioa gura zuten", azaldu digu Jose Luis Fernandez Oñatiko langileen batzordeko kideak.
Hori horrela, Oñatiko langile guztiek jarraituko dute Cegasa berrian lanean. Oñatikoez gain, Gasteizko beste 65 langilek ere jarraituko dute lanean. Baina beste 324 langile kalean geratzeko arriskuan daude –Cegakoak

kontuan hartuta. Logistikaz arduratzen den Cegako 100 bat langiletik 28, ziurrenik, Azkarrera pasako dira lanera. Hain zuzen, langile kaltetuek salatu dute lanean jarraituko duten Gasteizko langileak "gaur egungo zuzendaritza taldekoak eta langile batzordeko kideak" direla. "Bai, hala da eta horren arrazoia da Sherpak negozio jakin batzuk erosi dituela; eta, kasualitatez, langile batzordeko %90ak negozio horretan egiten du lan, Energia eta argia", azaldu du Jon Kortabarria Oñatiko langileen batzordeko kideak.

Kalte-ordain "txikiak"
Kalean geratuko diren langileek "kalte-ordain txikiak" jasoko dituzte. Hori ere salatu dute kaltetuek.

Kortabarriari galdetuta, zera dio: "Ez dago dirurik. Negozio batzuk saltzeko asmoa zegoen, baina ez direnez saldu ez dago dirurik". Hala, Fogasako dirua jasoko dute, baina ziurrenik, ez dute legez jaso beharrekoa jasoko.
Lanean jarraituko dutenek, aldiz, gaur egungo baldintzetan jarraituko dute, salbuespen batzuekin: urtean 40.000 eta 50.000 euro bitartean irabazten dutenek %10 gutxiago jasoko dute; 50.000 eta 90.000 bitartekoek %15 gutxiago; eta, 90.000tik gora irabazten dutenek %20 gutxiago.
Zenbateko inbertsioa
Sherpa Capitalek (inbertsio fondo bat da) 2,5 milioi euro eskaini ditu Cegasako hiru lerro erosteko; eta 7 milioi inbertituko ditu.

Candyko langileek zuzendaritzakoei leporatu diete aurtengo kontuetan irabaziak izan dituela enpresak

A.E. | BERGARA
Joan zen egunean batzartu ziren berriro ere Candyko langileen ordezkariak enpresako zuzendaritzarekin enpresaren itxiera dela-eta. Langileek aurtengo kontuetan irabaziak dituztela leporatu diete zuzendaritzakoei; hauek onartu egin dute, baina, aurreko urteetako kontuetan galerak izan zituztela erantzun diete. Langileek diotenez "horrek frogatzen du urduri daudela eta enpresak bideragarri izaten jarraitzen duela". Proposamen bat egin diete enpresa buruek langileei, baina, azken horiek ez dira ados agertu.

Bihar, martitzena, abenduaren 9a, kontzentrazioa egingo dute Bergarako plazan. Horrez gain, egunean manifestazioa egingo dute euren eskubideen alde herriko kaleetan, 18:30ean hasita. Egubakoitzean berriro batzartuko dira langileen ordezkariak zuzendaritzakoekin, baina, printzipioz, mobilizazioekin jarraituko dute-la azaldu dute.
Zuzendaritzaren oharra
Zuzendaritzak ohar bidez euren proposamena azaldu du: "Biltegia mantenduko dugu sei langileekin, eta bulegoetan beste 13 lan-



Candy kanpoaldea, egunean. | GOIENA

gile; hala, ez dute Bartzelonara joan beharrik izango". Horrez gain, kaleratze orokorreko kaltetuek "urteko 30 eguneko kalte-ordaina" jasotzea proposatu du zuzendaritzak.

Mondragon Unibertsitateko bi ikaslek 'Orona Get up' saria jaso berri dute

Sariak banatzerakoan aintzat hartu dute karrerako proiektuan ikerketa sartu izana

A.E. | ARRASATE
Orona Get Up sariak banatu berri ditu Mondragon Taldeko Orona kooperatibak. Aipatutako sariak unibertsitateko karre-ra amaitu eta ikertzen diharduten gazteentzako bultzada izan nahi dute. Aurtengoan, MUko bi ikasle saritu zituzte: Diego Garavitok bigarren saria jaso du eta Mikel Ruanok hiru-garrena.
Sariak unibertsitateko karre-ra amaitu eta ikertzen diharduten gazteentzako bultzada izan nahi dute. Aintzat hartu dute proiektuaren zati batean ikerketa sartu izana, eta, aldi berean, garraio bertikalaren, hiri mugikortasunaren eta erai-

kinen kudeaketa energetikoaren arloetan nobedadeak eskaini izan badituzte.
Unibertsitatearekin loturak
Oronako Giza Baliabideetako zuzendari Mikel Tolosak banatu zituen sariak: "Balio du Oronan sartzeko talentua detektatzeko bide gisa". Sarituak izan ziren: Pablo Gonzalez Oviedoko Unibertsitateko ikasleak lehenengo saria jaso zuen; bigarren saria MUko Diego Garavitori eman zioten, *Modernitatea aginte panelean zehar eta soinu*a proiektuaren; eta, hirugarren saria Mikel Ruanok jaso zuen *Orona makinaren konfiguratzail*ea proiektuagatik.



Jon Altuna, sarituak eta Oronako ordezkaria. | ORONA

Osasun sistema garai berrietara egokitzeko jardunaldiak egin dituzte

A.E. | ARRASATE
Mondragon Health, SEDISA eta Barrualde-Galdakao ESik antolatuta osasun arloko jardunaldiak egin zituzten Galdakao-U-sansolo ospitalean. Osasun arloko teknologian orainaldira eta etorkizunera begira osasunaren eta herritarraren kudeaketan eman diren azken aurre- rapenak aurkeztu zituzten, osasunaren sektore nazionaleko 150 profesional eta adituk.
Arartekoaren kexak
Iñigo Lamarca Arartekoak Eus-kadiko osasun-sistemako era-

biltzaileen aldetik jasotzen dituen kexa nagusiak azaldu zituen eta oroitarazi zuen: "Osasun-eskubidea garrantzitsuen dela, eta norbanako guztiei dagokien giza eskubidea dela". Amaitzeko, adierazi zuen: "Horregatik, hala Osasun Saila nola Osakidetza eskubide hori herritar guztiei bermatzen saiatu behar dira".
Arartekoaren hitzaldiaren ondoren, bi mahai-inguru egin zituzten: Osasun zerbitzuak emateko eredu berriak eta Herri-tarrak eta osasun arloko tek-nologia.

Jaurlaritzaren Hipoteka Bitartekaritza Zerbitzuak ebatzitako kasuen %82an bi aldeak ados jarri dira

Eusko Jaurlaritzaren Hipoteka Bitartekaritza Zerbitzuak 24 espediente ireki zituen 2014ko urtarrilaren 1etik urriaren 31ra bitartean. Aldi horretan 17 espediente ebatzi zituzten, eta horietatik 14 bi aldean arteko akordioa lortuta amaitu dira. Beste hiru espedientetan ez da akordiorik lortu eta gainerako zazpiak ebatzi gabe daude oraindik. Eusko Jaurlaritzak doan ematen du zerbitzu hori. Gainera, aldi horretan, zerbitzuak 150 lagunengain kontsultei erantzun zien.

Eneko Bidegain | MUko irakaslea

"Euskarazko hedabideen balio soziala da hizkuntzari egiten diotena baino handiagoa"

- Gertuko komunikabideei buruzko jardunaldia egingo da MUren Aretxabaletako campusean
- Euskal Herriko, Kataluniako eta Malagako hedabideen gaineko ikerketak aurkeztuko dira

ENEKO AZKARATE | ARETXABALETA

Komunikabideen balio sozialaz jardungo dute datorren eguaztenean MUko Ikus-entzunezkoen campusean, Aretxabaletan. Berria Taldeko eta Goiena kide den Tokikom elkarteko kideak elkartuko dira, besteak beste, MUko irakasleekin eta erakundeetakoekin batera. Horiez gain, era berean, Andaluzia eta Kataluniako tokiko hedabideen errealitateaz eta funtzioaz ere jardungo dute handik etorritako adituek. Eneko Bidegain MUko irakaslea da jardunaldion koordinatzailea.

Gertuko hedabideen balio sozialaz jardungo duzue eguaztenean MU. Zergatik?

Uste dugulako aldagai hori inportantea dela. Euskarazko hedabideez gain, beste kasu batzuk ere aztertuko ditugu. Eta, testuinguru horretan, hain justu ere, garatzen ari garen ikerketa bat aurkeztuko dugu. Euskarazko hedabideen balio soziala ikertzeko plan bat daukagu, eta hori aurkeztuko dugu. Marko teorikoa: zer den hedabide baten balio soziala, ze esparrutan neurtzen den, euskarazko gertuko hedabideen gainean zer ikertu den eta zer ez...

Iaz euskarazko hedabideen erradiografia egin zenuten.

Bai. Zenbat euskarazko hedabide dauden, ze produkzio duten, zenbat langile ari diren... hainbat datu erakutsi genituen. Orain, beste ate batzuk ireki ditugu, beste bidelagun batzuk ditugu, beste unibertsitate batzuetako ikerketa taldeak. Eta ikusi dugu beste ikerketa lerro batzuk izan daitezkeela, errentagarritasun sozialarena kasu. Ikusten da gaur egun neurtzen ari dena dela, bai gobernuz kanpoko erakundeetan eta baita hedabideetan ere, ze aberastasun sortzen duten erakunde hauek euren ingurunean. Ez da audientzia edo kalitatea bakarrik, baizik eta baita hedabide horiek gizarteari egiten dioten ekarpena ere. Ikerketaren hasiera fasean gaude eta 2015eko uztailerako lehen ondorioak aurkeztu nahiko genituzke.

Mondragon Unibertsitatean zeure lankide diren Aitor Zuberogoitiak eta Txema Egañak egingo dute ikerketa. Ze parametro hartuko dituzte kontuan errentagarritasun soziala neurtzeko?

Esaterako, zein diren hedabideen eragin taldeak. Goiena eta Berria taldeak aztertuko ditugu eta horien 25 bat eragin talde hartu eta horietan hedabideok ze eragin duten ikertuko da.



Eneko Bidegain, MUko Aretxabaletako campusean. | ENEKO AZKARATE

Zein da hedabide horien balio sozial inportanteena?

Ikerketa oraindik ez dugu hasi, hortaz, ezin erantzun alde zuretik. Edozelan ere, zenbat lagunengana heltzen den; euskarari ze ekarpen egiten dion; informazioaren zabalkundea; hiritartasunari egiten dion ekarpena;... Eta ekonomiari egiten diona, hau da: zenbat zerga ordaintzen duten, gizarte segurantzaren zenbat kotizatze duten, zeharkako zenbat enplegu sortzen duten... Halako kontuak aztertuko ditugu bi hedabideotan.

Hedabideok euskararen normalizazioari egiten dioten ekarpena ez ezik beste ekarpen batzuk ere egiten diotela gizarteari frogatu nahi duzue?

Bai. Eta erakutsi euskarazko hedabideak diruz laguntzea ez dela izan behar soilik hizkuntza politikaren kontua. Hezkuntzan, gizartearen ehuntzean, ekonomian... eragina duela frogatzen badugu, argi geratuko da, gure ustez, gizarteari ekarpen handia egiten dion sektore ekonomikoa dela euskarazko hedabideena.

Eztabaida eragin du Eusko Jaurlaritzaren azkeneko diru laguntzen ebazpenak. Ze iruditu zaizu eztabaida hori?

Oinarritzko arazoa, eta hedabideen artean urduritasuna sortzen due-

na da banatzeko dagoen diru poltsa ez dela nahikoa. Dagoen hedabide kopuruarendako txikia da, behinik behin. Diru gehiago behar dute hedabideek eta beste diru poltsa batzuetatik etorri behar da hori, gure ustez. Ez hizkuntza politikako poltsatik bakarrik. Diru laguntzak banatzeko irizpideen inguruan hedabideen artean eztabaidatan aritzea ez zait egokia iruditzen.

Hedabideen irismenak sortu du eztabaida. Beste batzuek esan dute kalitatea ere neurtu beharko litzatekeela...

Ez dut eztabaida horretan sartu nahi. Arriskutsua da eta tranpa handia da, euskarazko hedabideei mesede egiten ez dielako. Heda-

bide batzuei balio handiagoa ematea beste batzuei baino oso arriskutsua da. Ez dut gutxietsi nahi ikerketa bat edo bestea, ezta irizpide bat edo bestea.

Euskal hedabideez ez ezik, Andaluziako hedabide lokalen errentagarritasun sozialaz ere jardungo duzue jardunaldietan.

Andaluziako irrati lokalak aztertu dituzte Malagako Unibertsitateko irakasle batzuek eta egingo dako lana aurkeztuko dute jardunaldietan. Haien errentagarritasun soziala zein den eta ze hobekuntza egin beharko litzuketen aztertu dute. Izan ere, hedabideek duten errentagarritasun sozialaren arabera, erakundeek diruz saritzen dituz-

te hedabideak. Ez da erabiltzen irizpide moduan dirulaguntzak emateko, baizik eta sariak emateko. Era honetara administrazioak berma dezake, era batera, hedabideek funtzio sozial bat betetzen dutela.

Eta Kataluniako tokiko hedabideak zela saretzen ari diren ere aztertuko du Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Josep Angel Guimer irakasleak.

Bai. Katalanez jarduten diren hedabideak haien artean zela saretu diren eta ze elkarlan modu duten azalduko digu, alde onak eta ez onak aztertuz.

Zuk zeuk Pirinioetako tokiko komunikabideen azterketaren aurkezpenera egingo duzu. Ze hedabide aztertu duzu eta ze ikuspuntutatik?

Helburua izan da Pirinioetako euskarazko hedabideek, haien artean, plataforma digital bat sortzeko aukera aztertzea. Aztertu ditut *Ttiti-Ttapa*, Xorroxin, Xaloe, Irati, Irulegi, Xiberuko Hotsa, Kanaldude eta *Herria*-ren egoera, gogoia edo asmoak, plataforma digital komun bat sortzeko. Ondorioak aurkeztuko ditut eguazteneko jardunaldian.

Plataforma digital hori irtenbidea da aipatu dituzun hedabideendako?

Indar sortzaile izan daiteke, baina bakoitzaren kezak, berezitasunak, prestutasunak, ahalmenak... kontuan izan behar dira. Eremu geografiko berezi eta zabala da Pirinioetako hura. Eta behar dute elkar hurbildu, harremanak saretu, lurraldeak trinkotzeko. Kezka ekonomikoak dituzte, egoera txarrean daudelako eta dedikazioa eskatzen duelako plataforma digital berria sortzeko eta horrek, haien moduko hedabideetan zailtasun handiak sortzen dituelako. Lesakatik Maulera kilometro asko daude eta errealitateak ezberdinak dira. Esaterako, Debagoienean proiektu komunak bultzatzea errazagoa da, ez dauka hangoarekin zeri-kusirik. Beste hau konplikatuagoa da baina, era berean, funtsezkoa haien biziraupenerako. Internetek, gainera, aukera handiak sortzen ditu sartzeko.

Ze espero duzue eguaztenean egingo diren Gertuko Komunikabideen bigarren jardunaldietatik?

Iaz hasi ginen, eta nahiko gure erreferente bilakatzea hizkuntza gutxituko gertuko komunikabideen inguruko ikerketa lerroei dagokienez. Eta, horrekin batera, administrazio, unibertsitate eta sektorearen elkargune izatea, harremanak egonkortze eta hobetze aldera.

"Goiena eta Berria taldeen funtzio sozialaren gaineko ikerketa egingo da"

"Hedabideen artean banatzeko dagoen diru poltsa ez da nahikoa"

"Internetek aukera handiak ematen ditu hedabideak sartzeko"

"MUk erreferente izan nahi du gertuko hedabideen gaineko ikerketetan"

ZABALIK



IÑAKI LAKARRA (@ilakarra)
goiena.eus/komunitatea/

Olentzero birtuala badator

Ez da inor harrituko Eustatek bere azkeneko txostenean argitaratu duen datu honekin: Euskadin *on line* erara gero eta gehiago erosten dugu. Urteak daramagu esaten *on line* merkataritzak, orokorrean, handitzeko nahiko marjina duela oraindik. Bai Euskadiko eta bai estatuko datuak atzerriko beste herrialdeetakoekin alderatzen baditugu, desoreka garbia dagoela nabarituko dugu; saltzen dugunaren bolumena erosten dugunarena baino handiagoa da. Egoera hori hobetzeko asmoz, Eusko Jaurlaritzak orain dela urte pare bat SPRI +Digital@ programa abian jarri zuen (merkataritza elektroniko

koko negozio berriak martxan jartzeko diru laguntzak eskaintzen dituzte). Dirudienez, datorren urtean ere diru laguntzekin jarraitzeko asmoa azaldu dute. *On line* saltzeko orduan datek garrantzi handia dute. Horrela, udako oporretan, Aste Santuan eta asteburu luzeetan, esaterako, urte osoan saltzen diren bidaien erdiak saltzen dira. Eta opari askoz gehiago saltzen dira, Gabonetan, amaren-aitaren egunean, San Valentin egunean eta antzeko beste egun batzuetan.

Bi motatako erosleak ditugu: lehenengoak behar edo nahi duten zerbaiten bila dabiltzanak dira, baina ez daukatenak garbi zer den. Bezero mota horri merkataritza elektronikoaren aukera berrienek laguntza eskaintzen diote (zer-nolako bidaia nahi duzu? merkea?, familian?, kirolari lotuta?... zer-nolako jostailuaren bila zabilta? Musikala? Pedagogikoa? 10-12 urtekoentzat?). Bigarren bezero mota, berriz, produktu/zerbitzu zehatzak bilatzen dituen da. Laster hasiko dira Olentzero, Errege Magoak eta Santa Klaus Gabonetako oparien bila. Hauek publizitatearen eta moden indarraren poderioz produktu zehatzak bilatzen dituzte. Eta argi ibiltzen ez badira, denda fisikoe-tara jostailu zehatz horien bila joaten direnean ez dituzte aurkituko, agortuta egongo baitira. Horra hor, *on line* era da erosteko aukera bakarra.

USTEAK USTE

JOKIN BEREZIARTUA | jbereziartua@goiena.com

Kontzientzia zuritzeko azoka?

A maitzear da Durangoko Azoka. Lerro hauek azoka martxan jarri aurretik idatzi ditut –epeak epe kazetaritzan–, eta, beraz, ezin bertan ikusi, ikasi edota erosi dudanaren gainean berba egin. Baina argi daukat arrakastaz egingo dela berba, bihar, biharamunek balorazioetan. Ez naiz ni izango arrakasta hori ezbaian jarriko duena, kopuruak kopuru direlako, eta argi dudalako Durangoko Azoka beharrezkoa dela gure kulturarako. Baina arrisku handi bat ere ikusten diot, aldi berean: urtean behin Durangora joan, azokan zerbait erosi eta Ahotsenean edo Plateruenan zuzenekoren bat ikusi ostean euskaldunok urteko kontzientzia zuritzeko erabiltea. Euskal kulturak ere, 365 egun!

KALE INKESTA

Zer iritzi duzu futbolean izan diren gertakariez?



RAMON ERAÑA
ARRASATE

"Ba, oraindik indarkeria handia dagoela iruditzen zait. Ordua da horrelako gauzak kiroleetatik kentzeko".



LIBE GALDOS
ARRASATE

"Dudarik gabe, indarkeria handia dagoela iruditzen zait, baita hemen ere. Baina ez dakit zein den konponbidea".



JUAN LUIS SASIAIN
ARRASATE

"Indarkeria handia dago. Nork bere aldera egiten duenez... ba, oso zail ikusten dut hori konpontzea".



KONTXI IBARGUREN
ONATI

"Penagarriak iruditzen zaizkit horrelako albisteak. Kiroleetako biolentziarekin asko haserretzen naiz".

HANDIK ETA HEMENDIK

Batua: jarrera bat

Alberto Barandiaran
http://goo.gl/NZdlhW

"Akiles orpotik soilik zen hilgarri. Akiles hilda, orpazurdak minik ez..." idatzi zuen asteazkenean Anjel Lertxundik, eguneroko *Hitz beste* sailean. Ondo ulertu banion, bere alea utzi nahi izan zuen Juan Luis Zabalak *31 eskutik* blogean euskara batuari buruz jarritako eztabaida zaharbertituan, gazteen jarrera dela eta. Ondo ulertu banion, Lertxundik esan nahi zuen euskararik gabe, akabo mina, akabo arazoa. Hori dela ezbaian dagoena, ez hainbeste orpazurda edo krokodilo edo Zipre edo Danimarka idatzi behar dugun beti Akilesen taloia eta kokodrilo eta Txipre eta Dinamarka esan baldin badugu ere; arazoa ez dela, ez hainbeste, erabakitzea ondarrutarrak euskara batuan hizketan entzutea munduko gauzarik tristeena den edo ez, edo maskaradak batuaz kantatzea aldrebeskeria lotsagarri eta gatzipekoa izango ote zen, halako atentatu barkaezina herri kultur ondasunaren aurka, ezpada arazoa dela ondarrutarrekin

erdaraz egin behar izaten dutenena. [...] Ez, eztabaida ez da batua. Herri euskaldun petoetako gazte jende molde baten artean zabalduxe omen dagoen estandarrarekiko destaina hau ez da, ezin da izan, 70eko hamarkadako hura, erreakzionarioen eta iraultzaileen artean piztu eta urte luzez iraun eta arrakala sakonak ireki zituen: alde batetik, mintzaira tradizionala, linguistikoki kontserbadorea, geografikoki zatikatua eta ahozko moldeen menekoa nahi zutenak; bestetik, hizkuntza etorkizunerako malgua, idazkerarako baliagarria, eta hiztun komunitatearendako integratzailea amesten zutenak. Ez, ezin da bera izan. Oraingoa besterik da, intsumisio kultural antzeko zerbait. [...] Batua, esaterako. Kultur arloko eragileak aritu ziren, buru belarri, 60ko eta 70eko urteetan, euskararen iraupenerako ezinbestekotzat jotzen zuten estandarraren atzean. Zerrendari begirada bat bota eta Txillardegia, Aresti, Davant, Mitxelena, Satrustegi, Lafitte... ateratzen dira. Eta, bitxia bada ere, euskararen iraupenerako ezinbestekotzat jotzen zen proiektuaren kontra

hain zuzen ere politikaren esparruetakoak aritu ziren sutsuen. Jakina, kulturari dagozkion planteamenduak ez baitira hain zirt edo zart egitekoak, zalantza gehiago sortzen dituzte. Interpretazioak berezkoak dituzte, bide desberdinak korritzen dituzte, bide kontrajarriak batzuetan ere bai, eta ez dira, beraz, politikariek hainbeste maite dituzten titular handien zaleak, «baina» eta «ordea» ugari baitituzte. [...] Gamere-Zihigako gazteen mihia beste hizkuntza batek dantzatzen zuen Bergarako, Hondarribiko, Lekunberriko, Iruñeko jendearekin hitz egiten hasten zirenean, apirilaren hasieran, Larraineko Etchemaite ostatuaren atean. Zuberera, baina batutik gertuagoko zuberera. Ahalegina zegoen, nola esan, haien eta gure aldetik. Komunikatzen ginen. Tristea? Ez nuke esango. Uste dut horixe dela batua: ez orpazurda, ez Zipre, ez kokrodilo; zuberotarrek eta Bergarakoek elkarren berri euskaraz izateko aukera ematen duen kodea. Jarrera bat, horrela esatea zilegi bada. Uste dut horixe zela estandarra abian jarri zutenen asmoa.



KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenua), Mireia Larranaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna Xabier Urtelai
Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larranaga, Amaia Mundiñano, Zortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

PUBLIZITATEA Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09
publi@goiena.com

HARPIDETZA Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-88/2004
ISSN: 2174-369X
Tirada: 4.050 ale
Diffusioa: 3.893 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioiko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

Goiena Klubeko abenduko zozketak!

Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!



Arrasateko hipermerkatua



PS3

Sony Play Station 3 kontsola eta Invizimals the lost kingdom jokoak

Parte hartzeko sariaren izena:
PS3




www.harremandenda.org
Bidezko Merkataritzako produktuak

Otarra
Bidezko merkataritzako produktuez osaturiko otarra.
Parte hartzeko sariaren izena:
Otarra



ARRIKRUTZ
o ñ a t i k o k o b a k

Sarrerak
Arrikutz kobak bisitatzeko, 6 sarrera zozketatuko ditugu.
Parte hartzeko sariaren izena:
Arrikutz



argia

Jokoak
Kosmojet, 2 joko ditugu
Parte hartzeko sariaren izena:
Kosmojet



IRRIEN LAGUNAK

Irrien Lagunak aldizkaria
Irrien Lagunak aldizkariaren 15 ale.
Parte hartzeko sariaren izena:
IrrienLagunak



Doke antzerki taldeari esker
'Galderak' antzezlanerako sarreraren zozketa
Amaia antzokia, Arrasate.
Abenduaren 12an eta 13an, 20.00etan.
Parte hartzeko sariaren izena: Galderak

PARTE HARTZEKO:

SMS: KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira

Telefonoz: 943 25 05 05

E-postaz: kluba@goiena.com

WhatsApp: KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla.
Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotatik sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

HERRIAK

ARETXABALETA

Pentsu zakuak gora eta behera 47 urtean

- Felix Pagaldaik eta Dorleta Elkorobarrutiak erretiroa hartu dute
- Pagaldai Pentsuak dendak zabalik jarraituko du Miba kooperatibakoekin

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Felix Pagaldai eta Dorleta Elkorobarrutia erretiratu egin dira. Agur esan diote Pagaldai Pentsuak dendari. Beno, oraindik ez, oraindik laguntzen dihardute dendaren ugazaba berriei, baina joan den astelehenaz geroztik ez daude dendaren kargu. "Erretiratuta eta oso pozik. Miba kooperatibak hartu du; mutil jatorrak dira eta joango dira hemengo jendea eta ohiturak ezagutzen", dio bikoteak.

Elikagai denda hasieran

Aita zenarekin hasi zen lanean Felix Pagaldai, 18 urte zituenean. Eta ordutik geratu barik pentsu zakuak gora eta behera; 47 urte guztira. Elkorobarrutia, oster, ezkontutakoan hasi zen lanean harekin, dagoeneko 34 urte.

Lehenengo Durana kalean izan zuen denda Pagaldai aitak. Elikagaien denda zen; eta fruta, babarrun, arrautza, ogi eta gainerako jatekoarekin batera beste kontu batzuk ere bazituen,

etxerako apaingarriak, esaterako: "Orduan halako hainbat denda zeuden Durana kalean: Etxeandia, Mantsua...", dio Elkorobarrutiak. Denda hori alabak (Felixen arreba) hartu zuen gero, eta jatekoak kendu eta apaingarriekin egin aurrera. Pentsua saltzera, oster, Basabe bidera joan ziren aita-semeak: "Pentsua eta horrekin batera fruta ere bai, jendeak eskatu egiten zuen-eta". Biltegi hura bota egin zuten gero, eta Geltoki plazara aldatu behar izan zuten orduan. 22 urte egin dituzte hor.

Pentsu denda bakarrik ez da Pagaldai Pentsuak, lanabesak eta beste hainbat tresna ere badituzte: otzarak, arranak, kaiolak, lorezaintzan eta ortuan jarduteko lanabesak, eskorgak... Baita haziak eta landareak ere, tomate eta marrubi landareak, esaterako, udaberri sasoian.

Eta horiekin batera jatekoak dituzte: patatak, kipulak, babarrunak, gazta, arrautzak, base-rriko ogia, intxaurrek... "Berta-



Dorleta Elkorobarrutia eta Felix Pagaldai denda aurrean. | IMANOL BELOKI

ko baserritako jeneroa izan dugu beti, bertakoa eta sasoikoa, jenero ona, horixe eskatzen zigutela-ko bezeroek ere", dio Elkorobarrutiak, eta gaineratu: "Orain, negu partean, esaterako, piperrak erostera datoz asko, txorizoak egiteko piperrak. Hemen inguruan beste inon ez dituzte-eta".

Ugazaba berria: Miba

Oso bezero fidelak izan dituztela diote pozik. Aretxabaleako eta inguruko baserritar ugariri saldu diote pentsua, eta beste herri batzuetatik ere bertara etortzeko joera dute: Eskoriatzatik, Arrasatetik, Oñatitik... Gehienetan baserritarak eurak etortzen dira jenero bila dendaraino, zapatu goiz askotan auto ilarak izan ohi dira erositakoa jasotzeko. Baina jenero hori baserriraino eramaten duen banatzailea ere badute.

Erreleboa hartu die Markinako Miba kooperatibako kideek. "Pentsu lantegia dute han, eta gero bi denda; bata Markinan bertan, eta bestea, Igorren". Eta orain Gipuzkoan ere bai. Ugazaba berrien asmoa da bezeroaren eskura jartzea dendako jenero gehiena, hala, norberak begiratu eta hartzeko behar duen hori.

Agurra esker onez

47 urtean lanean jardun duen bikoteak esker oneko berbak ditu: "Oso bezero onak izan ditugu eta benetan oroitzen politekin erretiratu gara", jakinarazi du Elkorobarrutiak, eta Pagaldaik gaineratu: "Askok esan digute: ze pena erretiratu izana, baina...". Izan ere, urte askotako harremanak saltzaile-bezero arteko konfiantza sortu du, harreman estua sarritan. Pagaldaik oraindik laguntzen jardungo du hilabete pare batean, ugazaba berriek eskua hartu arte.

Bezera horiek guztiak esker oneko berbeekin agurtu gura dituzte: "Eskerrak eman guztiei, besterik ezin esan. Eta osasuna guztiendako", dio Pagaldaik. Elkorobarrutiak gaineratu du hunkituta: "Eta orain, Gabonen atarian gaudenez, giro onean pasa ditzatela jaiak eta urte berri on guztiendako".

ESANAK

"Askok esan digute: ze pena erretiratu izana..."

FELIX PAGALDAI

"Hemengo baserritako jenero ona izan dugu beti"

DORLETA ELKOROBARRUTIA

argia

Harpidetza bakoitzarekin, are independenteago

Jarri ekonomikoki zure tanta etorkizuna margotzen jarrai dezagun

ARGIA ASTERO jasotzeko aukera: **hilean 12 € baino ez!***

ARGIA hilean behin jasotzeko aukera: **hilean 4 € baino gutxiago!****

(*) 145 euro urtean. Igorpenetan ordainketa urtean behin edo bi zatitan egiteko aukera (46 zenbaki + 11 Larrun + Urtekarria). (**) 41 euro urtean (11 zenbaki + 11 Larrun + Urtekarria).

Egizu, egiozu harpidetza!

Eskaerak:

☎ 943 371 545 | harpidetza@argia.eus | www.argia.eus/harpidetza

Durangoko Azokan ere topatuko gaituzu (Goienkale 71)

BERGARA

Natur elementuak erabilia, Olentzero egin dute gaztelekukoek

Garaionekoen laguntzarekin sortu dute artelana bergarako gaztetxoek

IRATI GOITIA | BERGARA

Gazteen ideiak edo mezuak plazaratzeko helburuarekin, naturarte bat egin zuten Bergarako gaztelekuan zapatu arratsaldean. Horretarako Garaion elkarteak kideen laguntza izan zuten gaztetxoek.

Hasieran, zer transmititu nahi zuten erabaki behar izan zuten gazteek. Ideia asko bota zituzten: Candy-ren itxiera, kirola egiteko aukerak, mugikorraren erabilera... Azkenean, Olentzero eta bi izar egitea erabaki zuten, Gabonak bertan direlako, apaingarrietan ez dagoela zertan dirurik gastatu erakusteko. Hala, hosto, soka, egur eta gainerako natur elementuak hartu eta lanean jarri ziren. Gogor lanean ibili ondoren, eginiko artelana gaztelekuaren kanpoaldean jarri zuten.



Gazteak natur elementuez artelana egiten, Bergarako gaztelekuan, zapatuan. | IMANOL SORIANO



JON ARMENDARIZ
PARTE-HARTZAILEA

"Olentzero egitea erabaki dugu. Ni gorputza egiten aritu naiz. Hostoak, egurra eta soka erabili ditugu. Orain pipa egiten hari naiz egurrarekin. Gustatu zait natur elementuak erabiltzea".



ANGEL HERNANDEZ
PARTE-HARTZAILEA

"Hasieran kosta zaigu zer egin erabakitzea, hainbat ideia irten dira. Azkenean, Olentzero egitea erabaki dugu, Gabonak oraintxe datoz-eta. Hemen, gaztelekuaren kanpoaldean jarriko dugu gero".

ELGETA

XVI. mendeko altxorra ezagutzen



Elgetako parrokan, zapatuan, egin zuten bisita gidatua. | IMANOL SORIANO

I.G. | ELGETA

Ezkutuko altxorrak programaren barruan, Elgetako parrokia ezagutzeko aukera izan zen zapatuan.

Ignaziotar lurraldearen proiektua hiru tenplutan oinarritzen da -Arantzazu, Loiola eta Antio-. Urtean behin, baina, ezkutuan dauden XVI. mendeko beste altxor batzuk ezagutzeko bisita gidatuak egiten dituzte.

Santiagoren erretaula

Garai horretakoa da, hain zuzen, Elgetako parrokan dagoen Santiago apostoluaren erretaula, eta horixe erakustea izan zen bisitaren ardatza. Pieza berezia dela esan zuen gidariak eta Gipuzkoa mailan influentzia italiar handiena duen erretaula dela azaldu.

Erretaularen gaineko xehetasunak ezagutzeaz gain, parrokia guztia bisitatzeko aukera izan zuten animatutakoek. Izan ere, gauza interesgarri asko dituela zihoen gidariak: aldare nagusia, sakristiako obrak, koruan dagoen organoa... Organista bera ere bertan zegoen eta pare bat pieza jo zituen, bisitarien gozamenerako.



ELGETA

Bingoan aritu dira erretiratuak

Ekintza Kulturalen egitarauaren baitan, eta Xalbadorpe erretiratuen elkarteak antolatuta, bingoan jokatu zuten erretiratuek egubakoitz arratsaldean. Hala, batutakoak adi izan ziren zenbakien kantura, lerroa edo bingo oihukatzen. Asteon ere izango dituzte ekintzak. Hilaren 11n Bergarako Alai taldearen emanaldia Espaloian, 18:00etan. Eta hilaren 12an Gabonetako luntxa Ozkarbin, 18:30ean.

OMEGA
urban
Service

24h



945 290 308

www.igogailuak.com

debagoiena@omegaurban.com

Birgaitzeak
Modernizazioak
Ordezkapenak
Zero Kotarako Jaitsierak
Igogailuen
Mantentze-lanak

ARRASATE

Eskuak luzatuta, zerbait harrapatu guran

- San Nikolas eguna ospatu dute Arrasaten eta horrekin eman diete hasiera neguko ospakizunei
- Boloak egin dituzte Musakola, San Andres eta Uribarri auzoetan, eta baita Uarkape pilotalekuan ere



Uarkapeko pilotalekuan zapatuan egin zen boloan, umeak gozokiak batzeko gertu. | IMANOL SORIANO

I.G. | ARRASATE

Gozokiak, txikleak, piruletak, paketeak... Eskuak luzatu eta zerbait harrapatu nahian ibili ziren etxeko txikienak zapatuan Arrasaten. Izan ere, San Nikolas eguna ospatzeko boloak egin zituzten Musakola, San Andres eta Uribarri auzoetan, eta baita Uarkapeko pilotalekuan ere. Hainbat komertzioek ere egin zituzten euren boloak.

500 euro gozokitan

Auzoetan burututako boloak auzo-alkatetzek antolatutakoak izan ziren. Uarkapen egin zena, berriz, Udalak prestatutakoa. Azken horretan, izan ziren berrikuntzak aurtengoan. Horietako bat zinegotziek jaurtitzen zituzten gozokietako batzuk bidezko merkataritzakoak zirela. Beste nobedadea izan zen umeak lau taldetan banatu zituztela bolorako -3 urtetik beherakoak, hirutik sei urtera bitartekoak, sei urtetik bederatzirakoak eta bederatzik urtetik gorakoak-. Kaotiko xamarra izaten zela-eta, Udalak hartutako erabakia izanda haurrak lau taldetan sailkatzearena eta adierazi dute hobetze aldera egin dutela saiakera. Bada, amaieran, hainbat gurasok esan zuten aurtengo antolakuntza gustukoago izan dutela.

Uarkapen denera 500 euro banatu zituzten gozokitan. Horrenbestez, pozik ziren umeak amaieran, eta etxetik eramandako poltsa hutsak ondo beteta. Denendako izan zen pillia.

Zergatik da .eus beste edozein domeinu baino hobea zuretzat?

Ikuspuntu asko biltzen dituen puntua: zurea, auzokidearena, lagunarena, lagunaren lagunarena.

Zure ideia, produktu, zaletasun eta gustuetarako erreferentzia puntua.

Nor garen eta nondik gatozen jakiteko abiapuntua.

Guk bezala hitz egiten dutenekin kontaktu puntua.

Interneten bereizten gaituen puntua.

Gure enpresa, langile, ikasle eta irakasleentzat euskarri den puntua.

Gure komunitatearentzat, kulturarentzat eta zuretzat puntu eta jarraia izango dena.

Anima zaitez eta sortu zure .eus domeinu-izena. Informazio gehiago

www.domeinuak.eus webgunean

Hemen duzu zure puntu berria



gure domeinua

LEINTZ GATZAGA

Xamanismoaren sekretuak ezagutu dituzte Soran Etxean

Xamanismo ikastaroaren lau mailatako lehena eskaini dute asteburuan

ANDER LARRAÑAGA | LEINTZ GATZAGA
Asteburu honetan gonbidatu berezi bat izan dute Gatzagako Soran Etxean: Victoria Mendoza xaman mexikarrak xamanismoari buruzko ikastaroa eman du. Lau maila daude eta asteburu honetan lehenengoa egin dute, bakoitzak bere burua sendatzen ikasteko.

Euskal Herriko txoko desberdinetatik eta Bartzelonatik gerturatu dira 15 lagun. Talde dinamikan eta ezagutza kulturalan oinarritutako ikastaroa da; izan ere, lehendabizi bakoitzak bere barrurako egin behar du lana eta hori ezinbestekoa dela azaldu du Mendoza xamanak.

Gai sakonak jorratzen

Orotariko gaiak landu dituzte: energien eta horiekin egindako sendapenen garrantzia, animalia babesleak, ametsen interpretazioak, edota heriotza, besteak beste.

Gainontzeko mailak, aurrerago egingo dituzte, Soranen ere.



VICTORIA MENDOZA
HIZLARI XAMANA

"Xamanismoa filosofia bat da, ez erlijio bat. Dinamika desberdinak egin eta egingo ditugu sendapen autoktonoari buruzkoak. Gure eta zuen aitona-amonek erabili ohi zituzten teknikak dira horiek".



GALDER GARMENDIA
PARTE-HARTZAILEA

"Energiak landu ditugu. Animalia laguntzaileen gaia ere jorratu dugu. Bestalde, neu euskal sinismen zaharrak aztertzen nabil eta uste baino berdintasun gehiago dugu xamanismoarekin".



AMAIA ARKETA
PARTE-HARTZAILEA

"Izugarria izan da. Nik ezagutzen nuen xamanismoaren mundua lehenagotik baina gaur egin duguna ezin da azaldu. Bakoitzak bere osasunarendako egin behar duen zerbait da egin duguna".



MONTSE VALERIO
ANTOLATZAILEA

"Betidanik interesatu zaizkit halako gaiak eta Victoriari ikastaro bat hemen, Soranen, egitea proposatu nion. Berak dioenez, etxe hau eszenatoki perfektua da energiak lantzeko".



Xamanismo ikastaroan, kide bati terapia egiten. | ANDER LARRAÑAGA

Zorionak, Agurtzane!

Agurtzane Telleria izan da bigarren saioko lehiaketaren irabazlea.



Agurtzane Telleria irabazlea eta Itxaro Artola AEDko ordezkaria saria ematen.



Zuk ere
100 €*
irabazi
nahi?



badagogauzazailagorik

PARTE HARTU
LEHIAKETAN!

* Saria Ibai-Arteko dendetan erabiltzeko 100 euroko bonua izango da.



Badago hizkuntza-ohiturak aldatzea
baino gauza zailagorik.
Arrasaten, euskaraz.



Arrasateko
euskalgintza

BERGARA



IMANOL SORIANO



I.S.

DJ Humberto Zabalotegi alaitzen

Bergarako Zabalotegi aretoa hainbatetan dantzaleku bihurtu eta gero, pasa den zapatuan agurtu zituzten DJ jaialdiak. Humberto DJaren erritmo dantzagarriek gaztetxo bergararrak alaitu zituzten. Dantza egin, elkarrekin ederto pasa eta DJari euren gustuko kantuak eskatzeko aukera izan zuten.

Maitane Montiel | Neguko aterpetxeko hezitzailea

"Aterpea emateaz gain, euren egoera hobetzen laguntzen diegu"

- ▶ Apirilaren 10era arte dago zabalik neguko aterpetxea, gauez eta egunero
- ▶ Etxerik ez dutenendako da; eskaera, Gizarte Zerbitzuetan edo Udaltzaingoan

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Gizarte ekimenean esperientzia handia dauka Maitane Montielek (Arrasate, 1987), adimen urritasuneko pertsonekin, haur eta gazteekin eta ijitoekin modu boluntarioan lan egindakoa baita: "Beti-danik argi izan dut besteak laguntzen egin behar nuela lana, horrek betetzen nauela". Neguko aterpetxeaz arduratzen da egun; Txeta kaleko Gizarte Zerbitzuen bulego berrietan harrapatu dugu.

Zer da neguko aterpetxea?

Neguko aterpetxea etxerik gabeko pertsonen negua pasatzera bideratutako zerbitzua da. Baina aterpea eskaintzeaz gain, beste baliabideetara sarrera erraztu, eta prest agertzen direnei bizi duten egoera pertsonala hobetzera bideratzeko beharrezkoa den interbentzioa ere eskaintzen dugu. 15 egun egoteko baimena eman ohi da, eta baimen txartelak aste-ka funtzionatzen du. Hau da, nik zazpi egunetarako ematen diet sarrera eta aste hori pasatzen denean, berriz ere elkartzen naiz haiekin egonaldia luzatu edo ez baloratzeko. Erabiltzaileek eskaera berriz egiteko beste 15 egun itxaron beharko dute.

Nori dago zuzenduta bereziki?

Zerbitzuaren onuradun etxerik ez duen edonor izan daiteke. Arrasaten erroldatuta dauden pertsonen lehentasuna izango badute ere, hemen erroldatu gabeko pertsonak ere onuradun izan daitezke. Aterpetxea 20:00etan zabaltzen da eta 09:00etan itxi. Astelehenetik domekara dago zabalik.

Nolakoa da aterpetxea? Zenbat lagunendako lekua dago?

Aterpetxeak 16 pertsonendako lekua dauka, bi logeletan bana-



Maitane Montiel Gizarte Zerbitzuen egoitza berriaren atarian. | JOKIN BEREZIARTUA

"Lehentasuna dute Arrasaten erroldatuta dauden pertsonen"

tuta. Komuna eta sukaldea ditu erabilgarri, eta baita garbigailua zein lehorgailua ere; erabiltzaileek euren arropak garbitzeko aukera dute. Aterpetxea guztien artean garbitzen dute aurrez adostutako egun baten, izan ere, garbi mantentzearen ideia azpimarratzen diet. Garbiketarako eta higiene pertsonalerako behar dituzten produktuak eta tresnak ematen zaizkie. Gainera, goizean gosari zerbitzua ere badago.

Zein da aterpetxeko protokoloa?

Erabiltzaile bakoitzarekin elkarriketa bat egiten da, aterpetxearen arauen inguruan informazioa eman, bere egoera pertsonalaren inguruan hainbat datu jaso eta sarrera baimena emate-

"Erabiltzaileekin elkarriketa bat egiten da baimena eman aurretik"

ko. Hau guztia, Udaleko Gizarte Zerbitzuetan egiten da harrera ordutegian eta nik egiten diet elkarriketa hori. Aldiz, harrera ordutegitik kanpo, udaltzaingoan egiten dute eskaria.

Lo egiteko tokirik balego, baimena ematen zaie eta hurrengo egunean nirekin egoteko esaten zaie. Esandako moduan, Gizarte Zerbitzuetara edo Udaltzaingora jo behar dute aterpetxea erabili gura dutenek.

Caritasek laguntzen du aurten?

Bai, aurten jantoki sozialarekin, arropa lortzen eta errezetekin laguntzen dute. Kudeatzen dituzten beste baliabideak erabiltzeko ere aukera badago, baina kasu bakoitza aurrez aztertu behar da.

NIRE USTEZ

JOSU ZUGASTI



Veleiako iPad 4-a

Veleiako aztarnategiak, bat-batean eta nonahi agertu ziren idazkunei esker, Epigrafian, Euskal Filologian, Filologia Klasikoan nahiz kristautasunaren eta konspirazioen historian iraultza eragin ostean, orain teknologiaren historia astindu du.

Izan ere, Eliseo Gilen komando batek, EHUren mertzenarioen zaintza gaindituta, berriz ekin die Veleiako indusketei eta (ezusteko handia!) beste ostraka bat aurkitu dute: *Veleiae iPad IV oso polita, neure ata dendaraban erosi tu*. Joño! Berriz historia iraulita! Jakina, rep-

tilianoek, Bildeberg taldeak eta Burns jaunak eginahalak egingo dituzte aurkikutza gezurtatzeko eta orain arteko historia- ren kontatera bere horretan uzteko. Oh! asko dira interes ilunak! EHU-ko Teknologia irakasleak ere ez dira prest egongo orain arteko euren sasi-jakintza guztia pikutara bidaltzeko, Veleian agertu den ostraka txundigarria onartuz eta iPad 4a karistiarrek asmatu zutela aitortuz. Baietz Eli-seori eta bere "arkeologo" komandoari bota balizko iruzur baten errua! Ankerrak!

Gilek aspalditik ukatzen du eurek ezer faltsutu zutenik eta ezagun da iruzur salaketa bat daukanak beti esaten duela egia bere errugabetasuna aldarrikatzean.

Beraz, hamaika unibertsitatetako adituak dira azpikoan dihardutenak, euskaldunoi min emateko. Lagundu, Anbotoko Mari!

Omenaldia 100 urte bete dituen Felisa Gartzari

Meza, abesbatza eta txistulariak izan ziren, eta baita alkatea eta Ongizate Saileko zinegotzia ere

J.B. | ARRASATE

Aita Menni ospitalean hainbat urte daramatzen Felisa Gartzia 100 urte bete zituen abenduaren 4an, eta merezitako omenaldia jaso zuen. Soriako herri txiki baten jaioa, Gallartara (Bizkaia) etorri zen eta osasun mentaleko arazoak zituela-eta, Aita Mennin ingresatu zuten. Gaur egun hiru

biloba eta hiru birloba ditu. Meza bereziaren ostean, Gesalibarko abesbatzak eta Jose Ignacio Jauregi *Barberito* txistulariak hartu zuten parte omenaldian. Inazio Azkarragaurizar alkateak eta Ongizate Saileko zinegotzi Amaia Larrañaga bertan egon ziren. Diputaziotik ere heldu zitzaizkion loreak.



Felisa Gartzia senideekin batera, omenaldia jaso ondoren. | AITA MENNI

Amaitu da cavaren astea Kajoi tabernan, goi mailako dastatzearekin

Ospakizun eta festa gehienetan presente egon arren, cava nahi-ko edari ezezaguna da: "Jendeak ardo onen sekretuak ezagutze-ko antolatutako jardunaldiak", azaldu du Kajoi tabernako Antonio Murillok. Eguenean 463 urte dituen Codorniu upategiko cava gorenak izan ziren protagonista eta hilaren 2an, berriz Sumarroca upategikoak.



Cava dastatzea Kajoin. | IMANOL SORIANO

1974an jaioetako arrasatearrek festa ederra egin zuten

Azaroaren 29an egun osoko ospakizuna egin zuten 1974an jaioetakoek. Aurten 40 urte bete dituzte, eta lehen aldiz elkartu dira, 61 lagun. Herrian bertan txikiteoa egin zuten, eta gero Bergarako Tartufora joan ziren autobusez. Festa ederra egin zuten han: bazkaldu, dantzaz egin, *photocall*-a... eta iluntzean bueltatu ziren Arrasatera: batzuk etxera joan ziren, baina beste asko parrandan ibili ziren ordu txikiak arte.

SERGIO AZKARATE

Domeka-Azoka San Martin Agirre plazan egingo da, abenduaren 21ean

Elkartrukea, berriz erabiltzea eta artisautza sustatzea da helburua

IRATI GOITIA | BERGARA

Domeka-Azoka Oxirondo azokan egin beharrean, San Martin Agirre plazan egingo dute aurrerantzean eta abenduaren 21ean egingo da lehenengoa bertan.

Bi hilean behin

Elkartrukea, berrerabilera eta artisautza sustatzea da azoka honen helburua. Horrela, dagoneko erabiltzen ez diren eta etxean baztertuta dauden gauzak edo

eskuz eginiko artisauak trukatze edo saltzeko aukera eskaintzen du. Azoka Bergaratzeko egitasmotik sortu zen horrelako merkatu bat egiteko ideia eta ekainean egin zuten lehenengoa.

Orain arte Oxirondoko azokan egin dituzte, baina domekatan itxita egoten denez, San Martin Agirre plazan egingo dute aurrerantzean –euria eginez gero, arketan egingo litzateke–.

Printzipioz, bi hilean behin egingo da azoka. Zehazki, hileko hirugarren igandetan egingo da. Horrenbestez, abenduaren ostean, otsailaren 15ean egingo da hurrengoa. Hala ere, Udaletik jakinarazi dute azokako parte-hartzaileen dinamikak esango duela sarriago egin ala ez.

Izena eman behar da

Azokan postua jartzeko izena eman behar da azoka eguna baino aste bat lehenago. Hala, interesatuek www.bergara.net webgunean sartu eta *Domeka-Azoka* atalean egin dezakete hori, baita 943779159 telefonora deituta edo gazteria@bergara.net helbidera idatzita ere. Udaletik parte-hartze deialdia egin dute, eta hala, herritarrek postuak jartzera animatu nahi dituzte.



Ekainean egin zen Domeka-Azoka. | GOIENA

ARIANNE KAREAGA
ZINEGOTZIA

"Alde zaharrari bizia emango zaio eta alternatiba bat proposatu"

Ze helburu-ekin antolatzen duzue azoka?

Berrerabilera sustatzeko, herriko sormena bultzatzeko zein herritarrek eurek eginiko artisauak plazaratzeko aukera eskaintzea da nahia. Bestalde, baita kontsumo alternatibak sortzea ere. Horretaz gain, auto-enplegua bultzatzea edo langabezian daudenak animatzea ere bai.

Zergatik aldatu da lekuz?

Azoka domekan egitea proposatu zen Azoka Bergaratzeko proiektuan, baina Oxirondo bera itxita dagoenez, lekua ezagutzera ematen du, baina ez du berebiziko ekarpenik egiten bertako merkataritza biziberritzeko. Hala, lantaldean, parte-hartzaileekin, baloratu zen plazan egitea proba. Horrela, alde zaharrari ere bizitza emango zaio eta domeka goizean alternatiba bat sortu.



GOIENA

Euskara praktikatu, aukerak aprobetxatu

Berriketan eta halako egitasmoek zailtasunei aurre egiteko laguntza eskaintzen dute

KOMUNITATEA GOIENA
BERRIKETAN | BERGARA

Euskara praktikatu eta aukerak aprobetxatu! Euskara jakitetik erabiltzera pausua emateko asko izaten dira berba-lagunek izaten dituzten zailtasunak: konfiantza gutxi norbere euskara-maila txi-

kiagatik, dena zuzen egin nahia, entzuleek pazientzia gutxi, zuzenketa asko jasan behar izatea... Bergarako Berriketan, Aretxabaletako Barriketan, Eskoriatzako Berbalagun eta Arrasateko Zahar Berri eta honelako egitasmoak oso eraginkorrak izaten

dira zailtasun horiei aurre egin eta egunerokotasunean euskara gehiago egiteko.

Euskara praktikatu

Egitasmo hauen helburua, besteak beste, erabilera sustatu eta euskara erabiltzeko aukerak eskaintzea da. Euskara praktikatu erraztasuna eta segurtasuna lortzen baita, euskaraz egiteko ohitura poliki-poliki errotuz. Asko dira euskara praktikatu nahi dutenen motibazioak: ikasitakoa praktikan jartzea, galdutako ohitura berreskuratzea, euskarazko giroa eta jendea ezagutzea... Euskalduntze bidean pertsona horien inguru hurbilak sekulako eragina du erabileran. Izan ere, komunikazio informalean erabilia eta konfiantza giroan berba eginda, errazago lortuko baitute segurtasuna eta jartasuna. Eta berba-lagun programa hauen bitartez taldean astean ordubetez euskaraz hitz eginda bide hori erraztu nahi da. Animo ba! Euskaraz hitz egiteko aukera guztiak aprobetxatu behar dira, hizkuntza bat ikaste modurik onena berba egitea baita; akatsik gabe hitz egitea denbora eta praktika eskatzen duen prozesu naturala baita. Baina euskararen normalizazioan euskararen erabilera bultzatzea ez da bakarrik euskara praktikatzeko beharra duenaren ardura, gizarte osoaren erantzukizuna baitugu; beraz guztiok dagokigu altxor hau zaindu eta ondorengoei transmititzea.

Aste honetan jarriko dira salgai Gabonetako kontzertuko sarrerak

Abenduaren 20an, zapatua, egingo da urteroko Gabonetako kontzertua Udal pilotalekuan, 22:30ean. Sarrerak aste honetako egunean, abenduak 11, jarriko dira salgai zortzi eurotan. Bi aukera izango dira horiek erosteko: batetik, www.bergara.net helbidean egin ahal izango da –Internet bidez lerro bikoitietako sarrerak salduko dira–; eta bestetik, kultura etxera joanda ere eros daitezke –lerro bakoitietako sarrerak salduko dira bertan–.

Hasi dira Bergarako Udalaren 2015eko egutegia banatzen

Dagoneko hasi dira Bergarako Udalaren 2015eko egutegia banatzen. Egutegia etxe guztietara banatuko da. Udalak herritarrei eskatu die banatzaileei ataria zabaltzeko egutegia kanpoan utzi beharrik ez izateko. Bat baino gehiago nahi dituztenek, udaletxera joan beharko dute eskaera egitera eta bertan emango zaie, etxerako banaketa behin amaitu ostean. Hedabideen bitartez adieraziko da noiztik aurrera jaso ahal izango diren udaletxean.

Negozio bati nola ekin ikasteko aukera dago

I.G. | BERGARA

Bergarako Udalak ikastaroa antolatu du enpresa txiki bat –komertzio, taberna...– martxan jartzea nahi dutenentzat. Hain zuzen, *Nire negozioa zela hasi* izeneko ikastaroa da.

Horrela, negozio txiki bat planifikatzeko eta irekitzeko azalpenak jasoko dituzte parte-hartzaileek. Besteak beste, kudeaketa ekonomikorako oinarriak, eta kalitatea eta gertuko zerbitzua eskaintzea ahalbideratuko dien jarraibideak.

Ehun orduko ikastaroa da eta dohainekoa. Abenduaren 23an hasi eta otsailaren 11a bitartean emango da astelehenetik eguenera, 14:30etatik 19:30etara.

Hamaika pertsonentzako taldea izango da gehienez ere eta izen-ematea zabalik dago dagoneko. Interesatuta daudenek 943779165 telefonora deitu dezakete edo www.lanbide.net webgunean dagokiona bete. Abenduaren 17ra arteko epea dago horretarako.



Aurten Donostiara eginiko irteera. | JARDUN.

Koldo Lasa | Lasa jatetxeko sukaldari burua

"Urte askoan egindako lanaren errekonozimendua da sari hau"

- ▶ Repsol Gidako eguzki bat eman diote Koldo Lasaren jatetxeari
- ▶ Produktu freskoen eta gehigarririk gabekoen aldeko apustua egiten du

ANDER LARRAÑAGA | BERGARA

Bergarako Lasa jatetxeak Repsol Gidako eguzki bat lortu du. Repsol eguzkiak, sukaldari eta jate-txe onenei eskainitako prestigio-zko sariak dira: Repsolek babesten dituen sukaldaritzako bikaintasunaren sinbolo dira. Eguzki horiek, Michelin gidako Izarren parekide direla esan daiteke. Aurten 20 urte bete ditu jatetxeak; ibilbide luze hori ikusita oso pozik agertu da jatetxe-k jabea den Koldo Lasa.

Zer suposatzen du halako Eguzki horietako bat jasotzeak?

Repsol Gida duela gutxi atera da, baina, duda barik ikaragarria da halako zerbait jasotzea beti. Urte askoan egindako lanaren errekonozimendua da sari hau. Jendeak eskertu egiten du lan hori. Halere, halako sari bat jasotzeak ez du nire lana egiteko modua baldintzatuko; nik beti zorroztasun eta gogo berdinarekin lan egin izan dut.

Noiz konturatu zinen sukaldari izan nahi zenuela?

Sukaldari familia baten hirugarren generaziokoa naiz. Turismoa ikasi nuen eta udan beti laguntzen nion aitari. Ostalaritzaren adar bat aukeratu behar nuen momentuan bi aukera nituen: hotel baten zuzendaritzan edo sukaldean sartzea. Azkenean, bigarrena aukeratu nuen, txikitatik tripetan bizi izan dudana delako.

Nola definituko zenuke zure sukaldaritzaz-estiloa?

Zehaztasunean eta produktu freskoan oinarritutako sukaldaritzaz



Koldo Lasa, Lasa jatetxea den Oteiza jauregian. | IMANOL GALLEGU

"Nik beti zorroztasun eta gogo berarekin lan egin izan dut"

da. Bertako produktuekin egiten dut lan eta dena neuk egiten dut: ogia, gozogintza, kontserbak... **Sukaldaritzaz tradizionala edo modernoa nahiago?** Tradizionalagoa naizela uste dut; hala ere, ukitu modernodun platerak ere egiten ditut, beti ere,

"Halako sari bat jasotzeak ez du nire lana egiteko modua baldintzatuko"

inolako produktu kimikorik eta gehigarririk gabe. **Beste eguzkirik lortzeko asmorik?** Ez da nire asmoa. Lasako taldea egunero saiatzen da dena ematen: horregatik, ez dugu bestelako esfortzurik egingo beste eguzki bat lortzeko.

Motorizatu gabeko bideen gainean jardungo dute Kirol Kontseiluan

ENKO AZKARATE | BERGARA

Kirol Kontseiluak herritar guztiendako batzar irekia deitu du abenduaren 17rako, eguaztena, Irizar jauregian. 19:30ean izango da. Mugikortasun iraunkorra bultzatzeko azkenaldian burututako lanen berri emango dute, besteak beste.

Kontseiluaren seigarren batzarrak izango da, apirilean egin zutenaren ostekoa. Orduko hartan motorizatu bako bideen gainean aurkeztutako egitasmo zirribo-roak herritarren ekarpenak jaso ditu, eta hori aintzat hartuta hainbat ekimen burutu dituzte: "Azoka aurreko bidegorri lotura, bizikletentzako aparkalekuak jarri eta baita herriko motorizatu gabeko bideen definizioan aurreratu", adierazi du Iñaki Ugarteburuk, Kirol teknikariak.



Oxirondo atzeko bidegorri zatia. | I.G.

Orain arte egindakoa azaldu eta aurrerantzean egin daitezkeen lanak zehazteko eta lehentasunak finkatzeko egin diete dei gaiarekiko interesa izan dezaketen herritar guztiei abenduaren 17ko batzarrera joan daitezen.

Bergara Garbiak dio Udala "zelatari" lanetan dabilela

IMANOL GALLEGU | BERGARA

Bosgarren edukiontzia alde egiten duen plataformak salatu duenez, Udala "inposatutako" hondakin sistema erabiltzen ez duten herritarrek zelatatzen hasi da, datuak Mankomunitateari eman eta hark isunak jarri ahal izateko.

Bergara Garbiako kideek ez dute ulertzen Arrasaten nola ezarri den edukiontzi bidezko hondakin bilketa, eta gobernu taldeari gai horren inguruan "ezkutututa egotea" egotzi dio.

Informazio-eskutitza jaso dutenei elkartearekin bat egiteko eskatu diete, eta Arrasateko sistema Bergaran ezarri arte tinko jarraituko dute la azaldu dute.

NIRE USTEZ

AITZIBER PLAZAOLA



Eman eskua!

Hiru hilabete pasatu dira ia, Madrilen, lehoi eta putre artean 28 gazteon lana ustez epaitzen hasi zirela. Gure militantzia, gure herritik 400 kilometrorra epaitzea nahi, eta horretarako, inongo graziarik egiten ez duen zirkua martxan dago; tximino bipolarra, soldata irabazteko froga esanguratsuenekin txostenak osatu nahian dabilen malabarista, moztortuta desfilean agertu diren pailazo sarkastikoak... paper guztiak banatuta!

Ez da erraza, ez, holako zirkubaten parte hartzea. Duela lau urte bizitakoak gogoratzea, bizitza tximino, malabarista eta pailazoen eskuetan dantzan

ikustea... zenbat barre eta negar, malko eta besarkada. Eta azkenean, emankizunaren amaieran zozketatuko den sarirako txar-telez beteta dauzkat patrikak.

Patrikak txartelez, baina gorputza zirrarak daukat beteta. Jasotako babes, konpromiso eta elkartasunak sortutako zirrarak, maitasunez eta berotasunez.

Eskerririk asko zuen babesa erakutsi, eta libreago izateko bidean konprometitu zareten denoi. Zirkuan ikusle papera eman nahi izan dizuete herritarrei, baina abenduaren 13an protagonista izango gara berriz. Herritik 400 kilometrorra epaitu nahi izan arren, Bergarak sententzia emana daukalako, epaitegia inguratzen goaz! Eman eskua!

"Hilaren 13an herritarrak izango gara protagonista"

Plataforma bezala sustraitu da Irabazi

Bergararen egoera ekonomiko txarrak kezkatuta, laguntasun mezua zabaldu du Irabazik herrian

A.L. | BERGARA

Irabazi inizatibak plataforma moduan eraikiko dela erabaki du datozen udal eta foru hau-teskondeetan lan egiteko eta herrigintzan parte hartzeko proposamen eta errebindikazio ekintzekin.

Iniziatiba honek bere ibilbideari ekingo dio herritarrei hurbiltzeko; horien parte-hartzea sustatzeko eta bergarrendako mugimendu aktibo eta erabil-

garria bilakatzeko. Horregatik hainbat proposamen bildu ditu.

Bestetik, hilaren 17an biltezeko deialdia egun du Irabazik.

Kezkatuta daude

Herria pairatzen ari den desindustrializazioak eta langabeziak asko kezkatzen du inizatiba hau. Horrekin batera, solidariotasun mezua zabaldu die Candyko langileei euren babesa jasotzeko.

Krisi garaian, ekimen solidarioek betetzen duten eginkizunaz jardungo dute bihar kultur etxean

Gizartea pairatzen ari den krisia garai honetan, orotariko gaiak jorratuko dituen hitzaldia antolatu dute kultur etxean. Bihar izango da, 19:30ean. Batetik, Fiare bezalako banku etikoen jarduera eta eskaintzen duten laguntzaz arituko dira; bestetik, kooperatiba energetikoak zer diren eta zer egiten duten azalduko dute; jarraitzeko, lehen munduko janari faltaren ondorioak zeintzuk diren aztertuko dira eta hitzaldiarekin amaitzeko "oparitu zuhaitz bat" egitasmo solidarioa azalduko dute.

'Dos Madres Perfectas' pelikula botako dute etzi Zabalotegi aretoan, zine-klubaren baitan

Etzi, hilaren 10ean, eguaztenean, proiektatuko da Zabalotegi aretoan, zine-klubaren baitan, *Dos Madres Perfectas* pelikula, 20:00etan. Anne Fontaine zuzendari frantsesaren filmaren istorioak maitasuna, lizunkeria eta laguntasuna bateratzen ditu: Lil eta Roz txikitako lagunak harreman liluragarria kontatzen da istorioan eta, hain zuzen, bata bestearen semearekin maitemintzen dira umore ukitua duen drama honetan. Zinemarako sarre-ra hiru eurotakoa izango da.

Joseba Lasagabasterrek lortu du lehen postua eta erabakita daude sei finalistak

Zapatu gauean egin zuten bigarren saioa ikusteko bertsozalez bete zen Arrano elkarte

KOMUNITATEA GOIENA | OÑATIKO BERTSO ESKOLA | OÑATI

Joseba Lasagabasterrek esku-ratu du bigarren finalerako txartela Arrano elkartearen ospatutako saioan irabazita. 186 puntu eskuratu zituen. 178 Gorka Larreak, 175 Josu Igartuak, 166,5 Xabier Pascualek, 159 Urko Arregik eta 155,5 Gontzal Belategik. Lehen bi saioetako garaileak zuzenean eskuratu dute finalean abesteko aukera eta puntuazioan arabera sailkatu dira gainontzekoak. Jada zehaztuta daude finalistak: Maider Arregi, Joseba Lasagabaster, Andoni Goitia, Egoitz Aizpuru, Gorka Larrea eta Urko Egaña.

Oñatiko bertsozalekasunak ez zuen hutsik egin eta jendez goraino bete zen Arrano elkarte. Saioko berritasuna Urko Arregi eta Gontzal Belategiren parte-hartzea izan zen. Biek lehen aldiz abestu baitzuten Oñatiko Bertsolari Txapelketan. Aurreko saioko puntuazioak esku artean zituztela ekin zioten lanari seirek, finalerako txartela eskuratu nahian.

Freskotasunez jardun zuten

Presio estra horrekin baina gogoz. Bai zortziko handian bai zortziko txikian guztiei igarri zitzairen freskura eta ideia zaparrada. Epaileek ia puntuatzeko astirik izan gabe abestu zuten. Bata bestearen atzetik. Zortziko handian Urko Arregi eta Xabier Pascualen lana izan zen azpimarragarriena. Bi futbol jokalariren paperean jarri zituzten biak, Arregi euskal selekzioa eta Pascual kataluniarra. "Nahiz bi taldeek irabazteko gogor egin alegina/azken finean ez al daukagu biek helburu berdina", hasi zen Urko, baina Xabier ez zen atzean gelditu: "jakin ezazu ni beti hemen egon-



Bertsolariak, kantuan hasteko zain. | OÑATIKO BERTSO ESKOLA

go naizela presto/futbol zelaian jokatu eta kalean borrokatzeko".

Zortziko txikian Joseba Lasagabaster eta Gontzal Belategi ibili ziren finen. Hauxe izan zen gaia, 40 urte bete berri dauden koadrilako bi kide hurrengo bidaia prestatzen dabilta. Lasagabaster Ibizara joateko planak egin nahian dabil, eta erretiro espiritual batera joan nahi du Belategik. "Ze kristo ikusi duzu horren inguruan?/hara joango gara jubilatukuan", bota zion Josebak. Ideia berriak bota eta bota ibili zen Lasagabaster, publikoari ere arnasa hartzen utzi gabe.

"Denetik du ibilbideak"

Lau oinekin abestuta kartzelara pasa ziren bertsolariak. Puntuari erantzun eta bakarkako

bertso bat izan zen egin beharreko lana. Bakarkakora gaia, "bera ikusten duzun bakoitzean beldurrak hartzen zaitu". Gai zabala zen, eta abeslari bakoitzak bere postura propioa hartu zuen: ultrasurren beldur den Realeko jarraitzailea, bikoteak egurtu duena... Eta hor, Josu Igartuak burutu zuen bertsoaldi esanguratsuena: "Euskal Herriak pasa du zenbat mende, zenbat garai/zenbat jende aritua odoletan benetan blai./Borroka egin dugunok Estatua izan etsai./Torturatu gaituztenok begiak nola itxi lasai?/Berez garaiak aldatu baina horrek berdinez darrai./Patruila bat ikusita bihotza beldurretan ai/Oraindikan amesten dut etxe azpian daudela zai".

Herriko 38 komertzio Gabonetako erakusleho lehiaketan

Herriko 38 komertzioek eman dute izena Gabonetako VII. erakusleho lehiaketan parte hartzeko. Dagoeneko euren erakuslehoak apainduta behar dute egon, eta abenduaren 31ra arte, gutxienez, egongo dira horrela.

Sari banaketa hilaren 20an egingo da eta zazpi sari eman go dituzte, denak txantxietan. Herritarrek hilaren 18a aurretik entregatu behar dute euren gustukoenaren orria.

'Oñati eta bizikleta' mahai ingurua egingo dute eguaztenean

Etzi, mahai ingurua egingo dute *Oñati eta bizikleta* izenburupean. Herrian bizikletan ibiltzea zer den izango da berba gaia. Oñatin bizikleta erabili ohi duten hainbat herritarrek hartuko dute parte tertulia horretan eta azken urratsez, dauden arazoez edo ohitura horrek dakartzan onuraz berba egingo dute, besteak beste. Mahai ingurua Txirrrikak antolatu du eta kultura etxean izango da, 19:30ean.

Askotariko ekintzak Elkar Hezin eta Txantxiku ikastolan

Askotariko ekintzak antolatu dituzte datozen egunetarako Elkar Hezi ikastetxean eta Txantxiku ikastolan. Hala, lehenengoan Elkartasun Hamabostaldia ospatuko dute eta kontsumo arduratsua izango da gai nagusia. Horren inguruko dokumentalak eta hitzaldiak izango dituzte, besteak beste. Txantxiku ikastolan, bestalde, Udazken Kulturara ari dira ospatzen eta sormen ekintzak eta idazle zein kirolariekin tertuliak egingo dituzte, adibidez.

NIRE USTEZ

AITOR UGALDE



Ostikadak euskarari

Euskararen Eguna, Nafarroako Foru Erkidegoarena, Espainiako Konstituzioarena pasatu dira. Gaur ere bada zerbaiten eguna: ustelkeriaren aurkako nazioarteko eguna dela dio Wikipediak, informatikaren egun mundiala ere bai, armadarena Perun, independentziarena Tanzanian eta heroi nazionalena Antigua eta Barbudan. Espainiako Konstituzioarena ere izan zitekeen 1931an gaurko egunez onartu zen II errepublikarena Francok hankaz gora bota izan ez balu.

Euskal Herrian ez daukagu independentziarik urtean egun batez ospatzeko, ezta konstituziorik (izateko itxurarik ere ez) eta armadarik ere eta heroiak agian bai, baina ez ginateke berehala ados jarriko heroiaren egun nazionala izendatzeko. Euskarak daukagu, eta informatika. Informatikari esker gauza asko azkarrago egiten dira, baina dena azken unerako ezin da utzi eta zutabe hau argitaratu baino egun batzuk lehenago idazten ari naiz; hain zuzen, Euskararen Egunean.

Niretzat Euskararen Eguna da gaur, ospakizun eguna, baina baita zuretzat ere, irakurle, esan eta esan ari baikara urteko 365 egunak direla euskararenak. Futbolaren eguna ere izan zitekeen gaur, zaila baita futbolik gabeko egunik topatzea.

Euskararen Egunaren bueltan euskara irudi batekin lotzea proposatu dute eta futbola aipatuta, nik futbol baloia-ekin lotuko dut, ostikadak emanez bada ere modu jostagarrian batetik bestearengana pasatuz erabiltzen denaren irudia.

Nahiago dut hori ukitu gabe eramaten den altxor batena baino, nahiz eta altxor hori bihotzean eraman.

Bihar batuko dituzte, azkenengoz, jostailuak truke azokarako

Bihar, abenduak 9, da azken eguna jostailuen truke azokarako materiala batzeko. Txaloka ludotekan batuko dituzte 16:45etik 19:45era. Egoera onean eta izaera sexistatik ez dituztenak jasoko dituzte bakarrik. Lehenengo jostailu truke azoka zapatuan, hilaren 13an, egingo dute, plazan.

Telleria eta Martinezekin, antzerkia eta afari-tertulia

Patxo Telleria eta Kike Martinezen konpainiarekin bukatu ziren, egunean, Euskararen Egunaren harira antolatutako ekitaldi nagusiak. *Desentxufatuak*, *euskaldunberri zaharrak ez dira inoiz hiltzen* antzezlanak egin zuten lehenengo gaztetxean, eta afari-tertulia gero Makalena elkarte gastronomikoan.



TXANTXIKU IKASTOLA

ARETXABALETA

Bai Euskal Herriaren erakusketa Arkupen

'Elkar ezagutzetik, elkar aitortzera herriz herri zubiak eraikitzen' lelopean

IMANOL BELOKI | ARETXABALETA

Euskal Herriko eta euskal herri-tarren eskubide zibil eta politikoen alde lan egiten duen egitasmoak 18 panelez osatutako erakusketa osatu du Arkupen, *Elkar ezagutzetik, elkar aitortzera herriz herri zubiak eraikitzen* lelopean.

Euskal Herria aintzat hartu eta herritar guztientzat, nazio eskubide guztiak aldarrikatzeko asmoz egin da. Euskal Herriaren inguruko ezagutza eta naziotasunaren inguruko sentsibilizazio lana burutzeko.

Erakusketan, Euskal Herria nazio egiten dituen elementuak biltzeaz gain, Udalbiltzak oinarri gisa jarriko Eskubideen gutuna eta Euskal Herriko naziotasun aitormena bezalako egitasmoak jasotzen dira.

18 panelez osatutako erakusketako bi panel erakusketa iragartzeko erabiltzen dira. Panel bakoitzak 200 zentimetroko altuera eta 80 zentimetroko zabalera du. Batak baserriar emakumearen jantzia irudikatzen du eta besteak, berri, gizonezko baserriararen jantzia.

Bestalde, QR kodeak aurki-



Emakume bat Arkupe erakusketako panelak ikusten. | MIRARI ALTUBE

tuko ditu bisitariak, eta, mugikorraren bidez, informazioa ikusi, bertan sakondu eta entzuteko aukera izango du.

Euskarazko erakusketa abenduaren 3an, eguaztena, hasi zen eta abenduaren 30era arte egongo da zabalik. Goizetan 11:00etatik 13:00etara ikusi ahal izango da eta arratsaldeetan, berri,

18:00etatik 20:00etara. Zapatuetan, 11:00etatik 13:00etara egongo da zabalik eta domeketan eta jaiegunetan itxita egongo da.

'Gu, jatorri anitz, herri bat'

Erakusketaren baitan, Juanba Berasategik zuzendutako *Gu, jatorri anitz, herri bat* dokumentala proiektatzen da.

Hurrengo 'ostegun kontalaria' Belen Azkarate izango da

I.B | ARETXABALETA

Eguenean, hilaren 11n, Belen Azkarate antzuolarra izango da Atsedean tabernan, 21:30ean, ipuinak kontatzen. Azkarate umeeekin zein helduekin ibiltzen da ipuinak kontatzen, eta berak sortutako ipuinak eta beste autore batzuenak kontatuko ditu.

Aurreko astean Aitor Agiria-n eskoriatzarrak Artano tabernan eskaini zuen bakarriketak arrakasta izan zuen, bestalde. Aktore bizimoduarekin lotutako bakarriketa-ikuskizuna eskaini zuen, aktore lan egin nahi duenaren egunerokotasun gogorrean bertan egon zirenak murgilduta.

Kontakizunaren haria *casting* bat izan zen, eta horren baitan aktorearen gogoeta ugari. Erregistro ugari landu zituen Agirianok, ikusleengan barrea eta hunkidura eraginda.

Azken saioa Urbaltzen

Iraitz Agirre arrasatearrak eskainiko du *Ostegun kontalaria* lehia- ketako azken saioa. Hain zuzen, kontatzeko hainbat modu batuko dituen *patchwork*-a eskainiko du, Urbaltz tabernan.

ESKORIATZA

Axtroki Merkatarik Elkarteak azoka eta zozketa prestatu ditu Gabonetako kanpainaren barruan

I.B | ESKORIATZA

Axtroki Merkatarik Elkarteak Gabonetarako kanpainarako hainbat ekintza prestatu ditu. Batetik, hilaren 19rako, egubakoitza, azoka antolatu dute, dendetako produktuak plazaratzeko asmoz, herriko merkatarik txikien zabal-kundea areagotzeko eta herritarrengana hurbiltzeko. Azokan, herriko merkatarien elkarteko kideek hartuko dute parte, eta jatekoa eta musika egongo da. Bada, 18:30etik 20:30ak bitartean izango dute aukera herritarrek herriko plazara gerturatu eta zer dagoen ikusteko.

Axtrokien zozketa

Bestetik, *Hemen bizi, hemen erosi* lelopean, 1.500 axtroki zozketatuko dituzte herriko merkatariek. 500 axtrokiko bi sari eta 100 axtrokiko bost sari banatuko dituzte, eta sariren bat jasotzen duenak hilabeteko epea izango du Axtroki Merkatarik Elkarteko dendetan nahi duena erosteko.

Zozketa 2015eko urtarrilaren 5ean izango da, 13:00etan, herriko plazan. Hain zuzen ere, Eskoriatzako 26 dendatan axtrokiak gastatzeko aukera izango du saria jasotzen duenak.

Aldaypek ehizarako postuen urteko azterketa egingo du

Aldaype elkarteak abenduaren 12an egingo du ehiza postuen urteko azterketa, eta, era berean, ehizan egiteko postuen zozketa denboraldiari amaiera emango diote. Hala, lan egiten laguntzeko interesaturen bat bada, abenduaren 12an 14:45ean Aldaypeko lokalera gerturatze-ko eskaera egin dute Aldaypeko zuzendaritza batzorde- tik. Lagundu nahi duenak, ahal badu, aurrez abisatu beharko du 680 32 30 32 telefonora deituta, lantaldeak aurrez antolatzeko. Bada, alde- z aurretik eskerrak eman eta parte hartzera animatze-ko eskaera egin dute.

NIRE USTEZ

NURIA FDZ. DE ARROIABE



Euskeria galzorixen

Euskaldunoi izena eta izetia emuten duskun berbetiaren eguna pasau barri, euskeriak urteko 365 egunetan eta sendo biher gaittuela jakinaren gainien, izenburu lazgarrixa leidu dot Interneteko egunkari baten: "Hizkuntzak arriskutan: aragoieria, euskeria eta asturieria desagertu egin leikez mende-akabera". UNESCOk eginddako azterlan batek dixuenez, gaur egun munduen ebalten dien 6.000 inguru berbetatik 3.000 (erdixa!) desagertu egingo ei die mende-akabera. Peninsulan, aragoieria, asturieria eta euskeria aittaketan dittu, ibilt- ten ez dielako mehatxupei- en dauzenen artien.

Agozkotik eskribidutako- rako bidia egin ez dauien hiz- kuntzak galtzia ei da kezka- garrixena, kultura- aberastasu- n ikeragarrixaz gain, horreitan pillatu dien arbasuen ezague- rak be galdu egingo dielako. Bihotzak gainazpi egitten dust halakuak entzuten eta leiduten dittutenien. Trantze hortan gauz benetan? Galtzeraiñoko bidia egitten itziko ete dotsa- gu, ba? Edozela be, egunkari- xak esaten auen prozesua ez dala atzeraezina, biher dan moduen antolatutako eta eza- rrittako hizkuntza- politikakin badaukogula berbetok sendo- tu eta gazte- belaunaldixai oiñordetzan izterik. Horre- tarako, baiña, nehikua ete da hizkuntza- politikai bakarrik erreparetia? Ez, horixe!

Aspaldiko lagun Jon Sara- suak dixuenez, bihotzeko hizkuntza, amesetarako hiz- kuntza, moduen zein auke- raketan dogun da kontua. Eta, horretan, gutako bako- txak zeresan eta zeregin haundixa dauko!



MIRARI ALTUBE

Kurtzebarrikoen udazken jaia

Txalaparta eta trikiti doinuak, buruhandien dantza, *flashmob*-a eta euskal dantzak, lekaioak eta gehiago izan zituzten eguenean Kurtzebarri eskolako neska- mutikoe- k, irakasleek, gurasoe- k eta aita- amamek Iturrigorri pilotalekuan. Udazken Jaia ospatu zuten jai giroan eta ez zen jatekorik falta izan. Izan ere, taloak txistorrarekin, gaztainak eta buzkantzak gura beste izan zituzten.

Umeentzako jolasak egingo dituzte Tortolis ludotekan

Eskoriatzako Tortolis ludo- tekako umee- k Gabonetako apaingarriak egingo dituzte abenduaren 10ean, eguazte- nean, 17:30ean, ludotekan bertan. Apaingarriak asko- tariko materialekin egin ahal izango dituzte; izan ere, hau- rren sormena bultzatzeko asmoz prestatutako ekimen- da. Hala, apaingarriak erosi behar ez direla jabetuko dira, eta, horrela, jolastuz eta dibe- rituz gauza politak egin dai- tezkeela ikusiko dute. Egin- dako apaingarriak ludoteka apaintzeko erabiliko dira eta abenduaren 12an, egubakoi- tzean, jarriko dituzte apain- garriak, 18:00etan.

Merkataritzan euskararen erabilera areagotzeko laguntzak

Merkataritzan euskararen erabilera areagotzeko helbu- ruarekin, diru laguntzak ema- teko deialdia egin du Eskor- iatzako Udalak. Bi eremutan emango dira laguntza horiek: euskara hutsezko errotuluak jartzeko eta irudi korporatiboa euskaraz jartzeko. Eskaera aurkezteko azken eguna aben- duaren 15a izango da, eta diru laguntzak jasotzeko beharrez- ko dokumentazioa aurkeztu beharko da. Horretarako, Esko- riatzako Udalaren webgunean dauden eranskinak bete behar dira. Hain zuzen, eskaera- orria beteta eta baimen- orria sina- tuta eta oinarrietan eskatzen dena entregatuta.



Elgetako neska-mutiko taldea Gabonetako haur parkean. | LARRAITZ ZEBERIO



Olentzero, astoarekin, Salbador kalean behera. | LZ



Helduen pilota txapelketako sari banaketa, iaz. | LZ

ELGETA

Kontzertuak, jostailu truke azoka, haur parkea, aurten ere, Gabonak ospatzeko

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Udalak gertu dauka Gabonetako egitaraua, eta etxez etxe banatu du. Alai taldearen emanaldia eta Elgeta Kantuan izango dira asteen. Lehena egunean, hilak 11, 18:30ean, Espaloian, eta bigarrena domekan, hilak 14, 13:00etan. Gainera, zapatuan, hilak 13, Hondarribiko arraunlarien urteroko bisita izango da. Ongietorria, pilota partiduak, bazkaria eta karta jokoa egingo dituzte.

Urteroko ekintzak

Musika eskolako ikasleek hilaren 19an egingo dute, aurten, Gabonetako emanaldia. 19:00etan izango da, Espaloian. Bergarako Mizpirualde egoitzara egiten den bisita, berriz, hilaren 17an izango da. Olentzero abenduaren 23an jaitsiko da Intxortatik, eta helduen pilota txapelketako finalak Gabon Zahar egunean jokatu dira. Umeen txapelketako finalak, berriz, urtarrilaren 5ean.

Umeendako ekintzak

Jostailu truke azoka hilaren 21erako antolatu dute, eta abenduaren 26an dantzaldia egingo du Amaia Txintxurretak, Espaloian. Gabonetako parkea hilaren 29an eta 30ean izango da. Berrikuntzen artean, familiendako irteera iragarri du Udalak hilaren 28rako. Hirutontorretako lubakiak ikustera egingo dute irteera, 10:00etan abiatuta. Urtarrilaren 2an pelikula egongo da Espaloian.

LEINTZ GATZAGA

Gaztainuzketako txabolen kanpoko aldean muntatu dute tirolina

Zementua gogortu arte itxaron beharra dago, falta diren elementuak ere muntatzeko

UBANE MADERA | GATZAGA

Gaztainuzketako txabolek badute abentura parketxo, tirolina protagonista duena. Joan den astean muntatu zuten zabuaren estruktura nagusia. Eta datozen egunotan muntatuko dute gainontzekoa: kablea, umeak eseretzekoa... Izan ere, estruktura nagusia jartzeko erabilitako

zementua sikatzeko itxaron beharra dago falta dena bukatzeko. Eta hor zeresan handia du eguraldiak, sikua behar da-eta.

Zarauzko Arazi enpresak dihardu lanean, 9.000 euroko aurrekontuarekin.

Tirolinaren lanak bukatuta koan soberakinen bat geratzen bada, Leintz Gatzagako Udalaren

asmoa da beste zaburen bat jartzeari leku berean.

Led argiak

Bestalde, lan hori aprobetxatuz, inguruan beste batzuk ere egin dituzte: errepide nagusitik txaboletarainoko errepide tarteko faroletan led argiak jarri dituzte, argindar kontsumoa txikitzeko. Eta horrekin batera, farolei kable berria jarri diete, orain dela sei hilabete lapurtutakoa ordezkatzeko. Oraingoan, gainera, aluminiozkoa jarri dute, lapurrek tentazio gehiagorik izan ez dezaten. Bukatzeko, panel informatibo berria jarriko dute, zaharra hezetasunak janda zegoen-eta.



Sonia Etxenausia aramaioarra ipuin kontaketa saioan. | SAN MARTIN ESKOLA

ARAMAIO

Herriko kondairen eta ipuinen bueltan ospatu zuten Euskararen Eguna eskolan

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

San Martin eskolan hainbat ekintza antolatu zituzten abenduaren 3rako, goiz eta arratsalde, Euskararen Eguna ospatzeko: goizean, *Bazen behin Aramaixon* liburuaren kontakizunak izan ziren protagonista kultura etxean; arratsaldean, Sonia Etxenausia aramaioarra ipuin kontaketa saioa egin zuen; eta amaitzeko, guraso elkartearen eskutik txokolate-jana egin zuten.

Bazen behin Aramaixon liburuaren, helduek eta eskolako umeek hartu zuten parte: "Liburua Aramaioko pertsona nagusiei grabatutako kontakizunekin osatu da. Gure helburua izan

da herriko tradizioa, ohiturak eta euskalkia gure ikasleei transmititzea eta eurak izatea hurrengo transmisoreak", adierazi dute eskolako arduradunek.

Ipuin kontalaria, "zoragarri"

Sonia Etxenausia aramaioarra, berriz, hiru saio egin zituen ipuinak kontatzen, herriko euskalkian: Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailak lehenengo; horien ondoren, LHko 3., 2. eta 1. mailak; eta bukatzeko, Haur Hezkuntzako taldeak: "Sonia ederto ibili da, umeak erraz erakarri ditu eta denak adi-adi egon dira ipuinei, kantei, esamoldeei, esaera zaharrei... aditzen. Zoragarri!".

ANTZUOLA

ANTZUOLAKO UDALA

Patxi Kortabarriak 100 urte

Patxi Kortabarria antzuolarrak 100 urte bete zituen abenduaren 3an. Urtemuga borobila ospatzeko udal ordezkarien bisita jaso zuen Kortabarriak etxean. Besteak beste, Ima Beristain alkatearen agurra eta zorionak jaso zituen eta baita lore-sorta ere. Patxi Kortabarriak etxeokoen ere ospatu zuten urtebetetzea.

'Kantuz topa' kontzertura joateko autobusa Antzuolatik

Ainhua Artetak, Olatz Pratek, Estitxu Pinatzok, Eñaut Eloorrietak, John Berkouthek, Alex Sardui, Pettik, Mixel Ducauk eta Kirmen Uribek *Kantuz topa* kontzertua egingo dute Kursaal, hilaren 27an, 20:00etan. Antzuolatik autobusa doan ipiniko dute. Aurrez izena, 943-76 62 46 telefonon.

Olentzeroren etorreran eskaerak egiteko aukera herritarrek

Olentzeroren eta Mari Domingiren etorreran eskaerak egiteko aukera izango dute herritarrek: eskaera bat egin edo zorionak emateko aukera izango dute. Interesatuak, hilaren 9an egingo den batzarrean joan beharko dute euren izena emateko. Udaletxeko beheko solairuan egingo dute

Zeu irabazle

Goiena Klubeko txartela erakutsi eta aprobetxatu abantailak.



NAREN
Fisioterapia eta osteopatia zentroa
Belorrieta 5 behea | Aretxabaleta
%15eko zerbitzu guztietan (Errehabilitazioan izan ezik).



ESKO SPORT Kirol denda
Intxaurtxueta 5 | Eskoriatza
Arropa eta zapatiletan %10eko deskontua.



LASTAI
Koltxoiak eta umeentzako artikulua
Arkatza 1, 49 Pab | Gasteiz
%5eko deskontu gehigarria helduentzako atse-
den arloan.
%5eko deskontua haur kotxe eta automobileko
segurtasun — aukietan.
%5eko deskontua sehaska, haur-kotxe eta
automobileko segurtasun—aukietarako
denboraldiko ehun—galetan.
%10eko deskontua denboraldiko hau—arropan.
(Beharpenetan eta eskaintza berezietan
izan ezik).



LILURA EDERTZE INSTITUTUA
RPS: 299/13
Estetika zentroa
Bidekurutzeta 7 | Bergara
%15a laser depilazioan: hanka osoa + izterron-
doa (besapekoak opari).
%20eko deskontua elikagai intolerantzia pro-
ban.
%10eko deskontua mikropigmentazioan:
begiak, ezpainak edo bekainak.
%10eko deskontua fototerapia bidezko
aknearentzako tratamenduan.
Bazkidearentzat eta lagunarentzat



KUTTUNA Estetika
Aranburuzabala 19, behea | Eskoriatza
%5eko deskontua zerbitzu guztietan (beste
promozio batzuk izan ezik).



OÑATI GARAJEA
Autoen garaje. Konponketak
Goribar Auzoa 9 | Oñati
Oñati %5eko beharpena egiten diren
konponketetan.



EUREKA ZIENTZIA MUSEOA Aisia
Mikeletegi 43-45 | Donostia
Sarrera bat erosita eta kupaia+ Goiena Klubeko
txartela erakutsita, sarrera bat doan.



JAUJA KIROLAK
Irizar pasealekua 1 behea, Bergara
Produktu guztietan %5eko deskontua..



PORTALOI optika
Erdiko kalea 10, Arrasate
%15eko deskontua (ez metagarria beste
eskaintza batzuekin eta ez aplikagarria
segurtasun betaurrekoetan).



MAGDALENA Gasolindegia
Santxolopetegi auzoa | Oñati
% 2ko deskontua gasolindegian erregeia erosita.



ALZU, S.L Ehiza eta arrantza
Arantzazuko Ama, 2 | Oñati
Arropetan %10eko beharpena.



CARAVANAS OÑATE
Galdaragintza. Bizikletak
Otañui Zuhaiztia, 25 | Oñati
50€-ko erosketatik, %10eko deskon-
tua stockean dauzkaten oinetako eta
ehun—galetan. (ez du balio beste promo-
ziotarako).



ESTACION SERVICIO ARRASATE
Gasolindegia
San Andres 7 | Arrasate
% 2ko gasolindegian erregeia erosita.
% 2ko dendako produktuetan.



GAHIR Fisioterapia / Osteopatia
Aranburuzabala 6 behea | Eskoriatza
%50eko deskontua lehenengo kontsultan.



NINIKALoradenda
Ramon Maria Lili, 8 | Bergara
%10eko deskontua artikulua guztietan.



GAES Entzumen zentroa
Otalora 18 | Arrasate
Zurradero 10 | Bergara
%10eko deskontua (ez metagarria beste
eskaintza batzuekin)



MULTIÓPTICAS Optika
Juan Carlos Guerra, 1 behea | Arrasate
Ibargarai, 16 | Bergara
%15eko deskontua (deskontua ez da aplikaga-
ria promozioetan ezta segurtasun betau-
rrekoetan)..



ARRIKRUTZ Kobak
Araotz Auzoa | Oñati
Sarreran %10eko deskontua (topea bost pertso-
na).



GUZTIZ EDER Estetika zentroa
Kalebarria 29 | Oñati
%5eko deskontua argizari epelarekin eta
beroarekin egindako depilazioetan (bekai-
nak eta ezpain gainekoa izan ezik).
%10eko deskontua gorputz osoan txokolatea-
rekin egindako estalduran eta masajejan.



TXURI URDIN Itzotz jauregia
Anoeta Ibilbidea 24 | Donostia
% 20eko deskontua zapatu eta domekatan (ez
bada zubia edo opporraldia).
% 10eko deskontua zubi eta opporraldian.



AQUARIUM – Donostia
Bi erosi eta bat ordaindu (Sarrena garestiena
ordainduko da).



GRACIAN Mertzeria
Bidekurutzeta kalea 6, Bergara
25 eurotik goragoko erosketetan %20ko des-
kontua.



INSTITUTO OPTIKOA
Bidekurutzeta 10 | Bergara
%15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan
eta aparatua audifonoetan..



IONE MOÑUX Fisioterapia zentroa
Burdinate plaza 2 | Bergara
Lehenengo sesioa, sesio erdi..



AZPEITXI Jatetxea
Aranerrekalea 13, Bergara
Tel.: 943 76 55 00
Azpeitxi jatetxeko otordueta bazkide-txartela
erakutsiz gero: Eguneako menuan, bazka-
rian kafea doan. Asteburuetako menuan,
bazkarian eta afarian kafea doan.

* Eskaintza honek, GOIENA KLUBEKO txartelaren titular bakoitzeko, kafe bat hartzen du barne.

GOIENA KLUBEKO ABANTAILA GEHIAGO:

Goiena papera: Astelehenetan ere etxean.

Deskontuak: Goienan jartzen duzun iragarki sailkatu eta eskela guztietan.

Urteko kuota: **55 €.** | **943 25 05 05**
kluba@goiena.com | goienakluba.com



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

KIROLA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

Ligako lehen partidua galdu du etxean Aretxabaletak, Beti Gazteren kontra

- Etxekoek norgehiagoka ona egin zuten eta nagusi izan ziren, baina ezin errematatu
- Aurkariak ez zuen askorik egin, baina ondo aprobetxatu zituen izan zituen aukerak

EMAITZA

ARETXABALETA

1-2

BETI GAZTE

HASIERAKO HAMAIAKOKO

Aretxabaleta: Iker Agirregabiria, Gartzia Gorosabel, Ivan Espinosa, Julien Arriaran, Beñat Etxabe, Haritz Igartua, Julien Eraña, Urtzi Lopez, Josu Arizmendiarieta, Iker Sabchez eta Gilen Mar.

Beti gazte: Yannick Fontan, Xabier Arriola, Fernando Etxegarai, Ander Olaizola, Adur Yanci, Jon Etxebeste, Oier Iantzi, Beñat Saralegi, Ander Maia, Ander Ordoki eta Igor Gurrutxaga.



Gartzia Gorosabel baloia kontrolatu nahian, Beti Gazteko jokalaria gainean duela, atzo Ibarra jokaturako partiduan. | JOSETXO ARANTZABAL

IRATI GOITIA | ARETXABALETA

Eten da Aretxabaletaren bolada paregabea. Orain arte Ibarra gotorleku izan da Valleren mutilendako, etxean jokaturako norgehiagoka guztiak irabazi dituztelako; atzora arte.

Galtzen hasi ziren

Etxekoek ez zuten partidua ondo hasi. Bigarren minuturako 1 eta 0 zihozten galtzen. Kontrarioak ateratako korner batean, baloia solte geratu zen ate aurrean, eta Beti Gazteko jokalaria batek sareta bidali zuen baloia. Aretxabaleta oraindik lehen sartu gabe zegoen, oharkabean etorri zitzaizkien gola. Valleren mutilak ez ziren kikildu, ordea. Sasoi onean dira aretxabaletarrak eta horixe erakutsi zuten. Hala, aukera ugari izan zituzten lehen zatian, batzuk aipatzearen honakoak: Arizmendiarietak 9. minutuan izan zuena; edo Lopezek eginiko pase bikainaren ondoren, osteria ere Arizmendiarieta atezain aurrean bakarrik geratu zenekoa (12. minutuan), baina huts egin zuen; edo, Igartuak eta Sanchezek kontraerasoa jo zutenekoa, 18.enean, baina Sanchezek ez zuen jokaldia ondo amaitzen jakin. Aukera

ugari, baina ezin. Ezin gola egin 36.era arte. Orduan eginikoa ere ez zen markagailura igo, ordea. Izan ere, jokoz kanpokoa adierazi zuen epaileak.

Arerioak ezer gutxi egin zuten. Eta lehen zatia, hasi bezala amaitu zen: arerioaren korner jaurtiketa batekin. Horixe izan zen Beti Gaztekoek sortutako arrisku bakarretakoa. Hala, 1-0eko emaitzarekin joan ziren atsedenaldira.

Bigarren zatian, golen bila

Bigarren zatia ere ildo beretik joan zen. Zelaira irten berritan, kanpotarrak pare bat aldiz iritsi ziren aretxabaletarren area txikira, baina gainontzean Agirregabiria atezainak ez zuen lan handirik izan. Beraz, UDak izan zuen baloiaren jabetza, eta horrela, bigarren zatian ere hainbat aukera izan zituzten etxekoek.

Golaren bila irten ziren Valleren mutilak. Bigarren minutuan, esaterako, Lopezek aukera garbia izan zuen atezainaren aurrean bakarrik gelditu zenean, baina gora bota zuen baloia. Azkenean, zazpigarren minutuan etorri zen etxekoek gola: Marrek eginiko pasea errematatu zuen Arizmendiarietak, lehenengoan huts, baina lurretik eman zion biga-

renez, eta orduan barrura. Arerioa atzean sartu zen, berdinketa defendatzeko asmoz. Aretxabaletarren garaipenaren gola nahi zuten, ordea, eta hainbat aukera izan zituzten. Areako marrik tiro ederra bota zuen Fernandezek, baina, atezainak geratu egin zuen etxekoaren zartakoa. Lopezek ere izan zuen aukera ona 28. minutuan, atezainaren aurrean bakarrik geratu zenean. Edo Arizmendiarietak 34. minutuan korner bati buruz erantzutean.

35. minutuan, baina, beste ezusteko bat etorri zen: Beti Gaztekoen bigarren gola (1-2). Saralegi kontraerasoan iritsi zen Agirregabiriaren atera -irten egin zen bere atea defendatzeko- eta kanpotarrak ondo loratu zuen baloia. Aretxabaletarrei hamar minutu eta luzapena gelditzen zitzaizkien berdinketaren gola bilatzeko, eta saiatu ziren, baina ezin. Azken minutuetan dena egin gura. Luzapenean txartel gorria ikusi zuen Gorosabelek. Azkenean, 1-2koaz amaitu zen lehia.

Aretxabaletak etxean galdu duen lehen partidua izan da, baina ez zen kezkatzeko porrota izan, maila ona eman zutelako.

GORKA VALLE | ENTRENATZAILEA

"Badirudi neurria hartuta digutela, iazko bi partidua ere irabazi zituzten"

Bere mutilek eginiko lanaz pozik zen Gorka Valle entrenatzailea.

Orain arte etxean jokatu dituzten partiduen denak irabazi dituzte. Gaur galtzea tokatu zaizue. Norgehiagoka ona egin dugu, baina... Lehenengo gola baloi nahi batean sartu digute lehen minutuan eta bigarrena kontraerasoan. Zorte txarra izan dugu. Normalean, horrelako partidua irabazi egiten ditugu, baina gaur ez dugu lortu. Zelaian zuek izan duzue nagusitasuna.

Bai, guk izan dugu lehiaren kontrola denbora guztian. Bagenekien beraiek atzean itxaron behar zigutela. Azkenean, izan dituzten aukerak aprobetxatu dituzte eta guk galdu egin dugu.

Egiten ari zareten denboraldiarekin eta horren emaitza onekin, arerioak zuzenean sartzen dira atzealdean?

Bai, hauek, gainera, horrela jokatu izan dute gurekin beti: atzean sartuta. Aurreko urtean ere euren



I.G.

aurkako bi partidua galdu genituen. Badirudi neurria hartuta digutela, beti irabazi egiten digute. Partidu oso ona egin dugu, lan handia egin dugu. Horrekin gertatzen naiz. Egin ditugun hutsak zuzendu beharko ditugu eta listo. Amaieran urduri ere jarri gara eta ez ditugu horrenbeste aukera izan. **Hurrengo partidua Elgoibarren, zela ikusten duzu?**

Ez da erraza izango. Irabaztera joango gara eta ea lortzen dugun.

OHOREZKO ERREGIONALA

Egindako joko bikainari esker, merezitako hiru puntu eskuratu ditu Aloña Mendik

Antzuolarekin jokatutako partidua garaipenetik zeramaten oñatiarrek norgehiagokarik irabazi gabe

EMAITZA

ALOÑA MENDI K. E.

2-1

ELGOIBAR C. D.

KOMUNITATEA GOIENA | JABI AGIRRE
ALOÑA MENDI

Euri artean eman zitzaion hasiera partidari Aloñakoen hamaikako titularrean gazte mailako hiru jokalariek zeudela: Martxel Aiastui, Asier Mantxola eta Unai Gil. Lehen minutuetan oñatiarrek izan ziren nagusi, eta nahiz eta gol aukera garbirik ez izan, baloiaren jabetza eurenaren zen. 17. minutuan iritsi zen lehen gola: Josu Juaristik zelai erditik falta bat jaurti, eta baloia, Aranberriren ateko langa ukitu ondoren, sarera joan zen. Gol bikain horren ostean, Elgoibarrek lerroak aurreratu zituen berdinketaren bila, eta Aloñakoek kontraerasoak baliatu nahi izan zituzten min egiteko. Horieta batean, Martxel Aiastuik aukera bikaina izan zuen. Jokaldi horretan baloia loratuz atezaina gainditu zuen, baina marraren gainean atzelari batek baloia urruntzea lortu zuen. Elgoibarren ahaleginak 37. minutuan izan zuen fruitua. Izan ere, Condek, epaileak area ertzean adierazitako falta era bikainean jaurti zuen, eta hesiko jokalariek gaindituz, sareetara bidali zuen. Lehen zati horretako azken minutuan Gilek auke-



Ibai Moreno, baloiaren bila. | JOSETXO ARANTZABAL

ra ederra izan zuen 2 eta lekoka lortzeko, baina baloia gehiegi gurutzatu eta kanpora joan zen.

Anbulantzia berdegunean

Bigarren zatian hasieran Elgoibarkoek eskuratu zuten baloia eta aukera garbirik sortu ez bazuten ere, hurbilago ikusten zen elgoibartarren gola. Partidaren 78. minutuan Mantxolak min hartu zuen, eta ambulanzia iritsi arte jokoa geldirik egon zen. Ordu

erdiko etenaldiaren ostean, partidari berrekin zitzaion eta 82. minutuan iritsi zen Jon Lertxundiren garaipenaren gola: buruz egindako errematea eskuadratik sartu zen. Azken minutuan tentsio handikoak izan baziren ere, Aloñakoek garaipena lortu zuten.

Urriaren 26an Antzuolari irabazi zitzaionetik, garaipenik lortu gabe zeuden oñatiarrek, eta, hiru puntu hauek oso beharrezkoak ziren Serranoren mutilendako.

EMAKUMEZKOEN ERREG.



IMANOL SORIANO



I. S.



I. S.

Mondrako neskek garaile

Zumaiako taldearen aurka 1 eta 0 irabazi zuten zapatuan Mondrako neskek Ane Arregiren golari esker. Eguraldiak ez zuen batere lagundu; euriak asko zaildu zuen jokoa baina Arrasatekoek ondo eutsi zioten partiduari. Hiru punturekin hirugarren postuan dago sailkapenean Arrasateko taldea.

OHOREZKO ERREGIONALA

Bergarak ezin izan ditu Ondarroako mutilak garaitu kanpoan

Markagailuak 2-1 erakusten zuela amaitu zuten partidua zapatuan Bergarak eta Ondarroak. Bergarakoek ezin izan zuten sailkapenean bigarren doan Aurrera talde ondarrutarra garaitu euren berdegunean. Hori horrela, jardunaldi honetako emaitza eta gero 12. postuan kokatzen dira bergararrak, 17 punturekin.

Datorren hamalagarren jardunaldian derbia jokatuko dute oñatiarrekin, etxean. Aloña Mendiren domekako garaipenak bi puntutara baino ez ditu utzi. Beraz, bistakoa da norgehiagoka hau erabakigarria izango dela sailkapenean, oñatiarrek euren aurretik edo atzetik kokatuko dituelako, hain zuzen ere.

OHOREZKO ERREGIONALA

Antzuolak ez du joan den jardunaldiko indarra izan

Pasa den jardunaldiko garaipenak –denboraldiko lehenengoak– ez dio bultzada eman Antzuolari Usurbilgo mutilak menderatzeko: 1 eta 0 galdu zuten egubakoitzean. Porrot horrek, zazpi punturekin mantentzen ditu Antzuolak 18.en postuan –azkenak.

Hurrengo partidua Ostadar taldearen aurka jokatuko dute, etxean. Esan beharra dago, Lasarteko taldea puntu berekin baina postu bat gorago dagoela. Norgehiagoka honek Antzuolako mutilak iratzarri beharko ditu sailkapenean gora egin gura badute. Ostadarrek ere behin baino ez du irabazi.

EMAKUMEZKOEN ERREG.

Arizmendiko neskek 0 eta 3 irabazi dute Mariñoren aurka

0 eta 3 irabazi zuten domekan Arizmendiko neskek Mariño taldearen aurka. Irungo taldeak joko ona egin zuen arren ez zen arrisku izan Arizmendikoendako. Lehenengo zatian Haizea Arriaranek bi gol sartu zituen kórnerretik eta hirugarren gola, bigarren zatian, Izar Gorroñogoitiak egin zuen. Duda barik, igoera faseko lehen partidua garaipenak indarrak emango dizkie Arizmendiko neskei; hala ere, datorren norgehiagoka Mondrako nesken aurka jokatuko dute, etxean. Halakoak beti zailak izaten direla azaldu dute Arizmendikoek, baina, derbirako oso gogotsu agertu dira.

GABONETAKO TORNEOA

Emakumezkoen txapelketa urtarilaren 3an eta 4an izango da

Urtarrilaren 3an eta 4an jokatuko dute emakumezkoen Gabonetako futbol torneoak, Ibarran. Urtarrilaren 3an, nagusien futbol partidu triangeluarra izango da: Athleticen, Realak eta Debagoiaren Selekzioak jokatuko dute. Hurrengo egunean, urtarilaren 4an, aldiz, infantil, kadete eta alebinen txanda izango da.

Arizmendi Kirol Elkarteak antolatzen du torneo hau urtero eta aurtun 450 emakumezko inguru futboleko aritzea espero dute. Torneoaren xehetasun gehiago, abenduaren 18an, eguna, egingo den prentsaurrekoan emango dituzte.

LAGUNARTEKOA

Lutxiren omenezko 25. futbol torneo jokatuko dute Gabonetan

Lutxiren omenezko lagunarteko 25. futbol txapelketa jokatuko da hilaren bukaeran. Torneoaren lehenengo partidua Eibarrek eta UDAl jokatuko dute abenduaren 29an, 17:00etan, Ipintzan. Bigarrena 30ean izango da; Bergara eta Real lehiatuko dira, leku eta ordu berean. Torneoaren finala, urteko azken egunean jokatuko dute, 16:00etan Agorrosinen.

Partidu horietan berdinketaren bat ematen bada, penaltiak jaurti beharko dituzte berdinketa desegiteko. Bestetik, aipatzekoa da finaleko arauzko denbora 40 minutuko izango dela.

LEHEN NAZIONAL MAILA

Defentsan oinarritutako azken jokaldiari esker, garaipena

- Azken minutuan Ford Mugarrik ondo eutsi zion gol bateko aldeari
- Arrasatekoek Eibarren kontra jokatu dute gaur, Euskal Kopan

EMAITZA

FORD MUGARRI ARRASATE

32-31

PULPO

FITXA TEKNIKOA

Ford Mugarri Arrasate: Ekaitz, Letona, Kepa (1), Mikel (1), Bernal (9), Zubizarre, Jorge, Gillen, Oier, Unai (3), Isasmendi (7), Otegi (6), Herrero (5), Mikel, Salterain.

Pulpo: Ballesteros, Beristain, Odriozola (6), Javi, Ander (8), Julen, Arrieta, Rubio (5), Mancisidor, Larburu (6), Manex (3), Xebe, Ibon, Lizeaga (1), Gorka (2).

Beste: Giro polita Musakolako harmailetan, jende asko etorri zen Zumaitik.



Unai Rodriguez arrasatearren etxekoan aldeko gola egiteko gertu. | IMANOL SORIANO

XABIER URZELAI | ARRASATE

"Benga mutilak, gureak dituk!", oihukatzen zuten Musakolako kantxako harmailetatik zale zumaiarrek. Koadrilatzarra etorri zen, zaratatsuak gainera, eta etxeko jokalariek kantxan erne egoteaz batera, zale arrasatearrek ere esnatu egin behar izan zuten, horixe falta zen, etxean egon eta kanpokoei gehiago entzutea. Iturripen zen jokatzekoa Ford Mugarriren eta Pulporen artekoa, baina itoginak tarteko, Musakolan izan zen lehia.

Nahiz eta konponketa batzuk egin, Iturripeko sabaia buruhausteak ematen jarraitzen du, eta konponbideren bat beharko du, bertan lehiatzen diren taldeak ez dabiltzalako nolanahiko kategoriatan –EBAn MU saskibaloit taldea, eta Liga Nazionalen Ford Mugarri.

Soluzioa, baina, ez zen txarra izan –Musakolan jokatzearen bertan zaleak gain-gainean dardelako, eta giro ederra egoten delako. Eta bai, jendea zegoen. Hala, partidua joko aldetik boro-bila izan ez bazen ere, jokalariei ezin zaie ezer aurpegiratu, intentsitatez jokatu zutelako.

Indarrak, parean

Parean egon ziren indarrak, aurrez ere jakinekoea zen horrela gertatuko zela bosgarren eta seigarren sailkatuak zeudelako aurrez aurre. Eta, ze garesti dagoen sailkapenean aurrerapauso bat ematea. Iker Otegik estreinatu zuen markagailua etxekoan alde, eta hor hasi zen lehia. Etxekoak joko estatikoagoaz, Pulpo kontraerasoan min egin guran, eta azkar jokatzeko jokalariek gazteekin (eta kopuru aldetik talde politaz).

Lehenengo zatia amaitzeaz zela, baina, Arrasatekoen jokoak behera egin zuen, eta Pulpok 4 goleko aldea egin zuen hor (12-16). Arriskutsua zen lehenengo zatia hori baino alde handiagoaz amaitzea, bigarrenengo egin beharreko esfortzua bikoizten zuelako, baina zorionez, azken jokaldietan egoera zuzentzea lortu zuten, eta partidua berdindu barik, baina bi goletara murriztu zuten aldea (14-16).

Azken segundora arte

Bigarren zatia hasi eta ostera ere Ford Mugarri eman zuen lehen kolpea, Herreroren eskutik (15-16), baina 30 minutuko borrokal-di gogorra zuten aurretik. Pablo Gartziaren mutilak bigarren zatiko 15. minutura arte ez ziren gauza izan markagailuan aurreratzeko. Entrenatzaile oñatiarrek

erritmo handiagoz jokatzeko eskatzen zien jokalariei, eta hauek azeleragailua sakatu zuten. Penaltiz egin zuen Isasmendik 24-23koa baina Pulpo ez zegoen amore emateko. Minutu horietan erabakigarria izan zen Bernalen erasorako gaitasuna, denbora tarte horretan hirutan zulatatu zuelako kanpotarren atea, eta lehen aipatu moduan, Iker Otegik egindako golari esker 31ko berdinketaz iritsi zen partidua azken tartera. Hor, etxekoek, esperientziatik egin zuten tira, Herrerok egin zuen 32.a, eta azken minutuan moreak araudiaren muga ibili ziren azken jokaldi hori defendatzeko (32-31). Baina hori ere jokoaren parte da.

Euskal Kopa, gaur

Atsedean hartzeko tarte txikia izango du Ford Mugarri Arrasate.

PABLO GARTZIA
ENTRENATZAILEA

"Aurrealdeko taldeon artean sekulako lehia dago; gaur ikusi da hori"

Ondo izerditutakobipuntu izan ziren zapatuan lortutakoak, eta horri esker laugarren dago Ford Mugarri Arrasate.



GOIENA

Azken jokaldia ondo defendatzea, hor egon da gakoa?

Nik be ez daukat garbi non egon den gakoa. Guretako helburu nagusia partidu guztietan lehiakorrak izatea da, konpetitzen jakitea, eta gaur ere amore eman ez dugulako irabazi dugu, hor egon garelako amaierara arte. Beti errepikatzen dut gauza bera, oso jokalariek gutxi dituen taldea da, Pulpok talde osoa zuen, baina hor egoten jakin dugu.

Lehenengo zatiko azken minutuetan bazirudien Pulpok partidua erabakita utziko zuela?

Zoritxarrez askotan gertatzen zaigun gauza bat da, minutu txar batzuk egin eta gero partiduari buelta emateko ahal-egin berezia egin behar izaten dugu. Gorabehera horiek izan beharrean, 60 minutuetan intentsitate berdinez jokatu beharko genuke, baina hori ere oso zaila da, ia ezinezkoa. Hala bigarren zatian barruan darabagu harrotasun hori ateratu dugu, eta hobeto jokatzeko hasita partidua irabaztea lortu dugu.

tek, Euskal Kopako final-zortzi-renak jokatu dituztelako gaur, astelehena, Arrasaten (11:30). (Ikusteko dago Iturripen edo Musakolan izango den partidua). Gainera, ligako oilarra izango dute aurrean, Eibar: "Partidu zaila izango da, oso ondo ezagutzen dugu elkar, ondoegi, eta egia da Bidasoa moduko talde bat gehiago gura gurela, beste modu batean jokatzeko dutelako, baina Eibar egokitu zaigu".

SASKIBALOIA

Gabonetako torneoak Bergaran, haurrendako

X.U. | BERGARA

Urtero moduan, Gabonetan Bergaran saskibaloian jokatzeko aukera izango dute herriko gaztetxoek. Hasteko, abenduaren 26an eta 27an kategoriatan txikiendako hirunako saskibaloit torneoak egingo dute frontoian, Bergarako saskibaloit taldeak antolatuta.

Eta atsedeen hartu barik, abenduaren 29an eta 30an infantil mailakoendako saskibaloit txapelketa egingo dute, Labegaraian.

Jon Agirre, selekzioaz

Bestalde, Bergarako taldeko gazte mailako Jon Agirre jokalaria

Euskal Selektzioaz jokatzeko dabil egunotan. Azken boladan Gipuzkoako selektzioetik hainbatetan deitu dute bergararra, baina oraingoan Euskal selektzioetik jaso du deia.

Euskadiko Txapelketa

Hala, oraingo egunotan Euskadiko saskibaloit txapelketa jokatzeko dihardute Araban, Amurrian. Gaur, astelehena, hirugarren jardunaldian, 10:00 etan Gipuzkoak Arabaren kontra jokatu du –gizonezkoek– eta 12:00etan lehiatuko dira emakumezkoak.



Udal pilotalekua saskibaloit kantxa bilakatuko dute Gabonetan. | GOIENA



Hankaluzetrail taldeko ordezkariak, aurtengo urtarrilean egindako korrikaldi saio batean egindako talde erretratuan. | HANKALUZETRAIL

MENDI LASTERKETAK

"Uste dugu mendian egiten den San Silbestre bakarra dela gurea"

- ▶ Abenduaren 31n egingo dute 6,5 kilometroko mendi lasterketa Bergaran
- ▶ Dagoeneko ehun lagun baino gehiagok eman dute izena lasterketarako

XABIER URZELAI | BERGARA
Abenduaren 31n lasterketa berri bat jaioko da Bergaran, San Silbestre Trail, Peugeot Etor-mobil saria, eta helburu xumeaz dator, urtea ondo agurtzeko hitzordu bat izatea, eta bide batez, mendi lasterketak herri-tarregana gerturatzea. Orain arte, urteko azken eguna kirol

apur bat eginez amaitu gura zuenak Oñatin eta Eskoriatzan zituen asfaltoko San Silbestreak, baina Bergaran mendira egingo dute salto: "Uste dugu Euskal Herrian egiten diren San Silbestreen artean bakarra dela mendian egingo dena", diosku antolatzaile lanetan dabilen Xabier Lijok, eta urte bakarreko kontua izan barik, lasterketa egonkortzea nahi dute: "Ea zer moduz doan lehenengo edizio hau, baina asmoa da urtero egin ahal izatea. Horrekin batera, aurrera begira baditugu beste asmo batzuk, baina poliki-poliki joatea komeni".
Aurrez, behintzat, antolatzaileen aurreikuspenak onak dira, dagoeneko 120 lagunek eman dute-eta izena (www.kirolprobak.com): "200 lagunendako tokia aurreikusi dugu, eta jendeak interesa erakutsi du. Seguru giro ona egongo dela lasterketan zehar, eta baita Bergaran ere".
"Denetik du ibilbidea"
Lasterketari dagokionez, Lijok ibilbidea azpimarratu du: "Denetik dauka, hasierako ia hiru kilometroak korrika egitekoak dira, eta gero tarte txiki batean gehienak oinez joango dira, baina 4-5 minutuko kontua baino ez da izango. Gainera, asfaltua, hartxintzarra, belarra, lokatza... Denetik dago. Teknikoki ez da oso zaila, baina zorua bustita badago

kontuz belarretatik egingo duten jaitsieraz. Jaitsiera oso polita da, belarretakoa zona azkarra da, eta belar bustia badago, adi".
Hankaluzekoak, lanera
Lasterketa antolatzen Hankaluzekoak ibiliko dira: "Gutako inork ez du parte hartuko, eta antolaketan lanetan ibiliko gara". Urte

Mendian hasteko aproposa
San Silbestre izenaz ezagun diren lasterketa guztiak, distantzian, nahiko motzak izaten dira, eta Bergarako ere halakoxea izango da. Mendian bada ere, distantzia horretan asfaltoan korrika apur bat egiten duen edonor animatu daiteke lasterketara. Hala, antolatzaileek uste dute kanpoko korrikalariendako baino gehiago dela bailarako jendearendako hitzordua, eta bergarar asko animatuko dela aurreikusten dute: "Hori bai, kanpotar guztiak ere ongietorriak izango dira".
11:00etan hasiko dute lasterketa, Semionariotik: "40-50 minutuan egiten da lasterketa, bakoitzaren erritmoaren arabera".

osoan lasterketetan batera eta bestera ibili ostean, etxean lanean egon behar: "Orain pare bat urte jaio zen taldea gara, izan ere, konturatu ginen Bergaran bazela jendea mendian korrika aritzen zena, baina nahiz eta korrikalari dezente izan ez genuen inolako talderik. Gauzak horrela, Pol-Pol mendizale talde barruan

sortu genuen gure saila. Talde moduan joaten gara lasterketa askotara, edo bestela elkarrekin korrika egitera joateko batzen gara. Batzuk proba luzeak gura izaten dituzte, beste batzuk motzetan ibiltzen dira, denetik dago, eta taldeko ateak zabal-zabalik daude animatu gura duenarendako".

ESANAK

"Helburua mendi lasterketak herritarrei gerturatzea da, anima daitezela"

"Asfaltoan ibiltzen direnek lasai asko egin dezakete proba, baina indarrak neurtzea komeni da"

XABIER LIJO | ANTOLATZAILEA



Lasterketaren ibilbidearen mapa. | HANKALUZETRAIL



Perfila, 6,5 kilometro eta 300 metroko desnibel positiboaz. | HANKALUZETRAIL

HOCKEY-A**Gabonetako 4x4 txapelketa, urtarilaren 2an**

I.B. | BERGARA

Urtarrilaren 2an, Gabonetako 4x4 hockey txapelketa jokatu dute hirugarren aldiz Labegaraiaeta kiroldegian. Hanka Labanka elkarteak antolatuta; benjaminek, alebinek eta infantilek hartuko dute parte eta talde bakoitzeko gutxienez lau jokalarik izan behar dira –eta gehienez, bost.

Partiduak, goizez, 9:30ean hasiko dituzte, eta arratsaldean 16:0etan. Hala, izenematea ordaindu izanaren agiria inskripzio orriarekin batera aurkeztu behar dute jokalariek. Izen emateak, ikastetxetan jasoko dira abenduaren 19ra arte, edo bestela kiroldegian edo igerilekuetan egongo diren kutxetan sartu ahaliko dira abenduaren 23a baino lehen. Jokalari bakoitzak 10 euro ordaindu behar dute.

KIROL SARIAK**Oñatiko kirol sariak abenduaren 19an banatuko dituzte**

Abenduaren 19an Oñatiko Kirol Sariak ekitaldia 19:00etan egingo da Oñatiko udaletxeko batzar aretoan. Hala, urtean zehar bereziki nabarmendu diren herriko kirolari, kirol teknikari, kirol eragileei... errekonozimendu publikoa emango diete. Lehenengo, ongietorria eta sari banaketa izango da eta 19:30etan luntxarekin amaituko da.

BERBALDIA**Euskaraz eta kirolaz jardungo dute Maider Undak eta Alex Txikonek**

AEDko Bultza taldeak Alex Txikon eta Maider Unda gonbidatu ditu mahaiaren bueltan *Kirola eta euskara: ze harreman?* galderari erantzutera. Abenduaren 16an, martitzenean izango da ekitaldia (19:00), Kultureteko Jokin Zaitegi aretoan. Bi hizlari ez gain, Goiena Komunikazio Taldeko Xabi Urzelaik bideratuko du mahai-ingurua.

ESKU PILOTA**Elgetako beterranoen esku pilotako afaria Intxorta elkartean**

Abenduaren 19an, Elgetako beterranoen esku pilotako afaria izango da Intxorta elkartean. Izena emateko azken eguna abenduak 14 izango da eta izen ematearekin batera, 10 euro ordaindu behar dute bertaratu nahi duenak. Izen emateak jasotzeko arduraduna, berriz, Iñaki Ugarteburu izango da.

ARETO BIZIKLETA**Euskal kantu bilduma osatu dute areto bizikleta saioetarako**

Bilduma Aritz Alustiza eta Eli Rodriguez bergarrek osatu dute

IMANOL BELOKI | DEBAGOIENA

Kirola Euskaraz programak 250 euskal abestiz osatutako bilduma osatu du. Hala, bailarako kiroldegietako areto txirrindularitzako monitoreen esku utzi du usb baten pasata. Aritz Alustiza musikari bergararrak eta Eli Rodriguez Bergarako kiroldegiko begiraleak osatu dute euskal kantuen bilduma. Hone-la, bailarako kiroldegiko saio guztiak, %100an Euskarazko musikaz girotuko dira.

Areto txirrindularitzako saioetan, euskal musika gehiago erabiltzea lortu nahi da ekimen honekin. Bilduma honi esker, euskal musika erraz aurkitzeko aukera izango dute begiraleek.

Gaur egun, 250 abestirekin osatu dute musika bilduma baina aurrerantzean, abesti berriak gehitzen joango direla ere aurreratu dute.



Oñatin egindako spinning maratono irudia. | GOIENA

Formazio topaketa elgoibarren

Pasaden azaroaren 28an formazio-topaketa eskaini zitzaizen bailarako monitoreei Elgoibarko kiroldegian. Bertan, euskal musi-

karen bilduma aurkezteaz gain, spinning saioetarako musika nahasteko baliabide informatiboak erabiltzen ikasteko metodoak erakutsi zitzaizkien.

IGERIKETA**Taldekako 100x100 igeriketa froga Oñatin**

I.B. | OÑATI

Oñatiko Triatloi Taldeak lehenengo antolatuko du taldekako 100x100 igeriketa proba. Oñatin izango da hitzordua, urtarilaren

17an. Horretarako, Zubikoako igerilekuko hiru kale hartuko dituzte. Gainontzeko beste bi kaleetan berriz, kiroldegiko erabiltzaile arruntak egongo dira

igerian. Hala, 15:00etan Oñatiko kiroldegi kanpoan elkartuko dira eta beroketa egin ondoren, 15:30etan hasiko da lasterketa. Amaitutakoan, Pago Uso elkartean luntxa izango dute parte-hartzaile guztiek.

Igerilekuko kale bakoitzean bi talde sartuko dira, talde bakoitzak kale erdiko espazioa beteko du. Hala, igerilari bakoitzak 100 metro jarraian egingo ditu igeri, eta taldekideen artean antolatuko dira 100 errepikapen guztien artean egiteko. Errelebo bakoitzari uretatik zein igerileku kanpotik eman ahal izango zaio hasiera, beti ere aurreko taldekideak bere lana amaitu duela kontutan hartuta. 100 erreleboak azkarren ematen dituen taldeak irabaziko du erronka.



Igerilari bat, Bergaran egindako txapelketan, artxibo irudian. | GOIENA

SASKIBALOIA**Natra Oñatiko jokalarik Asier De la Iglesia saritu dute**

X.U. | BERGARA

Duela bi urte antzeman zioten Natra Oñatiko saskibaloik jokalarik Asier De la Iglesia esklerosi anizkoitza, eta denbora tarte honetan Zumarragako pibotak irribarre bateaz egin dio aurre gaixotasunari. Komunikabidean bere kasua azaltzeaz batera jarrera aktiboa erakutsi du gaixotasunaren aldeko hainbat ekimenetan parte hartuz.

Hala, Onda Cero irrati kateak Oñatiko taldeko jokalaria saritu zuen joan den astean egindako sari banaketan, eta Gipuzkoan nabarmendu diren pertsonen artean gainditze saria jaso zuen De la Iglesia.

Oñatiko saskibaloik taldeak azken urteotan izan duen loraldi ederrean parte-hartze zuzena izan du De la Iglesia, eta egun taldean jarraitzen du.

ATLETISMOA**Santamasetako 37. krosa abenduaren 14an izango da**

M.T. | ARRASATE

Arrasate Atletiko taldearen eskutik, badator aurten ere Santamasetako krosa. Gazteenek emango diote hasiera egunari. 11:00etan, 13 eta 14 urtekoena izango da lehen lasterketa. Hortik aurrera, adinaren arabera hainbat lasterketa egingo dituzte, distantzia ezberdinetan.

Koadrilen arteko krosa, berriz –Enrike Kabiketa memoria–, 12:30ean hasiko dute eta koadrilaka lehiatu beharko dute. 6,4 kilometroko ibilbidea egin behar dute Arrasateko alde zaharreko kaleetan barrena.

ZIKLISMOA**Murias taldekoak Txantxiku Ikastolan**

Murias txirrindulari talde berriko ordezkarien bisita izan zuten egubakoitzean Oñatiko Txantxiku Ikastolako ikasleek. Taldeko zuzendari Jon Odriozola eta taldeko bi txirrindulari –Ion Ander Insausti eta Eneko Lizarralde– ibili ziren proiektua azaltzen.

KOMUNITATEA GOIENA
OÑATIKO TXANTXIKU IKASTOLA

TXANTXIKU IKASTOLA



puntua

ASTEKARI BERRIA

Urtarrilaren 16tik aurrera,
egubakoitzeko Goienarekin batera,
Goiena Klubeko bazkideendako.

Gai guztiak, beste ikuspuntu batetik.



**Goiena Klubeko bazkide ez bazara edo
norbaiti urte osorako oparia egin nahi badiozu:**
943 25 05 05 / kluba@goiena.eus

Gaizka Zubizarreta | Parapente-zalea

"Hegan egiteko, meteorologiako kontzeptu minimo batzuk behar dira"

- "Batez ere, haizea kontrolatu behar da, hegan egin daitekeen edo ez jakiteko"
- "Jende gutxi ibiltzen den lekuak gustatzen zaizkit, aglomerazio barik"

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Gaizka Zubizarreta (1977) eskoriatzarra kirolzale sutsua da. Bizikletan eta korrikan asko ibiltzen da eta, batez ere, mendira igotzea du gustukoen. Orain dela bost urte inguru, beste zaletasun bat aurkitu zuen; harrigarria badirudi ere, mendira igo beharrean, puntatik behera hegan jaistea izan zen. Hori bai, parapentearekin.

Nolatan hasi zinen parapentean?

Lagun batekin hitz egin nuen parapentean ibiltzeko ideiaz, eta, hala, sei hilabete inguruko kurtsoa egiteko deitu genuen Urduñara. Deitu, eta egunean bertan hasteko esan ziguten, eta hala hasi nintzen. Han nengoela, lehenengo egunetan praktikak egin genituen zelaian, eta gero, kontzeptu batzuk ikasi; aireratzea, lurreratzea... hegan hasi ginen, gaur arte.

Nolakoa izan zen lehen hegaldia?

Kurtsoan ari ginela, bi lagunentzako parapente baten izan zen, irakasten zebilen batekin. 70 metroko desnibeleko jauzia izan zen, eta, besteak gidatu arren, agintea eramaten uzten zidan. Sentsazio ederra izan zen niretzat. Gainera, zerutik, paisaiak asko disfrutatzen da. Beste batekin salto egin eta gutxira, egunean bertan, Sopelan bakarrik egin nuen salto. Izan ere, kostaldean dauden baldintzak hobeak dira eta seguruagoa da.

Txapelketetan parte hartzen duzula zaletasun hutsa da?

Ez, zaletasuna da. Niri, jende gutxi ibiltzen den lekuak gustatzen zaizkit, aglomerazio barik. Batez ere, Kurtzebarritik salto egitea gustatzen zait, ez da jende askorik ibiltzen inguruan eta kostaldea baino gehiago gustatzen zait.

Zer behar da kirol hori praktikatzeko?

Batez ere, gogoia izan behar da eta oinarritzako meteorologia kontzeptu batzuk ikasi behar dira. Haizea nola dabilen jakin behar da eta hegan egiteko arriskutsua izan daitekeen edo ez kontrolatu. Baldintza fisiko minimo batzuk izatea ere beharrezkoa da. Parapentean ibiltzeko kurtsoa egin nuenean, 70 urte eta 100 kilo inguru zituen gizon bat ere ibili zen. Horrenbestez, nahi bada, egin daiteke.

Eta zein material erabili behar da?

Bela, arnesa, aulkia, GPSa, barometroa –nik, kasu horretan, biak



Gaizka Zubizarreta, Alpeetan, hegaldia egin eta gero. | GAIZKA ZUBIZARRETA

"Mont Blanc inguruko hegaldiko paisaia ikusgarria izan zen"

batera eramaten ditut, bario-GPSa, iparrorratza, besteekin komunikatzeko irratia, botak, kaskoa, larrialdietarako jausgailua –hori aulki azpian eramaten da, eta ez da ia inoiz erabiltzen, batzuek bizitza osoan ere ez dute erabili beharrik izaten.

Kirol arriskutsua izan daiteke?

Parapenteak ematen duena baino inpresio handiagoa ematen du, baina, halere, arriskutsua izan daiteke. Haizearekin kontuz ibili behar da eta hodei-lainoekin ere argi ibili behar da. Gauzak ondo egiten badira, ez da zertan arriskutsua izan eta ez dago ezer gertatu beharrik.

Eguraldi baldintza jakin batzuk behar dira parapentean ibiltzeko, ezta? Meteorologiaz gehiago dakizu orain?

Bai, asko ikasten da orokorrean meteorologiaren gainean, batez ere haizearen ingurukoak, haize bortitza dagoen, gurutzatuta datorren... Hala, arriskuak ekiditeko beharrezkoa da. Haize tenperatura aldaketak dauden lekuetan

burbuilak sortzen dira eta arriskutsuak izan daitezke. Horrez gain, lainoek ere arriskua izan dezakete eta horien aurrean zer egin jakin behar da. Beste askotan, ezin bada hegan egin, ez da egin behar, eta atzera botatzen jakin behar da, nahiz eta gogo handia izan.

Debagoienean badago zaletasunik?

Ba, ematen ez duen arren, Debagoieneko jende asko ibiltzen da parapentean, eta, hain zuzen ere, Amillena Aire Kirola izeneko talde bat dago Arrasaten. Para-

"Baldintza fisiko minimo batzuk behar dira; nahi bada, egin daiteke"

pentean ibiltzen garen asko taldean gaude bertan, eta askotan joaten gara Aloñara edo Kurtzebarri hegan egitera. Beste askotan, kostaldera joan izan gara: Zumaia, Zarautz... eta estatuko hainbat lekutan ere ibili izan

gara. Edozelan ere, nik nahigo ditut inguruko mendiak.

Nondik egin duzue salto orain arte? Eta zein da gehien gustatu zaizun paisaia?

Leku askotan ibili izan naiz. Urduña, adibidez, ikaragarria da, oso polita, baina hegaldi guztietatik ez nuke jakingo bat aukeratzen. Horrez gain, kurtsoa egin nuen taldearekin batera Alpeetan izan nintzen, Mont Blanc inguruan hegaldi bat egin genuen, eta paisaia ikusgarria dago han. Amillena Aire Taldekoekin batera behin Pirinioetara joan nintzen, eta han ibiltzea ere asko gustatu zitzaidan. Hori bai, Kurtzebarri, gure betiko mendia izanda, etxeko bistak ikustea baino hobirik ez dago.

Beldurrik ez dizu ematen?

Ez; ni ez naiz ausarta, baina ez du beldurrik ematen. Bertigorik ez badizu ematen, ez dago arazorik. Zubi-saltoak eta halakoak egiteak inpresio handiagoa ematen dit.

Kontatzeko bitxikeriak?

Nik, normalean, hegaldi motzak egiten ditut, baina lagun batek 118 kilometroko hegaldia egin zuen behin. Kurtzebarritik salto egin, eta Fiteroraino (Nafarroa) heldu zen. Amillena taldeko lagun batek, berriaz, Andaluzia aldean 200 kilometro egin ditu aurtan.



Zubizarreta, Aloñatik egindako hegaldi batean. | GAIZKA ZUBIZARRETA



puntua

ASTEKARI BERRIA

Urtarrilaren 16tik aurrera,
egubakoitzeko Goienarekin batera,
Goiena Klubeko bazkideendako.

Gai guztiak, beste ikuspuntu batetik.



**Goiena Klubeko bazkide ez bazara edo
norbaiti urte osorako oparia egin nahi badiozu:**
943 25 05 05 / kluba@goiena.eus

Debagoiendarrek utzi dute arrastoa Durangon

- Gaur iluntzean amaituko da Durangoko Azokaren 49. edizioa
- Ibarreko sortzaileek askotariko lanak eroan dituzte gune ezberdinetan
- Eguraldia lagun izan ez den arren, jendetza ibili da egunotan



Arrasateko hainbat musikarik ateratako *Hainbat ohe huts* diskoa aurkeztu zuten atzo arratsaldean Ahotsenean. | MAITE ALBES

TXOMIN MADINA | DURANGO

Lau egunen ostean, 20:00etan esango zaio agur Durangoko Azokaren 49. edizioari. Balorazioen ordua izango da gero, gehien saldu dutenak zeintzuk diren jakitekoa. Azken hiru egunotan ikusitakoak ikusita, ziur zerrenda horretan daudela Gatibu, Berri Txarrak eta Toti Martinez de Lezearen azken lanak.

Kopuruak alde batera utzita, Debagoieneko sortzaileen presentzia ere nabarmena izan da Durangon, bai Landakoguneko postuetan, baita Azokaren beste guneeetan ere.

Musikari eta idazleak

Bi karpa izan dituen Ahotsenean, debagoiendar ugari aurkeztu dituzte euren azken lanak. Egubakoitz goizean bertan, John Andueza *San Ferminetan Lesakan* liburua jardun zuen gaztetxo lepo bete zen aurkezpenen karpan. Arrasatearrak, *Prime time* liburua ere eroan du Azokara.

Zuzenekoan karpan, Debagoieneko askotariko musika estiloak

lantzen direla ikusi da. Egubakoitzean AIN lekjo zuen; eta zapatuan, arrasatear gehiago igo ziren agertokira: Angerrekoak eta Gosekoak. Azken horiek *Gosariak* lana aurkezteko emandako kontzertuan bete egin zen karpa, eta emanaldi horretaz gain, Plateruenaren hamargarren urteurrena ospatzeko *Hegoak erein* jaialdian hartu zuten parte zapatu gauean. Atzo, ikusleak dantzan jarri zituzten Bergarako Emon taldekoek *Sua* diskoa aurkezteko kontzertuan, eta Arrasateko hainbat musikarik, *Hainbat ohe huts* diskoko kantuak jo zituzten.

Kontzertuak eman ez arren, ibarreko beste hainbat musikari ere egon dira Durangon, tartean, Juan Karlos Irizar eta Ruper Ordorika. Azken hau zapatuan izan zen Azokan *Lurrean etzanda* diskoa sinatzen, eta pilatu zen jendea bere postuan.

Fermin Etxegoien oñatiarra ere izan da Azokan hamabi elkarriketaz osatutako *Eutsiko diogu?* liburuarekin.

Irudienea, Areto Nagusia...

Ikus-entzunezkoen plazan, Irudienean, Iban Gonzalez arrasatearrak *Kalesarean* dokumentala aurkeztu zuen zapatuan, eta Aitor Arregiren *Zarautzen erosi nuen* film laburra ere eman zuten egun berean.

Autoekoizleek, lekua propioa izan dute lehenengoz eta bertan izan da Maite Toledo antzuolarra. Juan Ramon Garaik, beste egile batzuekin idatzitako *Octubre de 1934 en Euskal Herria* liburua aurkeztu zuen atzo Areto Nagusian.

Goiena Komunikazio Taldeak kudeatutako Azoka Telebistak bestalde, egunok eman duten guztiaren jarraipen zabala egin du bertatik bertara.



Emon taldekoak Azoka Telebistako *Amaia DJ* saioan. | J.D.



Ruper Ordorika, sinatzen. | E.A.



Egubakoitzean jo zuten AIN-Tekoek Ahotseneako zuzenekoan karpan. | M.A.



JABI, XABAT, UXUE, LIDE ETA JOANE OÑATI

"Ez dugu urtero etortzeko ohiturarik. Jende asko dago: eguraldi txarra egiten duenez, denok gaude barruan sartuta. Liburu batzuk erosi ditugu eta sinatu ere egin digute, baina beste liburu batzuk begiratzera goaz orain. Azoka animatuta dago, eta baita Durango bera ere; gune ezberdinek giro ona ematen diote herriari".



INES OSINAGA ETA JON ZUBIAGA GOSE

"Urtero diogu, Durango beti da berezia. Sinatzea gutxienekoa da, sinatu bitartean lau berba eta irribarre bat trukatzek, zuzeneko tratua, askoz gehiago balio du. Ahotsenean ere aurkeztu dugu *Gosariak*; gune hori dagoenetik, Azokak beste zentzu bat hartu du. Lau egunok oasi txiki bat dira basamortuan; neurri baten, hemengo jendetzari esker biziraute du euskarazko sorkuntzak".



MAITE TOLEDO IDAZLEA

"Beste hamabost sortzailerekin batera, autoekoizleen plazan nago aurten. Ohiko formatuetatik irtenda, olerkiak eta ilustrazioak uztartzen dituzten lamina batzuk ekarri ditut; *Poesiak salbatuko gaitu* du izena proiektuak".



NAGORE INDA ARRASATE

"Urte batzuetako etenaren ostean, aurten berriz ere itzuli naiz Azokara. *Gosariak* erosi dut, eta Aitor Arregiren film laburra ikusten ere egon naiz. Azoka beharrezkoa ikusten dut, baina uste dut liburu dendendako kaltegarria dela".



Durangoko Azokako Landakogunea jendez lepo bete zen atzo eguerdi partean. | T.M.



Octubre de 1934 en Euskal Herria liburua aurkezten Areto Nagusian. | M.A.



San Ferminetan, Lesakan aurkeztu zuen John Anduezak Ikasleen Egunean. | T.M.



Angerrekoek euren azken lana, Sute perfektua, eroan dute Durangora. | A.T.



Candyko langileek protesta egin zuten zapatuan Azokaren sarreran. | E.A.

ANUNTXI ARANA
ARGIZAIOLA SARIA

"Mitoetan errealitatea pentsatzen da"

Zapatuanjaso zuen Azoka antolatzen duen Gerediaga elkartearen Argizaiola



saria antropologo eta euskal mitologiaren ikertzaileak. **Nola hartu zenuen Argizaiola zeuretzat izango zenaren albistea?**

Hasieran harrituta, ezin sine-tsita. Gero pozarekin, eta Gerediagari eskerrak emanaz.

Nondik datorkizu mitologia-rako zaletasuna?

Zaletasun guztiak bezala, norberaren nortasunaren araberrako da. Euskal mitologia, aski berandu ezagutu dut; liburuetan batez ere, nire inguruan ez ziren-eta asko entzuten. Lan bat egiteko Bidarraiko Harpeko Saindua hartu nuen gai moduan, eta Bidarraira joan nintzen magnetofoiarekin, bidarraitarrek eta haien zaharrek kontatutakoak jasotzeko.

Zein garrantzia du mitologiak kultura bat ezagutzeko?

Herri baten historiaren parte da: zer sinesten zuten, zein erlijio izan zuen, orduko jendeak nola pentsatzen zuten. Mitoetan errealitatea pentsatzen da; arlo asko mitoetan gogotatuak dira: gai existentzialak, izpiritualak, ekonomikoak, sozialak...

Zein ondorio atera duzu euskal mitologia ikertzetik?

Asko. Konturatu naiz euskal mitologiak baduela zerikusi handia inguruko mitologiarekin; baita ere munduan, jendearen kezka, oso antzerakoak izan direla. Besteak bezalakoak garela konturatu naiz, eta ez da berri txarra.

AEK-ko irakaslea izan zaren arren, euskaldun berria zara.

Luiandokoa izanik, ez da beste erremediorik!

Zer eman dizu euskarak?

Asko; beste mundu bat zabaldu dit, eta estetikoki hizkuntza oso ederra da. Ergatibo ezin erabilia ere eman dit! [barreak]



MAIALEN, AMAIA, IRAITZ ETA AINARA
AIN_1

"Badoa, badirau gure bigarren lan luzearekin etorri gara Durangora; momentuz gure agurra da, baina itzultzeko aukera baztertu barik. Durango plaza erraldoi bat da, euskaldun pila bat batzen den plaza, eta guretzako kalera zabaltzeko aukera bat da. Etxekoak eta lagunak ere hemen bueltan ibiltzen dira, Euskal Herria txikia delako eta hemen batzen garenok ere, txikitasun horretan txikiak garelako, eta gauza ederra da eurekin topatzea".



LUIS RUIZ DE AUSTRI
ARRASATE

"Zubian bertan geratzen bagara, ia urtero etortzen gara; derrigorrezkoa da. Aurtengo giro oso ona topatu dut. Zerbait erosi dudana? Printzipioz liburu bila etorri naiz eta momentuz begira nabil bakarrik".



ANE GARATE
ESKORIATZA

"Azkenaldian urtero etortzen naiz lagunekin eguna pasatzera. Nahiko beteta aurkitu dut; goizean, esaterako, iladak aurkitu ditugu Berri Txarrak *stand*-ean. lehengusu txikiarendako joko bat erosi dut".



FERMIN ETXEGOIEN
IDAZLEA

"Gaur [zapatua] fenomeno batzuk ikusi ditugu: musikan, Berri Txarrak disko zoragarria, baita Ruper Ordorikarena ere. Literaturan, Lander Garroren eta Unai Elorriagaren azkenak aipatuko nitzuke, beste batzuen artean".



Aurtengo 'Arrasate Hiria' Lehiaketako parte-hartzaileak. | JOSETXO ARANTZABAL

Marko Sevarlic izan da akordeoilari onena

- Bigarren sailkatu da Maria Zubimendi zumaiarra
- Gipuzkoako Lehiaketan ere gora egin du mailak

ANDER LARRAÑAGA | ARRASATE

Marko Sevarlic serbiarrak eskuratu du 22. Arrasateko Nazioarteko Akordeoi txapelketako *Arrasate Hiria* saria. Estatu mailako sariketan, senior mailan lehengoa Nerea Rodriguez izan da. Gazte mailako garailea, berriz, Marta Cubas. Haurren mailan, bestalde, Beatriz Leonardo nagusitu da.

Duda barik, Sevarlic izan da aurtengo izar handia: berak eskuratu ditu txapela, garaikurra, diploma, 3.600 euro eta datorren urterako kontzertu bira. Honetaz gainera, beste sari bat ere eman diote serbiarrari: Derrigorrezko obraren interpretazio onenaren saria, hain zuzen.

Kontuak kontu, beste behin, Arrasate distira handiko hauspoen geldiune izan da: batik bat, *Arrasate Hiria* Nazioarteko Akordeoi Lehiaketa erreferente izaten ari delako mundu mailan. Gai nontzekoak ere ezin ahaztu: Gipuzkoa Lehiaketak ere estatu osotik akordeoi-jole bikainak erakartzen ditu eta Gipuzkoa Jaialdiak akordeoia ikasten ari direnen erakusleihu bilakatu da.

Euskaldun bat podiumean

Beste behin sari nagusia atzerriara joan den arren, Euskal Herrian akordeoiaren munduan harrobi bikaina dagoela ikusi da aurtén. Izan ere, Nazioarteko Lehiaketan, bigarrenengo postua zumaiar batek eskuratu du, hementzi urteko Maria Zubimendik, hain justu.

LEHIAKETEN IRABAZLEAK

ARRASATE HIRIA

1. **Marko Sevarlic**
2. **Maria Zubimendi**
3. **Olga Morral**

GIPUZKOA LEHIAKETA

SENIORRAK

1. **Nerea Rodriguez**
2. **Léna-François Poulet**
3. **Queralt Morral**

GAZTEAK

1. **Marta Cubas**
2. **Juan Matias**
3. **Sara Perez**

HAURRAK

1. **Beatriz Leonardo**
2. **Ainhua Quintana**
3. **Juan Arenosa**

Balorazio ezin hobea

Trebezia handiko akordeoilariak etorri dira Arrasatera eta urteroko maila altua erakutsi dute. Hauspoz-eko zuzendaria den Aitor Furundarenak azaldu duenez, Nazioarteko lehiaketan, urtero legez izugarritzko maila egon da, baina, Gipuzkoa lehiaketan, aur-

ten, gainontzeko urteetan baino maila altuxeagoa nabaritu da.

Bestalde, aipatzekoa da aurtén inoiz baino jende gehiago izan dela lehiaketan: ia 400 parte-hartzaile egon dira eta horiek ere irakasle, guraso edo lagunak ekarri dituzte.

Herrira hurbiltzen

Jakina den bezala, bi zati nagusitan banatzen da asteburua: batetik, Nazioarteko Lehiaketa eta Gipuzkoa Lehiaketa eta bestetik, Gipuzkoa Jaialdia. Hauspoz-etik adierazi dutenez, azken horrekin, lehiakortasuna baztertzea gura izan dute, pedagogiari leku bat emateko halako ekin-tzatan. Herriari hurbiltzeko asmoz, jaialdiaren baitan kalejira eta zaharren egoitzako kontzertua egin dute; aurtén eguraldiak ez du lagundu eta kalejira Uarkapera eraman behar izan zuten. "Jaialdiak ematen die bizia lehiaketei eta horregatik, euria egiten badu datorren urterako B plan bat izan beharko dugu pentsatuta. Arrasate akordeoiaren ikono bilakatzen ari da lehiaketei esker eta herri bezala asko ematen digu guri. Hala ere, antolatutakoak antolatuta, herrian gehiago sartzea gurako genuke", azaldu dute Hauspoz-ekoek.

Hori horrela, domeka iluntzeko gala, sari banaketa eta Haatik dantza konpainiaren ikuskizunarekin borobildu zuten akordeoiari eskainitako asteburua Arrasaten. Datorren urtean gehiago!

25 urtetan jaietako suaren garra piztu ostean, agur esan du Txinparta taldeak

Agur kontzertua eman eta euren ibilbideko argazkiekin egindako diaporama erakutsi dute

A. L. | OÑATI

Debagoieneko erromeria talde mitikoenetariko bat bilakatu da Txinparta azken 25 urteetan jai eta ospakizun guztietako oholtzak astindu ostean. Tama-lez, Iñaki Lasaren erretiroagatik agur esan behar eta zapatuan, hori ospatzeko kontzertua eskaini zuten Lasatarrek Oñatiko gaztelekuan.

300 pertsona inguru bildu ziren kontzertuan: familia, lagun eta ezagunek ez zuten bi bider pentsatu eta dantzan girotu

zuten gaua. Ordubete pasako kontzertua eta gero, argazkiez egindako diaporama bat erakutsi zuten, taldearen 25 urteak erreparatu zituenak.

Denak hunkituta

Kontzertua eta gero lagun guztiek zoriondu zuten taldea, ikuskizun xume eta oso hunkigarria izan baitzen; emanaldi borobila izan zela eta oso pozik daudela azaldu du Mikel Lasa esku-soinu-joleak. Hala ere, agurrak beti izan ohi dira gazi-gozaok.



Txinpartako Mikel, Iñaki eta Joana Lasa, agur kontzertuan. | IMANOL SORIANO



Lagun, ezagun eta familiakoak gertu. | I. S.



Erretiroa hartuko duen Iñaki Lasa. | I. S.

Familien laguntza-sistema osoa berrikusteko premia

Aldaketa soziala dakarten ereduak mahai gainean jartzeko premia ageri da

L.Z/M.A | ARRASATE
Laguntzak eskatu dituzten familien kopuruak gora egin du bai EAEn, bai Nafarroan eta baita Ipar Euskal Herrian ere. Bada, Eusko Jaurlaritzari bukatu egin zaio lana eta familia-bizitza uztartzeko diru laguntzen poltsa; Nafarroako Gobernuak %80 moztu ditu eszedentziak edo lanaldi murrizketak hartzeko laguntzak eta Frantziako Gobernuak bi

heren murriztu du datorren urteko aurrekontuetan seme-alabengatik ematen duen laguntza. Egia Kareaga Fundazioko ikerketa zuzendari Joseba Zalakainek Arartekoarekin berriki egindako ikerketa baten ondorioztatu du laguntza-sistema errotik aldatu beharra dagoela, eta oinarritzko bi aldaketa proposatzen ditu: lehena, familiek oinarritzko diru laguntzak

jaso beharko luketela seme-alaba edukitze hutsagatik; eta bigarrena, politika sozialak jarri beharko lirartekeela haurtzarora begira. Izan ere, Europarekin alderatuz aldea handia dela azpimarratzen du Zalakain soziologoak: "Familia heztea zeregin pribatua dela pentsatu izan da hemen, eta beste leku batzuetan ez", dio.

Kontziliazio parekidea
Lana eta familia uztartzeari dago-kionez, EHUKo Psikologia Fakultateko irakasle Juana Maria Magantoren ustez, kontziliazioaren hirugarren oinarri horretan dago kontziliazio parekide baten gakoa, emakume askori, oraindik ere, bizitza pertsonala lanarekin eta familiarekin kontziliatzea "ahaztu" egiten baitzaie. Emakumezkoek, historikoki, zailtasun handiak izan dituzte bizitza familiarretik harago garatzeko: "Emakumea errudun sentitzen da lan ordaindua egin eta sozialki eraiki den espektatiba bati ezin diotelako erantzun. Ama ona izateko espektatiba hori oso zorrotza eta injustua da emakumearekiko", dio Magantok.



Emakumea berandu, etxetik lanean. | PHIL ETA PAM GRADWELL

Umeendako eta gurasoendako magia eta irudimenez betetako lekua Durangon

Saguganbara, Durangoko azokak familiei eskainitako txokoa, ekintzaz beteta gaur ere

L.Z/M.A | ARRASATE
Barikuan zabaldu zituen atak Durangoko 49. liburu eta disko Azokak eta aurten ere magia eta irudimenez betetako tokiaz disfrutatu ahal izan dute ume eta gurasoek. Berezik, haurrei zuzenduta, gazteekiko transmisioa lantzeko eta hizkuntzarekin jolasteko eremua da, aurten ere, Saguganbara.

Berbaro elkarteak antolatzen ditu txikien eta handien gune horretako ekintzak, hala nola idazleen aurkezpenak, tailerrak, ipuin kontaketa saioak... Askotariko ekintzak izan dira egubakoitzean hasi eta gaur arte; gaur, astelehena, da azken eguna.

Ekintzak, gaur
11:00etan hasita hainbat aurkezpen izango dira gaur ere. Minis Editorialak, esaterako, *Luma* liburuak aurkeztuko du; eta Irrien Lagunek, *Pupu* eta *Lore euskaraz*

jolasten delako aplikazioa. 13:00etatik aurrera ikuskizunen txanda izango da Saguganbarako areto handian. Ordu horretan eskainiko dute *Araitx*, *Ixone* eta *Unai ahateen parkean*; 15:30ean, *Ipuin Lapurra*; eta 17:00ean, *Okzitania-ko ipuin zaharrak*.



Barikuan Saguganbaran egindako ekintzetako bat. | LARRAITZ ZEBERIO

Areto txikian, berriz, hiru tailer egingo dituzte egunean zehar. 11:30ean, *Arkeologoa egun batez* tailerra egingo da, 6 eta 12 urte bitartekoei zuzenduta; eta 17:00etan zein 18:00etan, *Egunik garrantzitsuena* tailerra, 0 eta 3 urte bitarteko umeendako, Mintzola Fundazioko Begoña Gomezen eskutik. Bada, datorren urtera arte agur esango du, horrela, Saguganbarak.

Beldur Barik lehiaketako sari nagusia, Urretxu-Zumarragara

L.Z/M.A | ARRASATE
Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako 250 gaztetik gora elkartu ziren joan den zapatuan Urretxu-Zumarragan egindako Beldur Barik izeneko topaketan. Sari nagusia bertako *Panteras* lanak irabazi zuen; *Eta guk, zer* lanak eskuratu zuen lehen saria, 12 eta 17 urte bitartekoendako kategorian.

Indarkeria sexistaren kontra
Euskal Autonomia Erkidegoko instituzioek elkarlanean bultzatuta, indarkeria sexista prebenitzeko gazteei zuzendutako programa da Beldur Barik. Helburua da gazteekin batera hausnarketa eta eztabaida prozesuak sustatzea, jendarte eraldaketan

laguntzeko. Alegia, beldur bako jarrerak bultzatzea.

Jendarte eraldaketa
Beldur Barik egitasmoaren baitan jendarte eraldaketan indartzeko ekimenak bultzatzen dira, parte-hartze kolektiboa eta indarkeria sexistaren aurkako jarrera aktiboak sustatzeko asmoarekin. Alde batetik, kale ekintzak antolatuta, komiki mundiala, *flashmob*-ak edota puntu lilaren argazkia, besteak beste. Eta, bestetik, eztabaida eta gogoeta prozesuak indartzeko baliabideak sortuta: ikus-entzunezkoetan oinarritutako unitate didaktikoak, edota eraso sexistei aurre egiteko gida, besteak beste.



Panteras taldeko nesken bideoklipa. | PANTERAS

ARGITALPENA

'Augustoren botila': kontsumismoari kritika, ironiarekin

M.A. | ARRASATE
Giltza argitaletxeko *Tren urdina*: *Nire Ipuin Kutunak* bildumako hirugarren liburua da Pello Añorgaren *Augustoren botila*. Augusto da kontakizuneko protagonista. "Ibiltzen hasi zen, gustura, oso gustura gure Augusto. Eta ibili eta ibili, botila bat ikusi zuen". Horrela hasten du Añorgak kontakizuna, eta Jokin Mitxelenaren ilustrazioek laguntzen dituzte hitzok. Augustok botila erosiko du, ez egarritzeko; gero, motxila hori eramateko; ondoren, bizikleta bat azkarrago ibiltzeko bizkarra nekatu gabe... Augustoren bidaia etengabeko gehitze bat bilakatuko da, harik eta istripu baten ondorioz hasierara, sinpletasunera, itzuliko den arte.

Alferrikako kontsumismoaren kritika egiten du liburua, tonu ironiko eta umoretsua erabilia.

ERREZETA

Gazta-tarta japoniarra, umeekin egiteko modukoa

M.A. | ARRASATE
Oso oinarritzko lehengaiekin egiteko postrea proposatuko dizuegu jarraian: gazta-tarta japoniarra. Horretarako, beharko ditugu 250 gramo gazta *-Philadelphia* erakoa-, hiru arrautza, 50 mililitro esne, 80 gramo azukre, 30 gramo arto-irin, limoi erdiarekin egindako zukua eta legamia.

Labean egingo dugu tarta, Maria bainuan. 20 zentimetroko diametro dun moldea estali dugu labeko paperarekin. Bol baten, nahastuko ditugu gazta, esnea, azukrea, goringoa, arto-irina, limoi-zukua eta legamia. Irabiagailuarekin nahastuko dugu dena. Beste bol baten zuringoak elur-punturaino irabiatuko ditugu, gatz apur batekin. Bi nahasketak nahastuko ditugu eta laberako prestatutako bolean sartu. 40 minutuz egosiko dugu labean, 180 graduan. Egin ostean, hozten utziko dugu, 10 minutuz.



1. ETXEBIZITZAK

102. EROSI

Bergara. Bergara aldean baserri bat erosiko nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 602 51 0771

103. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Bi logelako etxebizitza ematen da errentan Santakurtz kalean. Prezio onean. 943 79 63 68 edo 675 00 9577

Aretxabaleta. Hiru logela, bi bainugela, sukalde-jangela eta egongela. Hirugarren solairua, igogailuarekin. Ia berria. Informazio gehiago www.euskalnet.net/aguirre helbidean edo telefono honetan: 630 60 4775

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan Ferrerías kalean. Bi logela, sukalde-egongela eta komuna. igogailua eta berokuntza. PVC-zko leihoak. Hilean 500 euro eta komunitaterako 30 euro. Bi hileko fidantza eskatuko da. Deitu telefono zenbaki honetara: 652 76 21 63

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan. Egoera onean. Hiru logela, egongela, sukaldea, bi komun eta garaje-trastelekua. Berokuntza eta ur bero zentrala. Bizkaia Etorbidea Iean. 645 73 29 66 edo 943 76 03 31 (Jose Manuel)

Bergara. 50 metro koadroko apartamentua ematen da errentan Zubietza kalean. Eros-teko aukera ere bai, 48.000 euroan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 679 45 57 62

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan alde zaharrean. Guztiz berritua. Bi logela. Berokuntzarekin eta altzariz hornitua. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 629 38 29 96

Elgeta. Etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, jangela-egongela, sukalde hornitua eta bi bainugela. Berokuntza eta igogailua. Egoera oso onean, eraikin nahiko berria. 606 08 39 92 edo 679 56 8478

Eskoriatza. Etxebizitza berria ematen da errentan. Erdialdean dago. Hiru logela eta bi bainugela. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 652 70 08 00

Eskoriatza. Goiko Kalean etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela eta bi bainugela. Jantzitza. Berokuntza eta igogailuarekin. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 687 78 86 98

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan, gutxienez bi logelakoa. Hilean gehienez 500 euro ordain ditzaket. Interesatuok deitu telefono honetara: 605 68 18 49

Baserri bila Debagoienean. Bikote arrasatearra Debagoienean edo inguruan errentan hartzeko baserri bila dabil. 680 34 29 60 edo 699 28 99 06

Bergara. Etxebizitza errentan hartu nahi dut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 667 36 09 39

Oñati. Hiru logelako etxebizitza bila nabil, deitu zenbaki honetara. Eskerrik asko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 658 86 98 38

Oñati. Oñatiko neska arduratsu eta garbia naiz. Logela bat edo biko etxebizitza hartu nahiko nuke errentan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 655 71 15 15

105. ETXEA OSATU

Bergara. Logela ematen da errentan, sukaldea eta komuna erabiltzeko aukerarekin. Leku lasaian dago. Wifiarekin. Hilean 250 euro, gastuak barne. Kontratu barik. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 637 18 07 23

2. GARAJEAK

203. ERRENTAN EMAN

Bergara. Garaje itxia, 19 metro koadrokoa, ematen da errentan Burdinaten. 943 76 06 60 edo Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 689 36 86 42

4. LANA

402. ESKAERAK

Arrasate edo Aretxabaleta. Garbitasunean edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, gauetan zein asteburutan. Eskarmentua dut eta lege paperak ere bai. Interesatuok deitu telefono honetara: 618 14 71 34

Arrasate. Astean zehar ume eta nagusiak zaindu edo denetarik garbiketakegingo nituzke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 603 33 50 64

Arrasate. Eskarmentu handiko neska goizetan nagusiak zaintzeko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 634 12 56 87

Arrasate. Sukalde laguntzaile, garbiketan edota lisatzen lan egingo nuke. Egunez. Interesatuok deitu telefono honetara: 632 23 46 19

Bergara edo inguruak. Haur Hezkuntza ikasten dabilen 24 urteko neska euskalduna naiz, Bergarakoa, eta haurrak zainduko nituzke arratsaldetan. Esperientzia handia daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 680 17 33 61

Bergara. 24 urteko neska arduratsua pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Baitajalaria prestatu, etxea garbitu eta ospitaleko egonaldiakegiteko ere. Esperientzia dut eta erizaintza ikasketak eginda. Bergaran zein Arrasaten edo Antzuolan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 618 92 40 53

Bergara. Emakume euskalduna, esperientziaduna, pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 690 05 79 07

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.eus/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

2. GARAJEAK

201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

3. LOKALAK

301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

4. LANA

401. Eskaintzak
402. Eskaearak
403. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA

601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
603. Konpondu
604. Bestelakoak

7. ANIMALIAK

701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK

801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805. Trukatu
806. Galdut
807. Aurkitu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK

901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

10. RELAX

Debagoiena. Emakume euskalduna lanerako gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 606 50 25 67

Debagoiena. Lan bila nabil: nagusiak zaintzen, garbitasunean edota sukalde laguntzaile. 691 03 25 02 edo 943 54 09 41

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzeko edo garbiketakegiteko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 691 16 96 43

Debagoiena. Mutila lanerako gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Eskarmentua dut nagusiak zaintzen eta garbitasunean. Autorik ez dut. Berehala hasteko moduan. Interesatuok deitu telefono honetara: 603 63 21 99

Debagoiena. Mutila lanerako gertu. Garbiketan, zerbitzari eta banatzaile moduan lan egin izan dut. Berehala hasteko gertu nengoke. Gida-baimena daukat. 646 72 08 24

Debagoiena. Mutila lanerako gertu. Gidari, sukalde laguntzaile, margotzen, erakuntzan edota nagusiak zaintzen aritutakoa naiz. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 636 60 48 51

Debagoiena. Mutila nagusiak zaindu edota garbitasun lanakegiteko gertu. Gidabaimena eta autoa dauzkatz. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 687 08 37 16

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen lan egingo nuke. Ingrid. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 649 14 82 61

Debagoiena. Nagusiak zaintzen edo etxe, taberna eta abarrak garbitzen lan egingo nuke. Baita orduka ere. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 606 64 16 09

Debagoiena. Neska arduratsu eta esperientziaduna lanerako gertu. Umeak zaindu, orduka garbiketakegin edota nagusiak zaindu eta paseoa abarrak garbitzen lan egingo nuke. Baita orduka ere. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 695 73 87 95

Debagoiena. Neska arduratsua lanerako gertu. Geriatria ikasketan ditut. Nagusiak zaindu edota garbitasun lanakegingo nituzke. Egun osoz, erdiz zein orduka. 656 85 66 02

Debagoiena. Neska arduratsua nagusiak zaindu edo denetarik garbiketakegiteko gertu. Orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izanda. Interesatuok deitu telefono honetara: 603 34 58 20

Debagoiena. Neska arduratsua, oinarritzko geriatria eta sukaldaritza ikasketaduna, nagusiak zaindu edo denetarik garbiketakegiteko gertu. Orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izanda. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 615 06 28 04

Debagoiena. Neska arduratsua, euskalduna, umeak eta nagusiak zaintzeko gertu.

Esperientzia daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 634 42 67 04

Debagoiena. Neska espainiarra nagusiak zaindu eta etxeak garbitzeko gertu. Egun guztian zehar. Esperientzia dut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 633 84 65 30

Debagoiena. Neska euskalduna lanerako gertu: etxeako lanak, nagusiak zaindu, gaua pasatu ospitalean eta abar. Esperientzia eta informake ditut. Autoa ere bai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 671 35 22 60

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaindu edo garbiketakegiteko. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo baita orduka ere. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 602 15 56 95

Debagoiena. Neska lanerako gertu. Etxean bertan bizi izatenedo bestela. Eskarmentua dut nagusiak zaintzen eta garbitasunean. Autorik ez dut. Berehala hasteko moduan. Deitu telefono zenbaki honetara: 603 63 31 55 edo 677 83 37 23

Debagoiena. Pertsonak zaintzen, garbiketan edota sukalde laguntzaile moduan lan egingo nuke. Hotelak garbitzen lan egindakoa naiz. Autoa daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 636 11 23 40

Eskoriatza, Aretxabaleta edo Arrasate. Emakume euskalduna goizetan orduka etxeako lanakegiteko gertu. Deitu telefono zenbaki honetara: 688 81 61 79 edo 943 77 00 26

Sukaldaria. Esperientziadun sukaldaria lanerako gertu: menuak, pintxoak, ogitarteak eta abar egiten urtetan aritutakoa. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 666 83 21 95

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Oñati. Irakaslea behar da bi neskatilari eskola partikularrak emateko. DBH 4. maila eta Batxilergoko lehenengo mailarako. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 627 91 23 21 (Mila)

6. MOTORRA

602. EROSI

Mendirako motorra. Mendirako motorra erosiko nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 656 75 76 98

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Katu ar heldua. 3 urteko katu arrarentzat etxe berri baten bila nabil, zaindu ezin dudalako. Esterilizatuta dago eta behar dituen txertoak hartuta ditu. Oso jostaria da. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 653 71 78 82

Txakurkumeak. Txakurkumeak ematen dira opari. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 677 54 05 96

Txakurra opari. Pomerania arrazako txakurra, lau urtekoa, ematen da opari. Alergia arrazoiak direla-eta, ezin dugu zaindu. Oso maitagarria da eta ume artean hazitakoa. Txertoak eta txipa dauzka. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 625 70 38 92

704. BESTELAKOAK

Txoriak. Txoriak badituzu emateko, nik jasoko nituzke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 637 18 07 23

8. DENETARIK

802. EROSI

Realeko kamiseta. 6-8 neurriko kamiseta erosiko nuke. Berdin da zein denboralditakoa den. Interesatuok idatzi maryseal15@hotmail.com helbidera edo deitu edo whatsapp bidali zenbaki honetara: 653 72 22 54

804. HARTU

Bizikletak. Botatzeko dagoen edo erabiltzen ez duzun bizikleta baduzu, nik jasoko nuke. Berdin da zein egoeratan dagoen. Iñaki. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 699 06 23 95

805. TRUKATU

Korrika egiteko zinta. Oinez ibiltzeko edo korrika egiteko zinta trukatu nuke spinneko bizikleta baten ordez. Zinta Domios TC270 modeloa da. 13 km orduko hartzen ditu eta plataforma aldanen ere ipin daiteke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 665 75 88 52

806. GALDU

Dirua Arrasate. Abenduaren Iean, goizeko 11:20-11:30ak artean, dirua galdu dut Zarugaldetik Garibaira bidean. Ikaslea naiz eta garrantzitsua da niretzat diru hori berreskuratzea. Aurkitu baduzu, deitu zenbaki honetara, mesedez: 648 51 16 17

807. AURKITU

Kartera Antzuolan. Dirua bakarrik duen kartera topatu dute Antzuolan. Ez dauka dokumentaziorik. Galdetu udaletxean. 943 76 62 46

Pen-drivea Aretxabaleta. Azaroaren 20an, Durana kalean pen-drive bat aurkitu genuen. Informazio gehiagorako deitu zenbaki honetara: 600 05 19 00

9. HARREMANAK

904. BESTELAKOAK

Neska bila. 40-45 urte bitarteko neska ezkongabea ezagutu nahiko nuke. Deitu telefono zenbaki hauetara: 615 75 09 90. 615 75 09 90

ETXKO SUKALDERAINO

Jose Javier Barkero | Aretxabaletako alebin mailakoen entrenatzailea

- 17 urte zituenetik bizi da etxetik kanpo; beraz, ondo moldatzen da sukaldean
- Pertsona normaltzat du bere burua; lagun ona, familiarra eta bidaiaria

"Kideekin entrenatzea eta haiekin sortzen den harremana da politena"

ANDER LARRAÑAGA | ARETXABALETA

Gaur egun Aretxabaletako alebin mailako mutikoak dabil entrenatzen Jose Javier Barkero (Aretxabaleta, 1979). Urte askoan hainbat futbol taldetan baloiaren atzetik ibili ostean, jaioterrira bueltatu zen irailean.

Zelakoa da Jose Javier?

Oso pertsona normala, lasaia, lagunena laguna, oso familiarra eta gustu normalak dituena. Bidaia-tzea, irakurtzea eta futboleko jokatzea gustatzen zait.

Nolako harremana daukazu sukaldearekin?

17 urterekin bakarrik bizi nintzen; beraz, sukaldari moduan asko ikasi beharra izan dut. Frantziara joan nintzenean, anaia eta biok bakarrik geunden, eta amaren errezetekin joan ginen moldatzen. Apurka-apurka gustuko dudana mundu bat bilakatu da.

Zein da zure espezialitatea?

Ez dut plater izarrik, baina lapi-kokoak ederto irteten zaizkit.

Zertara gonbidatuko zenuke zure lagunik onena?

Etxean, entsalada on bat, txan-pinoi-nahaskia eta kroketa egingo nituzke hasteko. Bigarren-rako, arrain edo okela on bat.

Zeinekin konpartituko zenuke gus-tura mahaia?

Ziurrenik, gauzak komunean ditudan pertsona batekin. Ezingo nuke egon atsegin ez dudana norbaitekin. Konfiantza apur bat izatea ere garrantzitsua da.

Zein izan daiteke futbolari baten menua edo dieta?

Hasteko, entsalada, pasta edo arroza; bigarren-rako, arraina edo oilasko-paparra.

Zer gustatzen zaizu gehien eta zer gutxien futboletik?

AUKERAN...



Lehen platera: Dilistak (lentejak).

Bigarrena: Patata-tortilla.

Postrea: Marrubiak esne-gainarekin.

Edatekoa: Garagardo freskoa.

Gehien, egunerokoa. Azken baten, politena da kideekin entrenatzea eta haiekin harremana izatea. Futbola hori da: igandeetan lehia-tzea, baina astean zehar pasatzen diren gauza asko dira hoberenak niretako. Eta gutxien, mundu horretan mugitzen den jendea. Azkenean, futbola oso inper-tonala da eta merezi ez duten per-sona asko ezagutzen dira.

Zergatik futbolari?

Betidanik gustatu izan zaidalako. Txikitan, aita sartu gintuen anaia eta biok mundu horretan. Apurka mailaz igotzen joan nintzen eta nire ametsa bete dut.

Futbolari ez bazina...

Irakasle; betidanik pentsatu izan dut. Orain, haurrak entrenatzen nabil, eta asko gustatu zait mun-du hori.

Futbolari ala entrenatzaile?

Bi paperak politikak dira, baina futboleko jokatzeak gehiago po-ztu izan nau beti. Ondo dago entre-natzea eta umeei erakustea, bai-na jokatzearekin ez dauka zeri-kusirik.

Ze kolore eramango zenituzke gus-tura?

Txuri-urdina, duda barik. Beti-danik izan naiz Realekoa.

Futbol-zelai bat.

Ciudad de Valenciakoa, esango



Jose Javier Barkero, alebinen entrenamendu batean. | JAGOBA DOMINGO

"Ez naiz ezertaz damutzen, gauzak ondo pentsatzen ditut-eta"

nuke, baina Anoeta beti izango dut bihotzean.

Milaka anekdota izango dituzu.

Beti kontatzen dut hau: 20 urte-ekin, munduko txapelketa joka-tu nuenean, Nigerian, hotel kax-kar batera joan ginen eta jateko espageti jangaitz batzuk atera zizkiguten, eltxo eta guzti. Hurrengo egunean hotelez aldatu genuen eta han ondo jan genuen, baina egun bat pasatu genuen jan barik.

Ettxera iritsi, sofan eseri eta...

Telebista apur bat ikusi, irakurri edo musika entzun ohi dut.

Zertaz damu zara?

Ez naiz ezertaz damutzen. Gauzak ondo pentsatzen dituen pertsona naiz.

Zerk beldurtzen zaitu?

Gauza askok. Gehienbat, maite ditudanei zerbait txarra gerta-tzeak.

Nora egingo zenuke ospa gustura?

Bidaia-tzea gustuko dut. Adibidez, Australiara edo Ameriketako Estatu Batuetara joango nintza-teke gustura.

Zein aholku konpartituko zenuke?


Niri esan zidaten gauza bat, eta asko lagundu didana: ez etsi, lasai egon, gauzak, azkenean, indarrez eta kemenez lortzen dira.

PATRIZIAREN GUTIZIA



Patrizia Vitelli

PASTA, ARRABBIATA SALTSAREKIN



Pasta, arrabbiata-saltsarekin eta gazta pamesanoarekin. | THE COOK ROCKER

Fitxa

- Denbora: 70 minutu.
- Zailtasuna: ★★★★★

OSAGAIAK

- Pasta, 225 g.
- Zuritutako eta kontserban sartutako tomate osoak, 600 g.
- Bi piperbeltz gorri.
- Hiru berakatz-buru.

Dagoeneko probatu ditut pre-sak, sandwich espresak eta bizkor egindako entsaladak. Berehala joaten diren aurrez kozi-natutakoak, izoztutakoak eta arroz iheskorrak.

Gaurkoan, beraz, eta nahiz eta presarekin segi (gure gizartearen kalamitateetako bat), su txikitan jarduteko gogoak daukat.

Hala, erretzen ez duten arren, oraindik bero-bero dauden errau-tsetan *txup-txup* egiten dauzkat tomateak, koipeztatutako zartagin batean. Proposatuko behar dizuedan pasta-errezetaren saltsarako era-biliko ditudanak, hain zuzen.

Oso-oso mina

Hori bai, arrabbiata izena duen saltsa erromatar hori oso mina dela abisatu behar dizuet beste ezer baino lehen. Hortik datorkio, hain justu, izena. *Koleratsua, amo-rruzkoa* esan gura du *arrabbiato* berba italiarrak.

Txile piper gorria da saltsa hori egiteko erabiltzen den osa-gaietako bat, eta horrek ematen dio, hain justu, mintasuna. Ame-riketan du jatorria piper mota

horrek. J.A. gutxienez 7.500 urte lehenago dagoeneko erabiltzen zen. Europan laster hedatu zen haren erabilera, batez ere, heste-beteak egiteko.

Edozein modutan, gure etxean txiki-txikia nintzenetik prestatu izan da pasta saltsa horrekin.

Eta egiteko benetan erraza dela nabarmenduko nuke.

Shazam, Über eta Timehop: urteko Android aplikazioak

- Googlek 2014ko aplikaziorik nabarmenenen zerrenda egin du
- Erabiltzaileen balorazioak eta errelebantzia hartu dituzte aintzat

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Abenduarekin batera iritsi da garaia urteko onenaren zerrendak egiten hasteko eta Googlek egin du berea, 2014ean ateratako aplikaziorik gomendagarienak aipatuz. Bere denda digitaleko *app*-ak

hartu eta nabarmenen zerrenda osatu dute, errelebantziaren eta erabiltzaileen puntuazioaren arabera sailkatuta. Guztira 60 aplikazio aukeratu dituzte baina jolasak ez dituzte kontuak hartu, soilik zerbitzuren bat ematen

duten aplikazioak. Lekurik nabarmenena hiru aplikazio ezagunek hartu dute: Shazam, Timehop eta Über-ek. Abestiak entzun eta atzematen dituen Shazam aplikazioa da zerrendako nabarmenena; bai, erabiltzaileen balorazioei begiratuta, baita, deskarga kopuruari dagokionez. Harekin batera auto-bidaia partekatzeke Über sare soziala, aurtan polemika iturri izan dena, eta Timehop aplikazioak daude. Azken horrek erabiltzaileen sare sozialetan atzerako-bidaia egiten du.

Hedabideak nagusi

Deigarria da hedabideen aplikazioek zerrendan duten leku nabarmena ere, nahiko goian kokatzen dira-eta CNN, New York Times, Yahoo! News eta BuzzFeed albiste zerbitzuen aplikazioak.

Gaur egun, 2008an abiatu zutenetik, 675.000 aplikazio daude Google Playn eta 10.000 milioi deskarga baino gehiago egon dira denda digitala zabaldu zuten egunetik hasita.



FES Watch erlojuaren garapen batzuk. | SONY

Tinta elektronikodun erlojua egin du Sonyk, erdi ezkutuan, ezustean

J.B. | ARRASATE

FES Watch delako erlojua aurkeztu berri du Sonyk. Berezia da, *ePaper* paper elektronikoa-ekin dago egina, Amazonek bere Kindle irakurgailuetarako erabiltzen duen hori bera. Produktu berriak ez du merkatutzeko data zehatzik oraindik, baina Sonyk jada iragarri ditu asmo berriak. Proiektua, gainera, erdi-ezkutuan garatu dute japoniarrek, *crowdfunding*-eko plataforma baten proiektua aurkeztuta, diotenez, gailuaren benetako eskaria eta ezar lekioken prezioa ezagutu gura zutelako, Sonyrena dela esan aurretik. Sekulako harrera izan du

eta hastekoak beharrezkoak ziren 17.000 dolarrek hiru asteren buruan eskuratu zituzten.

Ez 'smart', bai diseinuzko

Erlojua ez da *smart* edo adimenduna, baina tinta elektronikoko eskaintzen dituen aukerez oso modu deigarrian baliatzen da: kolore aldaketak, pantaila itxura ezberdinak, informazioa erakusteko modu asko eta, diseinu aldetik, ia mugarik gabeko aukerak. Sonytik diote teknologia hori etorkizuneko erlojuetan erabiliko dutela. *ePaper*-ak, gainera, 60 egun iraun dezake karga bakarrarekin eta oso moldagarria da.



Über aplikazioaren promozio irudi bat. | ÜBER APP

Firefox nabigatzailearen iOSerako bertsioa egongo da etorkizunean

J.B. | ARRASATE

Firefoxek iragarri du iOSen etorkizuneko bertsioetan egongo dela nabigatzaile ezaguna. Sistema eragilean nabigatzaileen nagusitza ia erabatekoa du etxeko Safari nabigatzaileak, Chromeren zelanbaiteko hedapenaren neurria, gorabehera.

Dispositibo mugikorretarako nabigatzaileen eskaintza zabala da orokorrean: Safari, Android Browser, Chrome, Internet Explorer, Opera Mini... Applen, baina, iOSen nabigazioaren %50etik gora egiten da berezko nabigatzailearen bidez; Safariarekin, alegia. Arreta bere-

zia jarri die Applek etxeko nabigatzailearen eguneraketari eta hobekuntzei. Horri esker, nagusitza erabatekoa dauka bere inguruan.

Berezko aukera

Firefoxek, kasu horretan, alde duen ezaugarria da mahaigaineko bertsioa darabilen erabiltzaile kopuru handia. Pentsatzekoa da mahaigainekoaren erabiltzaileek telefonorako bertsioa ere instalatuko dutela, sinkronizaziorako aukera eta datuak partekatzeke aukera izango dutelako. Bestelako garapenetan egon liteke gakoa.

'Acompli' erosita, Outlook posta elektronikoa kudeatzailea eraldatzekotan da Microsoft

J.B. | ARRASATE

Microsoftek estrategia aldaketa betean jarraitzen du Satya Nadellaren gidaritzapean. Produktu izarretako bati, Outlook posta kudeatzaileari, eraldaketa egingo dio. *Acompli* posta elektronikoa aplikazioa erosi berritan, norabide aldaketa are agerikoagoa da. Bada, iPhone-rako garatu eta Androidera

egokitutako aplikazioa da *Acompli* eta ematen du estilo horretara bideratu gura dituztela etorkizuneko urratsak. Esku-keinuen bitartez kudeatzen da posta *Acompli*-n. Aplikazioa eskuratuta diseinu eta interfazea Outlooken ezartzea da orain asmoa eta horrek aldaketa handiak ekarriko dizkio Microsoften produktu izarretako horri.



iPod Classic modeloa. | CONFIDENTIAL

iPod-etako abestiak ezabatzearen talde-salaketa aurkeztu diote Appleri

J.B. | ARRASATE

iPod-etan iTunes zerbitzutik jaitsi ez den musika ezabatzeagatik salatu dute Apple. 2007 eta 2009. urteen artean gertatu zen, hainbat erabiltzailek salatu dutenaren arabera, eta Kaliforniako Gorte Federalak tramitera onartu du Appleren aurkako talde-salaketa. Diotenez, era legalean baina lehia-ko zerbitzu batetik jaitzitako MP3 fitxategiak desagerrarazi zituen Applek garai hartan erabiltzaileei jakinarazi barik. Salatzaileek garai hartan iPoden jabe ziren erabiltzaileen edukia ezabatzeagatik 300 milioi euroko kalte-ordaina eskatzen dute. Gainera, monopolioaren aurka Amerike-

tako Estatu Batuetan gaur egun indarrean den legearen arabera, hirukoiztera hel liteke zigor ekonomikoa prozesua Appleren aurkako epai batek ebatziko balu.

Appleren defentsa

Enpresak, berriz, ez du itxoin erantzuna emateko, eta, hain zuzen, esan dute "manipulaziorik ez", "zilegi" zitzaizkien segurtasun neurriak hartu zituztela eta erabiltzaileei argibiderik ez zizkietela eman, "gehiago nahas ez zitezen". Gehitu dute, halaber, ezabatutako edukia "abesti *pirata*" zirela, musika erreproduzitzailerik arriskuan jartzen zuena, hain zuzen ere.

Umeentzako Youtuberaren eta Chromeren bertsioak, aurki

J.B. | ARRASATE

Aspalditik dabil Google bere produktuen haurrentzako bertsioetan lanean. Orain dela hilabete batzuk, bilatzaile nagusiaren haurrentzako bertsioa kaleratu zuen, *beta*-n printzipioz, eta orduan ere gainerako produktuen egokitzapenak aurkeztuko zituela iragarri zuen. Chromeren eta Youtuberaren bertsio berriak kaleratuko dituzte, txikiene-nak babesteko segurtasun neurriekin eta gurasoek modu errazean kontrola ditzaten seme-alabek kontsumitzen dituzten edukia.

Nork bere ezarpenak

Gurasoek eurek erabakitako ezarpenak konfiguratu ahaliko dizkiete Youtuberaren eta Chromeren bertsio egokituak. Googlek barik, gurasoek berak erabakiko du zeintzuk eduki eta ezarpen baimendu, eta guztia monitorizatu eta kontrolatzeko aukera izango du. Googletik azaldu dutenez, behar horretaz jabetu dira, batez ere, langileak seme-alabak izaten hasi direnean.

TELE-BEGI

OIHAN VEGA



Futbolaren alde iluna

Telebista futbolarekin batzen bada, erromatar garaiko zirkuarekin bezala, herria baretzeko droga eraginkorra lortzen dute boterean daudenek gizartea baretzeko. Baina batzuetan, kale egiten du.

Izan ere, Atletiko Madril-eko eta Deporreko ultren arteko borroka basatiak telebistetako kirol tarte guztietako protagonismoa bereganatu du. Beste heriotza bat. Beste behin, Atletiko Madril-eko ultren eskutik, Realeko zale zen Aitor Zabaleta erail zuten talde berekoak –antza.

Argi dago inork ez duela talde ultrarik behar. Inork ez ditu iraintzen dituzten haien abestirik eta indarke-riarik merezi. Ezta gure talde ultrak ere!

Tamalez guk ere pairatzen baititugu euskal taldeetan ultra batzuen eragina, politika eta kirola nahasten tematzen diren astunak; gogoan izan duela bi urte Euskal Selektzioak Anoetan jokaturako partidari gertatutakoa: bengalak jaurtik zituzten zelaira. Lotsagarria.

Real Madril eta Bartzelona bezalako talde handiek ausardia izan zuten euren estadioetara ultra guztiei sarre- ra debekatzeko. Gainontzeko klubak (gureak barne) noizko?

ASTELEHENA				
GOIENA TELEBISTA				
ASTELEHENA, 8	MARTITZENA, 9	EGUAZTENA, 10	EGUENA, 11	EGUBAKOITZA, 12
				
'Azokan gaur'	Eraikin historikoa	Sare sozialak	Kultura kontuak	Dekorazio tartea
Durangoko Azokako azken egunean, bertan egongo diren ekitaldiak jasoko dira, goizetik, saioan. 10:30	Mireia Bikuñaren eskutik, Arrasateko eraikin historiko bat ezagutuko da, martitzenero moduan. 20:00	MUko irakasle Amaia Pavonek sare soziale-tan gertatzen ari dena kontatuko du saio horretan. 20:00	Asteburuari begira jarriko da Imanol Gallego kazetaria eta kultura proposamen bat egingo du. 20:00	Txomin Madina aurkezleak gidatuta, dekorazio kontuak izango dira berbetarako gai. 20:00
10:30 Azokan gaur	12:00 Debagoiena zuzenean	12:00 Debagoiena zuzenean	12:00 Debagoiena zuzenean	12:00 Debagoiena zuzenean
12:20 Kontzertua	12:30 Ikusi irratia	12:30 Bertso saioa	12:30 Gipuzkoa pedalka	12:30 Amaia DJ
12:30 Azokan gaur	13:25 Zorion Agurrak	13:55 Zorion Agurrak	13:00 Idemtitateak	13:00 Kontzertua: Folklore II
13:30 Tribuaren berbak	14:00 Debagoiena zuzenean	14:00 Debagoiena zuzenean	13:40 Ikusmira	13:55 Zorion agurrak
14:30 Turnatxak	14:30 Berriak	14:30 Berriak	13:55 Zorion Agurrak	14:00 Debagoiena zuzenean
15:00 Kontzertua	15:00 Kulturizketak	15:00 Sasoi betean	14:00 Debagoiena zuzenean	14:30 Berriak
15:30 Ikuskizuna: Ipuin laburrak	15:30 Onein	15:30 Onein	14:30 Berriak	15:00 Amaia DJ
16:00 Landakoenea	15:55 Zorion Agurrak	16:00 Debagoiena zuzenean	15:00 Bertso saioa	15:30 Onein
17:00 Ikuskizuna: Okzitaniako ipuin zaharrak	16:00 Debagoiena zuzenean	16:30 Berriak	16:00 Debagoiena zuzenean	16:00 Debagoiena zuzenean
17:15 Amaia DJ	16:30 Berriak	17:00 Durangoko azoka	16:30 Berriak	16:30 Berriak
18:00 Azokan gaur	17:00 Sasoi betean	17:30 Kontzertua	17:00 Durangoko azoka	17:00 Gipuzkoa Pedalka
19:00 Kontzertua	18:25 Zorion Agurrak	18:25 Zorion Agurrak	17:30 Sasoi betean	17:30 Idemtitateak: Lan merkatua
20:00 Bertso saioa	18:30 Berriak	18:30 Berriak	18:00 Kulturizketak	18:10 Ikusmira: Antzarraren bidea
21:10 Debagoiena zuzenean	19:00 Ikusi irratia	19:00 Ikusmira	18:25 Zorion Agurrak	18:25 Zorion agurrak
22:10 Kulturizketak	20:00 Debagoiena zuzenean	19:15 Idemtitateak	18:30 Berriak	18:30 Berriak
22:35 Amaia DJ	20:30 Berriak	19:55 Zorion Agurrak	19:00 Sasoi betean	19:00 Ur eta lur
23:00 Sasoi betean	21:00 Debagoiena zuzenean	20:00 Debagoiena zuzenean	19:30 Gipuzkoa pedalka	19:30 Amaia DJ
23:30 Debagoiena zuzenean	21:30 Berriak	20:30 Berriak	20:00 Debagoiena zuzenean	20:00 Debagoiena zuzenean
	22:00 Durangoko azoka	21:00 Debagoiena zuzenean	20:30 Berriak	20:30 Berriak
	22:30 Debagoiena zuzenean	21:30 Berriak	21:00 Debagoiena zuzenean	21:00 Debagoiena zuzenean
	23:00 Berriak	22:00 Gipuzkoa pedalka	21:30 Berriak	21:30 Berriak
	23:30 Durangoko azoka	22:30 Debagoiena zuzenean	22:00 Amaia DJ	22:00 Kulturizketak
	00:00 Debagoiena zuzenean	23:00 Berriak	22:30 Debagoiena zuzenean	22:30 Debagoiena zuzenean
	00:30 Berriak	23:30 Gipuzkoa pedalka	23:00 Berriak	23:00 Berriak
		00:00 Debagoiena zuzenean	23:30 Gipuzkoa pedalka	23:30 Amaia DJ
		00:30 Berriak	00:00 Debagoiena zuzenean	00:00 Debagoiena zuzenean
			00:30 Berriak	00:30 Berriak

Berriketan taldearen ikuskizunerako sarrerak zozketan

Kooltur ostegunak egitasmoa-ren baitan, egunean ikuskizuna eskainiko du Berriketan taldeak Arrasateko gaztetxean, 22:00etan. Bertara joateko sarrerak zozketatuko dira eta parte hartzeko 943-25 05 05era deitu edo irratia@goiena.com-era idatzi beharko da.

Doke antzerki taldekoei elkarrizketa, 'Igo autobusera!'-n

Galderak ikuskizuna eskainiko dute Doke antzerki taldekoek hilaren 12an eta 13an, 20:00etan, Amaia antzokian, eta bertako protagonistak elkarrizketatuko dituzte *Igo autobusera!-n*. Taldearen hamargarren urteurrenaz ere hitz egingo dute irratsaioan.

Gaur, astelehena, ez da 'Igo autobusera!' irratsaiorik egongo

Gaur, astelehena, jaieguna dela-eta, *Igo autobusera!* irratsaiorik ez da egongo Arrasate Irratian. Hala ere, bihar, martitzena, ohiko programazioa itzuliko da Arrasate Irratia eta 10:00etatik aurrera entzun ahal izango da *Igo autobusera!* irratsaioa, 107.7ko uhinetan.

Gabonetan 'Amaia DJ' saio berezia eskainiko dute euskal kantuen bideoklipekin

Aurten ekoiztutako euskal bideoklip gustukoenak eskatu ahal izango dira

A.T. | ARRASATE

Ikus-entzuleen parte-hartzearekin egindako saioa da *Amaia DJ*. Gazteek Whatsapp edo sare soziale- n bitartez eskatzen dituzte gus- tuko kantuak, eta horien bideo- klipak jartzen dira saioan. Gabo- netarako saio berezi bat prestatzen ari dira orain, eta, horretarako, ikus-entzuleei animatu zaie aur- ten ekoiztutako euskal taldeen gustuko bideoklipen eskariak egiteko.

Saioan parte hartzeko moduak
Hiru bide daude saioan parte hartzeko: Whatsapp mezuak bidal daitezke 688 69 00 17 telefono zen- bakira, edo, bestela, Twitterren [@amaiaadj](https://twitter.com/amaiaadj) helbidera edo Tuentin *DJ Amaia Txintxurreta*-ra idatzi behar da.



Amaia Txintxurreta, aurkezlea. | GOIENA

Bideoklip ugari ekoiztu dituzte aurten ere euskal taldeek, eta, euskal kultura sustatzeko helbu- ruarekin, 2014. urteko euskal

bideoklipik onenak jasoko dira Gabonetako saio berezian.

Animatu eta bidali zuen kan- tu eskaera!

Jarraitu zuzenean Durangoko Azokan gaur gertatzen den guztia

10:30etik 20:00etara azokan gertatzen dena erakutsiko da Goiena telebistaren bitartez

A.T. | ARRASATE

Egubakoitzean zabaldu zituen ateak kulturaren plaza den Durangoko Azokak. Orduetik hona, Azoka Telebistak jasotzen ditu Durangon egunez egun gertatzen joan dena, eta Goiena telebistaren bitartez jarraitu ahal izan da han gertatu dena zuzen-zuzenean.

Gaur, astelehena, itxiko ditu ateak azokak, baina zabalik dagoen bitartean azokaren lau- garren egunaren jarraipena egingo da telebistan.

Hainbat programa

Azokan gaur magazinak eman- go dio hasiera egunari (10:30), azokako hainbat kontzertu eta ikuskizun eskainiko dira horren ostean, *Amaia DJ* saioan (17:15)



Durangoko Azoka. | GOIENA

euskal musikariak elkarrizke- tatu eta haien bideoklip berrie- nak aurkeztuko dira eta arra- tsaldeko *Azokan gaur* magazi- nean eguna borobilduko da. Azokako azken kontzertuak ere ikusi ahal izango dira.

ZORION AGURRAK



ARETXABALETA
Danel eta Oxel Zubillaga Olabe
Abenduaren 10ean, 6 urte. Zorionak etxeko danon partetik eta ondo-ondo pasatu!



OÑATI
Enaitz Ugarte Elorza
Abenduaren 10ean, 11 urte. Zorionak! Egun ona pasatu eta muxu pila bat, familiakoen partetik.



ARRASATE
Luken eta Uxue Urrutia Abarategi
Abenduaren 8an, 8 urte. Zorionak, bikote! Ondo pasatu zuen urtebetetzea eta txokolatada eder bateaz ospatuko dugu. Familiaren, kuadrillaren eta lagun guztien partetik.



OÑATI
Aloña Axpe Elkoroiribe
Abenduaren 7an, 5 urte. Zorionak, *guapetona*. Muxu handi bat etxekoan partetik eta ondo pasatu zure urtebetetze eguna.



ESKORIATZA
Aner Ortiz Esnaola
Abenduaren 7an, 3 urte. Zorionak, Aner! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean, amaxoren, aitaoren eta bereziki Aimarren partetik. Txokolatezko muxuak. Mua!



ARAMAIO
Eñaut Garai Gutierrez
Abenduaren 7an, 5 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxeko danon partetik!



ARRASATE
Maria Aranburu
Abenduaren 6an, 18 urte. Zorionak zure unibertsitateko lagun partetik. Primerako eguna pasatu eta jakin madalenatxo batzuen zain garela. 18 patxo erraldoi Arrasateruntz!



BERGARA
Aimar Anakabe Iturbe
Abenduaren 6an, 5 urte. Zorionak, maittia! Patxo handi bat etxeko danon partetik eta ondo pasatu zure urtebetetze eguna.



OÑATI
Elene Gabiola Igartua
Abenduaren 6an, 2 urte. Zorionak eta urte askotarako, printzesa! Muxu potolo bat familia danaren partetik!



ARETXABALETA
Aner eta Unax Maria Tercero
Abenduaren 5ean, 4 urte. Zorionak, xalatu horiek! Zuen laugarren urtebetetze eguna heldu da! Egun zoragarria pasatuko dugu familia eta lagun guztien artean. Pozik bizi, orain arte bezala, *felixianook*! Besarkada erraldoi bat zuen gurasoen, familiaren eta lagun partetik, laztanak! Asko maite zaituztegu, bikote! Muak!



ARRASATE
Aimar San Miguel Galiot
Abenduaren 5ean, urtebete. Zorionak gure erregetxoari! Urtebete gure mutiltxuak! Jarraitu zure irribarre polit horrekin! Muxu handi eta potolo bat gu denon partetik. Zorionak, Aimartxo!



OÑATI
Olaia Urzelai Fernandez
Abenduaren 4an, 6 urte. Zorionak eta urte askotarako, Olaia! Zelako aguro pasatu dan beste urte bat! Jada sei urtetxo! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna! Patxo asko familia danaren partetik!



ARRASATE
Alazne Berasaluze Pastor
Abenduaren 3an, 6 urte. Patxo handi bat eta ondo-ondo pasatu zure egunean, etxekoan partetik.



BERGARA
Peru Larrañaga Barrenetxea
Abenduaren 2an, urtebete. Zorionak, printze! Urtebete gure mutiltxuak! Jarraitxu zure barretxo polit horrekin poz-pozik! Patxo potolo bat gu danon partetik baina jaso handi-handixena Sarerengandik! Zorionak, Perubitxo!



ARRASATE
Itxaso Urgoitia Agirre
Abenduaren 2an, 9 urte. Zorionak, laztana! Patxo handi bat etxekoan partetik!



BERGARA
Maddi Iñarra Agirre
Abenduaren 2an, urtebete. Zorionak, Maddi! Konturatu orduko urtetxo bat. Muxu handi bat etxeko guztion partetik.



ARRASATE
Ilia Madina eta Zihara Bergaretxe
Abenduaren 1ean, 5 urte. Zorionak, printzesak! Ondo-ondo pasatu! Besarkadak eta muxu potoloak lagun guztien partetik.



BERGARA
Xanet Aranburu
Zorionak, Xanet! Azaroaren 30ean bi urte bete zenituen. Ederki ospatu eta pasatu genuen eguna. Eskerrik asko! Asko maite zaitugu, pottoko!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Sar zaitez *Goiena.eus* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitez Goienaren ordezkariaren batera.

Egubakoitzeko
11:00ak arte
jasotako zorion agurrak
bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak
hurrengo astean
argitaratuko ditugu.

JAIO TAKOAK



Intza Elkoroberezibar Muguruza

Bergara. 3,260 Kilo. Abenduaren 4a. Gurasoak: Eneritz eta Ander. Argazkian, Intza, aitona Joseren besoetan.



Ander Aparicio Aranzabal

Bergara. 3,740 Kilo. Abenduaren 2a. Gurasoak: Olatz eta Jaime. Argazkian, Ander, lasai-lasai sehaskan.



Martxel Zaitegi Gomez

Arrasate. 4,160 Kilo. Abenduaren 2a. Gurasoak: Nerea eta Beñat. Argazkian, Martxel, gurasoekin.



David Torreiro Rodriguez

Elorrio. 3,200 Kilo. Azaroaren 30a. Gurasoak: Paula eta Carlos. Argazkian, DAvid jaioberria sehaskan lo.



Mattin Urizar Albizu

Abadiño. 3,400 Kilo. Azaroaren 30a. Gurasoak: Saioa eta Andoni. Argazkian, Mattin txikia amarekin.



Said Rachidi Fuente

Arrasate. 3,100 Kilo. Azaroaren 29a. Gurasoak: Suriñe eta Abdallah. Argazkian, Said txikia sehaskan.

Jaio da!

Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten.
Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENaren ordezkaritza batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu.
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

	Dotore-tasuna	▼		Lextarre-koak	▼		Haran-basa	▼	
	Lotarako gela			Guduen segida			Zelai		
	▶			▼			▼		
	AEB-etako estatua	▶							
	Lur zati trinko								
Bizkaiko igandea	▼	Basamortua	▶						
* Irudiko garraiobidea		Zakar, latz							
▶		▼					Röntgen	▶	
							Gizon izena		
Makeakoa	▶						▼		
... beko, aurrez aurre									
▶					Edari bizi	▶			
					Interjekzioa				
Garestiak	▶				▼				Lehenengo bokala
Su bizi									
▶			Atmosfera eratzen duen gasa	▶					▼

LUMA

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.

SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNAK

V	E	R	I	V	■	R	V	G
■	K	V	I	R	■	K	V	■
N	O	R	■	Z	O	K	E	B
A	R	R	■	E	A	R	■	M
R	■	V	R	O	R	I	O	M
V	U	L	R	O	■	D	■	■
S	A	X	E	T	■	■	■	■
A	L	E	G	O	T	■	■	■
B	■	L	■	■	■	■	■	■

BILA-BILA 7

Fusioa gastronomia italiarrari aplikatuta

Pizzak eta izozkiak dira Italiako gastronomiaren ikur esanguratsuenetakoak. Bada, horra hor izozki itxura eman dioten pizza. www.nopuedocreer.com



34

URTE

1980ko abenduaren 8an, gaur 34 urte, Mark David Chapmanek tiroz hil zuen John Lennon. New Yorkeko Dakota eraikinaren sarreran. Egun hartan bertan, tirokatu baino lehenago, autografo bat eskatu zion Chapmanek Lennoni. Hiltzailea oraindik ere espetxean dago. www.wikipedia.com



Max. 9°

Min. 5°

Zerua oso hodeitsu egongo eta euria egingo du. Giro euri-tsua eta haizetsua izango dugu. euskalmet.net

goiena

2014-12-08

Iker Karrera Amezketako Lizeaga baserriko semea, Salomon Spain taldeko mendi lasterkariaren lorpenetako bat Tor des Geants irabaztea izan da, 330 kilometroko ibilbidea duen lasterketa | TXOMIN MADINA

"Bizitzan ero puntu bat ere izan behar da gozatu ahal izateko"

1. Mendian korrika ibiltzea gauza naturala ei da zuretzat.

Txikitatik egin izan dut. Ganadua zaintzeko eta etxetik eskolara joateko nire mugitzeko modua oinez zen; eta sarritan, korrika.

2. 330 kilometroko lasterketa bat egiteko, zer landu behar da gehiago, burua ala hankak?

Biak. Alde bakarra landuta, erdi-bidera ere ez zara iritsiko; oreka behar da. Burua, ibiliaz lantzen da, esperientzia bilduz. Non zauden eta zertara zoazen argi izan behar duzu.

3. Lasterketa hasi aurreko minutuetan, ez zaizu nagikeriarik sartzen?

Akaso, aurreko hilabeteetan edo egun txarren baten bai, baina aurreko minutuetan ez. Orduan, benetan duzun gogoia da abiatzea, korrika hastea.

4. Irabazi edo ez, lasterketa bukatzeagatik zure buruari ematen diozu saririk?

Bukatzea beti da pozgarria, baina, gure kasuan, aurrean ibiltzea, borrokan ibiltzea gustatzen zaigu. Benetan gozatu, emaitza onak lortzean gozatzen dut.

5. Askorentzat, horrelako lasterketak zorakeria dira.

Bai, baina gauza bera esango nieke beste hamar mila gauzaren inguruan. Benetan betetzen zaituzten gauza asko ezin dira hotzean pentsatuta egin. Bizitzan ero puntu bat ere izan behar da gozatu ahal izateko.



MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Justizia egitea bultzatuko nuke; gizartean antolatzeke, bizitzeko, oinarritzeko dela uste dut".

AGM

6. Urte hasiera ez duzu erraza izan.

Urteetako lasterketa eta kilometro askoren zama pilatu zen, eta gogorra izan zen negua. Denboraldi hasieran kosta egin zitzaidan lesioak atzean utzi eta sasoi onean jartzea. Egin nuena izan zen geratu, eta gero berriz ere hutsetik hasi.

7. Mendirik mendi, mundua eza-gutzeko aukera ere izan duzu.

Ipar Amerika eta Ozeania kenduta, beste kontinente guztietan ibiltzeko zortea izan dut. Salomon taldean egoteak ematen dit horretarako aukera. Ez dut mendi gustukoenik, guztiek dute berezitasunen bat.

8. Urtean zenbat zapatila pare erabiltzen dituzu?

Askok; orain, etxean 30 inguru izango ditut. Nire patrikatik ordaindu beharko banitu, askoz gutxiago izango nituzke, baina, taldean egonda, zapatila asko probatzeko zortea dut, beste askok ez dutena.

9. 40 urte bete zenituen irailean; erritmoa jaisten hasteko ordua?

Ez dakit. Azken urteotan gorputza eta burua hobetzen sentitu ditut; fisikoki maila onean ibiltzeko moduan nagoela uste dut. Ez dakit lehiatzeko gosez jarraitzen dudana, baina bai mendian korrika gozatzen segitzeko gosez.

10. Zein duzu hurrengo erronka?

Hilabete barru jaioko den semea. Horrek erakutsiko dit posible izango dudana goi mailan lehiatzea, hura izango da eta lehentasuna.

AINHOA LARRAÑAGA



Euskara politikaren erdian

Euskararen isobarak. Hama-sei gezur handi eta koda bat, Pako Aristiren liburua irakurtzeko gomen-dia luzatuko nioke euskararen inguruan entzun eta sinetsi izan ditugun hainbat ustezko egia deseraikitzeke interesa duen edozeini. Hemen ideia solte batzuk:

Euskararen egoerari buruzko diagnostikoa egiteko, ezinbestekoa da historiara jotzea. Ez gara egoera honetara modu naturalean iritsi, urte luzeetako errepresio dosiek ekarri gaituzte egoera minorizatu honetara. Eta, luzaroan daramagu -herri menderatuek egin ohi duten moduan- errua gure buruari botatzen.

Bestalde, urteak daramatzagu esaten, euskara ez dela politizatu behar. Politika boterea eskuratzeko borroka bada eta boterea berriz, nahi ditugun ideiak aurrera eramateko ahalmena eskuratzeko, botererik gabe ezin diezaiokegu euskarari dagokion maila eskaini. Estatu orok hizkuntza erabiltzen du eta behar du, identitatea sendotu edo ahultzeko.

Hori dela eta, ezin da defendatu hizkuntzen arteko elkarbizitza baketsurik gurean. Espainola eta frantsesa dira gurean hizkuntza hegemonikoak eta inperialismo linguistikoak eraman gaitu sinestera sedukzioa eta elkarbizitzarekin lortuko dugula hizkuntzaren normalizazioa.

Bagara edo ez gara. Eta baldin bagara euskaragatik da.

iker, s.l.

sukaldeak | etxea | armairuak

ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorenzo 1 / 943 53 35 48

dica

